



# ALDIZKARI OFIZIALA BOLETÍN OFICIAL

XII. legegintzaldia / XII legislatura

N.º 97 zk.

2022.06.29 / 29.06.2022

## LABURPENA / SUMARIO

### LEGEGINTZA FUNCTION LEGISLATIVA

Lege-proiektuak

Proyectos de ley

Lege-proposamenak

Proposiciones de ley

### INFORMAZIOAK INFORMACIONES

Deialdiak

Convocatorias

Antolaketa eta Giza Baliaibideak

Organización y Recursos Humanos

# ALDIZKARI OFIZIALA BOLETÍN OFICIAL

XII. legegintzaldia / XII legislatura

N.º 97 zk.

2022.06.29 / 29.06.2022

## AURKIBIDEA ÍNDICE

## LEGEGINZA FUNCIÓN LEGISLATIVA

### LEGE-PROIEKTUAK PROYECTOS DE LEY

18856 or. <i>Xedapen orokorrak egiteko prozedurarena</i> (Ponentziaren txostena)	Pág. 18856 <i>Del procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general</i> (Informe de la ponencia)
18888 or. <i>Xedapen orokorrak egiteko prozedurarena</i> (Batzordearen irizpena)	Pág. 18888 <i>Del procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general</i> (Dictamen de la comisión)
18917 or. <i>Landa-ingurunearen garapenarena</i> (Ponentziaren txostena)	Pág. 18917 <i>De desarrollo rural</i> (Informe de la ponencia)
18960 or. <i>Landa-ingurunearen garapenarena</i> (Batzordearen irizpena)	Pág. 18960 <i>De desarrollo rural</i> (Dictamen de la comisión)

### LEGE-PROPOSAMENAK PROPOSICIONES DE LEY

19001 or. <i>Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisiko eta kirol-arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruz</i> (Ponentziaren txostena)	Pág. 19001 <i>Sobre acceso y ejercicio de profesiones de la actividad física y del deporte en la Comunidad Autónoma del País Vasco</i> (Informe de la ponencia)
--	---

19048 or. <i>Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruz</i> (Batzordearen irizpena)	Pág. 19048 <i>Sobre acceso y ejercicio de profesiones de la actividad física y del deporte en la Comunidad Autónoma del País Vasco</i> (Dictamen de la comisión)
19090 or. <i>Lagun egiteko animaliak babesteari buruz</i> (Ponentziaren txostena)	Pág. 19090 <i>De protección de los animales de compañía</i> (Informe de la ponencia)
19152 or. <i>Etxeko animaliak babesteari buruz</i> (Batzordearen irizpena)	Pág. 19152 <i>De protección de los animales domésticos</i> (Dictamen de la comisión)

## **INFORMAZIOAK INFORMACIONES**

### **DEIALDIAK CONVOCATORIAS**

19209 or. <i>2022ko ekainaren 30erako izendatu den ohiko osoko bilkurarako deialdia</i>	Pág. 19209 <i>Convocatoria de pleno ordinario señalado para el día 30 de junio de 2022</i>
---	--

## **ANTOLAKETA ETA GIZA BALIABIDEAK ORGANIZACIÓN Y RECURSOS HUMANOS**

19210 or. <i>Langileen estatutua eta Legebiltzarreko Administrazioaren araubide juridikoa aldatzeko</i> (Hutsak zuzentzea)	Pág. 19210 <i>Modificación del Estatuto de personal y régimen jurídico de la Administración parlamentaria</i> (Corrección de errores)
--	---



## LEGEINTZA FUNCIÓN LEGISLATIVA

### LEGE-PROIEKTUAK PROYECTOS DE LEY

**Xedapen orokorrak egiteko prozedurarena**  
(Ponentziaren txostena)  
(12/09.01.00.00008)

Mahaiak, 2022ko ekainaren 27ko bileran, agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila ponentziak lege-proiektuaz egindako txostena.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**ERAKUNDE, GOBERNANTZA PUBLIKO ETA  
SEGURTASUN BATZORDEARI**

**TXOSTENA, XEDAPEN OROKORRAK EGITEKO  
PROZEDURAREN LEGE-PROIEKTUAREN GAINEAN**

Ponentzia eratu zen xedapen orokorrak egiteko prozeduraren lege-proiektuaren gaineke txostena egiteko.

Ponentziak 2022ko ekainaren 6an egindako bileran, legebiltzarkide hauek izan dira: Luis Ignacio Gordillo Pérez (ETP-C), Gustavo Angulo García (EP-IU), María Jesús San José López (ES), Leire Pinedo Bustamante (EH Bildu) eta Jon Andoni Atutxa Sainz (EA-NV).

Legebiltzarraren Erregelamenduko 138. artikulan adierazitakoa betetzeko, Erakunde, Gobernanzta Publiko eta Segurtasun Batzordeari aurkezten dio ondoko

#### TXOSTENA

##### I. ZUZENKETEN EZTABADA

- Lege-proiektuaren izena. Zuzenketarik gabe.
- Zioen azalpena. Onartua: 1 (EH Bildu) eta 32 (EP-IU).
- 1. artikula. Ez dira onartu: 17 eta 18 (ETP-C).
- 2. artikula. Onartua: 19 (ETP-C). Ez da onartu: 20 (ETP-C).
- 3. artikula. Ez dira onartu: 21, 22 eta 23 (ETP-C).
- 3 bis artikula (berria) (4.a izango da). Erdibidekoa: 2 (EH Bildu). Ez da onartu: 24 (ETP-C).

*Del procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general* (Informe de la ponencia)  
(12/09.01.00.00008)

La Mesa, en su reunión del día 27 de junio de 2022, ordena la publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco del informe de la ponencia en relación con el proyecto de ley.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**A LA COMISIÓN DE INSTITUCIONES,  
GOBERNANZA PÚBLICA Y SEGURIDAD**

**INFORME DEL PROYECTO DE LEY DEL  
PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN DE LAS  
DISPOSICIONES DE CARÁCTER GENERAL**

La ponencia encargada de redactar el informe relativo al proyecto de ley del procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se ha reunido el día 6 de junio de 2022, con la asistencia de Luis Ignacio Gordillo Pérez (VP-C), Gustavo Angulo García (EP-IU), María Jesús San José López (SV), Leire Pinedo Bustamante (EH Bildu) y Jon Andoni Atutxa Sainz (EA-NV), y, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 138 del Reglamento de la Cámara, eleva a la Comisión de Instituciones, Gobernanza Pública y Seguridad el siguiente

#### INFORME

##### I. DEBATE DE LAS ENMIENDAS

- Título del proyecto de ley. Sin enmiendas
- Exposición de motivos. Se asumen: 1 (EH Bildu) y 32 (EP-IU).
- Artículo 1. No se asumen: 17 y 18 (VP-C).
- Artículo 2. Se asume: 19 (VP-C). No se asume: 20 (VP-C).
- Artículo 3. No se asumen: 21, 22 y 23 (VP-C).
- Artículo 3 bis (nuevo) (pasa a ser 4). Se transa: 2 (EH Bildu). No se asume: 24 (VP-C).



- 3. ter artikulua (berria) (5.a izango da). Onartua: 3 (EH Bildu). - Artículo 3 ter (nuevo) (pasa a ser 5). Se asume: 3 (EH Bildu).
- 4. artikulua (6.a izango da). Onartua: 33 (EP-IU). - Artículo 4 (pasa a ser 6). Se asume: 33 (EP-IU).
- 5. artikulua (7.a izango da). Erdibidekoa: 4 (EH Bildu). Ez dira onartu: 25 (ETP-C) eta 5 (EH Bildu) - Artículo 5 (pasa a ser 7). Se transa: 4 (EH Bildu). No se asumen: 25 (VP-C) y 5 (EH Bildu).
- 6. artikulua (8.a izango da). Erdibidekoa: 6 (EH Bildu). - Artículo 6 (pasa a ser 8). Se transa: 6 (EH Bildu).
- 7. artikulua (9.a izango da). Onartuak: 26 (ETP-C) eta 34 (EP-IU). Ez da onartu: 7 (EH Bildu). - Artículo 7 (pasa a ser 9). Se asumen: 26 (VP-C) y 34 (EP-IU). No se asume: 7 (EH Bildu).
- 8. artikulua (10.a izango da). Erdibidekoa: 8 (EH Bildu) eta 35 (EP-IU). - Artículo 8 (pasa a ser 10). Se transa: 8 (EH Bildu) y 35 (EP-IU).
- 9. artikulua (11.a izango da). Erdibidekoa: 9 (EH Bildu) eta 36 (EP-IU). Ez da onartu: 27 (ETP-C). - Artículo 9 (pasa a ser 11). Se transa: 9 (EH Bildu) y 36 (EP-IU). No se asume: 27 (VP-C).
- 10. artikulua (12.a izango da). Zuzenketarik gabe. - Artículo 10 (pasa a ser 12). Sin enmiendas.
- 11. artikulua (13.a izango da). Onartua: 37 (EP-IU). Erdibidekoa: 28 (ETP-C). Ez dira onartu: 10 eta 11 (EH Bildu). - Artículo 11 (pasa a ser 13). Se asume: 37 (EP-IU). Se transa: 28 (VP-C). No se asumen: 10 y 11 (EH Bildu).
- 12. artikulua (14.a izango da). Erdibidekoa: 12 (EH Bildu) eta 38 (EP-IU). - Artículo 12 (pasa a ser 14). Se transa: 12 (EH Bildu) y 38 (EP-IU).
- 13. artikulua (15.a izango da). Onartuak: 39, 40, 41, 42, 43, 44, 45 eta 46 (EP-IU). - Artículo 13 (pasa a ser 15). Se asumen: 39, 40, 41, 42, 43, 44, 45 y 46 (EP-IU).
- 14. artikulua (16.a izango da). Onartua: 47 (EP-IU). - Artículo 14 (pasa a ser 16). Se asume: 47 (EP-IU).
- 15. artikulua (17.a izango da). Onartua: 29 (ETP-C). Ez da onartu: 48 (EP-IU). - Artículo 15 (pasa a ser 17). Se asume: 29 (VP-C). No se asume: 48 (EP-IU).
- 16. artikulua (18.a izango da). Zuzenketarik gabe. - Artículo 16 (pasa a ser 18). Sin enmiendas.
- 17. artikulua (19.a izango da). Ez da onartu: 49 (EP-IU). - Artículo 17 (pasa a ser 19). No se asume: 49 (EP-IU).
- 18. artikulua (20.a izango da). Onartua: 50 (EP-IU). - Artículo 18 (pasa a ser 20). Se asume: 50 (EP-IU).
- 19. artikulua (21.a izango da). Onartua: 51 (EP-IU). - Artículo 19 (pasa a ser 21). Se asume: 51 (EP-IU).
- 20. artikulua (22.a izango da). Zuzenketarik gabe. - Artículo 20 (pasa a ser 22). Sin enmiendas.
- 20 bis artikulua (berria). Ez da onartu: 13 (EH Bildu). - Artículo 20 bis (nuevo). No se asume: 13 (EH Bildu).
- 21. artikulua (23.a izango da). Zuzenketarik gabe. - Artículo 21 (pasa a ser 23). Sin enmiendas.



- 21. bis artikula (berria). Ez da onartu: 52 (EP-IU).
- 22. artikula (24.a izango da). Onartua: 57 (EA-NV eta ES). Ez da onartu: 14 (EH Bildu).
- 23. artikula (25.a izango da). Erdibidekoa: 53 (EP-IU).
- 24. artikula (26.a izango da). Zuzenketarik gabe.
- 25. artikula (27.a izango da). Zuzenketarik gabe.
- 26. artikula (28.a izango da). Ez da onartu: 30 (ETP-C).
- 27. artikula (29.a izango da). Erdibidekoa: 15 (EH Bildu).
- 28. artikula (30.a izango da). Zuzenketarik gabe.
- Xedapen gehigarria. Zuzenketarik gabe.
- Xedapen iragankorra. Zuzenketarik gabe.
- Xedapen indargabetzailea. Zuzenketarik gabe.
- Azken xedapenetatik lehenengoa. Ez da onartu: 31 (ETP-C).
- Azken xedapenetatik bigarrena. Onartua: 16 (EH Bildu). Ez da onartu: 31 bis (ETP-C).
- Azken xedapen berria. Ez dira onartu: 54, 55 eta 56 (EP-IU).
- Azken xedapenetatik hirugarrena. Zuzenketarik gabe.
- Artículo 21 bis (nuevo). No se asume: 52 (EP-IU).
- Artículo 22 (pasa a ser 24). Se asume: 57 (EA-NV y SV). No se asume: 14 (EH Bildu).
- Artículo 23 (pasa a ser 25). Se transa: 53 (EP-IU).
- Artículo 24 (pasa a ser 26). Sin enmiendas.
- Artículo 25 (pasa a ser 27). Sin enmiendas.
- Artículo 26 (pasa a ser 28). No se asume: 30 (VP-C).
- Artículo 27 (pasa a ser 29). Se transa: 15 (EH Bildu).
- Artículo 28 (pasa a ser 30). Sin enmiendas.
- Disposición adicional. Sin enmiendas.
- Disposición transitoria. Sin enmiendas.
- Disposición derogatoria. Sin enmiendas.
- Disposición final primera. No se asume: 31 (VP-C).
- Disposición final segunda. Se asume: 16 (EH Bildu). No se asume: 31 bis (VP-C).
- Disposición final nueva. No se asumen: 54, 55 y 56 (EP-IU).
- Disposición final tercera. Sin enmiendas.

## II. PROPOSATUTAKO TESTUA

Ponentziak honako testu hau proposatzen dio batzordeari:

Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren lege-proiektua

### ZIOEN AZALPENA

8/2003 Legeak onartu zenetik izan duen bezala, lege berriak Gobernuaren ekinenez bultzatzen diren xedapen orokorreko arauak izapidezko prozedura du xede. Xedapen orokor horien baitan hartzen dira araubidea berritzeko xedea duten lege-zein erregelamendu-mailako xedapenak.

Legea eguneratzea eta hobetzea da, zalantzarak gabe, lortu nahi den helburu generikoena, kontuan

## II. TEXTO PROUESTO

La ponencia propone a la comisión el siguiente texto:

Proyecto de ley del procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Como viene haciendo la Ley 8/2003 desde su aprobación, la nueva ley tiene por objeto el procedimiento de tramitación de las disposiciones de carácter general impulsadas por iniciativa del Gobierno. Estas disposiciones de carácter general comprenden tanto las de rango legal como reglamentario que tienen por objeto la reforma de la normativa.

Los objetivos más genéricos perseguidos se orientan, obviamente, a actualizar y mejorar la ley,



hartuz lege hori aitzindaria izan zela gure arau-produktuen kalitate hobea sustatu nahi izaten, helburu horiek berberak dituen Europako korrontearekin bat eginez eta, besteak beste, bide hauek erabilita: erregulazio onaren printzipioak aplikatuta eta arauak izan ditzaketen ondorioen aurretiko analisiak egiteko tresnak bultzatzeko neurriak hartuta, proposamenak lantzerakoan aurretiko konsultak eginda eta herritarren partaidetza bultzatuta edo hausnarketetarako metodo orokor gisa aurretik eta ondoren ebaluazioa sartuta, helburu izanik indarrean dagoen araudiaren aldizkako berrikusketari arrakastaz aurre nola egin jakiteko adierazle zehatzak lortzea.

Horrenbestez, indartu egiten da Xedapen Orokorrak Egiteko Proceduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legean jasotako helburua: "egingo diren arauak oinarri objektibo bat izan dezatela, teknika juridiko egokiaren arabera eman daitezela eta gizarteak onets ditzala" lortzea, "pentsaera liberalak erregearen absolutismoa irauli eta legearen funtsa erregearen kontrolik gabeko nahi hutsetik atera eta arrazoian ezarri zuen moduan (nec voluntas sed ratio facit legem)".

Badago, bestalde, beste helburu zehatzagoen multzo anizkoitz bat ere. Aipatzekoa da, besteak beste, egoki dela xedapen orokorrak direlakoak egiteko proceduran izan diren mugarrien zehatzapena berrikustea, denbora asko igaro baite ordeztu nahi den legea onartu zenetik, eta arau horiek egokitutu egin behar zaizkiela ordutik hona eman diren eta lege batzuetan eta besteek ezarri dituzten aldaketei eta prozedura horiek berriztatzeko erronkari.

Lege honekin, halaber, aurrera egingo da segurtasun juridikoaren printzipioa zaintzeko bidean. Horretarako, bi legek oinarrizko izaerarekin eragin dituzten legegintza-al daketa k aztertuko ditugu, eta berehalako erantzuna emango –2015eko 39 eta 40 Legeez ari gara, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen eta Sekto Publikoaren Araubide Juridikoaren legeez, hurrenez hurren–, horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren antolaketara eta funtzionamendura egokitzea eta integratzeko, helburu zehatz bat izanik: euskal legeak arautzen dituen gainerako izapideekiko harmonia lortzea.

Euskal legeriatik datozen ekarpenei dagokienez, ezinbestekoa da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak ezartzen duen udal-autonomia bermatzeko sistema berria eta zehatz aintzatestea eta aztertzen ari garen prozeduran behar bezala integratzea. Horretarako, ahalegina egin da alerta goiztarreko mekanismoa garaiz eta modu egokian ezartzeko, zeinak eskumen bat esleitzen baitio aipatu legearen bidez sortutako Tokiko Gobernuen Batzordeari: nahitaezko txostena egitea Euskal

teniendo en cuenta que ya fue pionera en sus pretensiones de promover una mayor calidad de nuestros productos normativos, en sintonía con la corriente europea que busca esos mismos objetivos, entre otras herramientas, a través de la aplicación de principios de buena regulación y de la introducción de medidas en el sentido de promover los instrumentos de análisis previos de los efectos de las normas, la consulta previa y la participación ciudadana en la elaboración de las propuestas, o a través de la introducción de la evaluación como método generalizado de reflexión antes y después, a fin de llegar a obtener los indicadores más precisos sobre cómo afrontar con éxito la revisión periódica de la normativa vigente.

Se refuerza, de esa manera, el objetivo ya declarado de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, de procurar "que las futuras normas se asienten en un fundamento objetivo, se formulen con una técnica jurídica adecuada y obtengan una respuesta favorable de la sociedad", del mismo modo en que "el pensamiento liberal invirtió los términos del absolutismo regio y fundamentó la Ley en la razón y no en la desnuda voluntad incontrolada del monarca (nec voluntas sed ratio facit legem)".

Hay, por otra parte, una variada gama de objetivos más concretos. Citaremos tanto la procedencia de revisar la determinación de los hitos que se suceden en el procedimiento de elaboración de las llamadas disposiciones de carácter general, fruto de los requerimientos que impone el tiempo transcurrido desde la aprobación de la ley que se pretende sustituir, como la exigencia de adaptar dicha regulación a los cambios que han introducido desde entonces diversas leyes y a la propia exigencia que nos impone el reto de modernizar los procedimientos.

Con esta ley se avanza, asimismo, en preservar el principio de seguridad jurídica, deteniéndonos al efecto en el análisis y en la respuesta inmediata que nos exigen los cambios legislativos que inciden con carácter básico desde las Leyes 39 y 40 de 2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Pùblicas y del Régimen Jurídico del Sector Público, respectivamente, para adaptarlos e integrarlos en la organización y funcionamiento de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, con un objetivo preciso de lograr la armonía con el resto de los trámites que regula la ley vasca.

En cuanto a las aportaciones que derivan de la propia legislación vasca, es preciso reconocer e integrar adecuadamente en el procedimiento que nos ocupa el nuevo y depurado sistema de garantía de la autonomía municipal que instaura la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi. A tal fin, se procura la inserción, en tiempo y forma idóneos, del mecanismo de alerta temprana, que supone la atribución a la Comisión de Gobiernos Locales que crea dicha ley de la emisión de un



Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ematen dituen eta udal-eskumenei eragiten dieten xedapen orokorrak egiteko prozeduretan.

Orain ordezten den legea bermatu zuten zuzenbide-oinarri gaitzaile berberak ditu oinarrian lege honek ere, Gernikako Autonomia Estatutuan aurreikusitako oinarrizko eskumen-euskarrari bikoitz duela, bai 10.2 artikuluan jasotakoa, autogobernurako gure instituzioen antolaketa, araubide eta funtzionamenduaren arloko eskumen esklusiboari buruzkoa; bai 10.6 artikuluan jasotakoa, gure zuzenbide substantibotik eta Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko antolamendutik datozen administrazio-prozeduraren arauak ezartzeko dugun gaitasunaren arlokoa.

Azaltzen ari garen prozedura –arauak egiteko– araugintzaren kontrol- eta gainbegiratze-jarduera arautzen duten zenbait sektore-legerezko (hala nola Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekiko) erreferente denez, indarrean dagoen arautegian izango duen eraginak erreferente izate horrekin du zerikusia. Lege hau tresna baliagarria izango da sektore-lege horientzat, nork bere ekintzetan sakontzeko. Horrexegatik, lege horretan aldaketak egitea proposatzen da, jatorrizko idazkeran zenbait interpretazio izan duten manuak zehaztu eta ziurtatzeko asmoz; izan ere, interpretazio horietako batzuk arauaren espirituaren edo aplikatu behar diren garaiko errealitatearen kontra joan daitezke. Eta erreferente izango da Administrazioaren beraren esparru-arau askorekiko ere, zeinek egingarritasun material handiagoa izan dezaten bilatu nahi baita, dagoeneko abian ditugun prozedurak hobeto egoki daitezen digitalizazioaren, gardentasunaren, herritarren partaidetzaren edo ebaluazioaren fenomeno berriek ezartzen dituzten testuinguruetara, prozedurak finkatu eta hobetu egin behar baitira efikazia areagotzeo.

Aurretik aipatutako guztia kontuan hartuta, eta orain arte indarrean dagoen 8/2003 Legeari zenbat aldaketa egiten zaizkion ikusita, beste testu artikulatu oso bat onestea erabaki da, lege bakar honetan sar daitezen xedapen orokorrak egiteko prozedurarekin zerikusia duten arau guztiak.

## I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikula. Legearen xedea eta lege-erreserbaren irismena

1. Xedapen orokorrak egiteko prozedura arautza da lege honen xedea.
2. Lege bidez eta modu arrazoituan baino ezin izango dira sartu izapide gehigarriak edo lege

informe preceptivo en los procedimientos de elaboración de las disposiciones de carácter general que afecten a las competencias municipales y que se adopten en la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Los fundamentos jurídicos habilitantes en que se apoya la presente ley son los mismos que respaldaron la ley ahora sustituida, con un doble soporte competencial principal, previsto en el Estatuto de Autonomía de Gernika, tanto en el artículo 10.2, sobre nuestra competencia exclusiva en materia de organización, régimen y funcionamiento de nuestras instituciones de autogobierno, como en el artículo 10.6, referido a nuestra capacidad para establecer las normas de procedimiento administrativo que deriven de las especialidades de nuestro derecho sustantivo y de la organización propia del País Vasco.

La incidencia previsible en la normativa en vigor tiene que ver con la caracterización de referente que tiene el procedimiento del que nos ocupamos –para elaborar las normas– respecto a diversas leyes sectoriales que regulan la actividad de control y supervisión de la producción normativa, pasando por las leyes que, como la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, tienen en esta ley un instrumento valioso para profundizar en su acción. Es por ello por lo que se proponen modificaciones en dicha ley, con el ánimo de fijar y asegurar mandatos en cuya redacción original han dado lugar a diversas interpretaciones, de las cuales algunas podrían ir en contra del espíritu de la norma o de la realidad del tiempo al que han de aplicarse, o al resto de las regulaciones domésticas de la Administración, respecto a las que se busca una mayor factibilidad material, para mejor adaptar a los contextos que imponen los nuevos fenómenos de digitalización, transparencia, participación ciudadana o evaluación, los procedimientos que ya tenemos en marcha y que es preciso consolidar y mejorar para ganar en eficacia.

Visto todo lo anterior y dado el caudal de cambios que se introducen sobre el texto de la hasta ahora vigente Ley 8/2003, se ha optado por la opción de someter a aprobación un nuevo texto articulado completo que incorpore e integre en esta única ley todas las normas concernientes a la materia del procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general.

## CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

### Artículo 1. Objeto de la ley y alcance de la reserva legal

1. La presente ley tiene por objeto el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general.
2. Solo mediante ley, cuando resulte eficaz, proporcionado y necesario para la consecución



honetan ezarri ez diren nahitaezko beste izapide batzuk, eta, betiere, izapide horiek sartzea efikaz, neurrizko eta beharrezkoa bada prozeduraren berezko xedeak lortzeko.

3. Sektoreko legeek edo elaborazio-procedura aldatzeko berariazko xeda ez duten legeek berariaz eta zuzenean aldatu beharko dute lege hau baldin eta xedapenak egiteko procedura guztietan oro har eta nahitaez sartu beharreko edozein izapide sartu nahi badute, edota, gaiaren araberako prozedura berezia dagoela ohartarazteko, prozedura horietan bakarrak eska daitekeen izapide berriren bat sartza nahi badute.
  
4. Ez dira prozedura berezitzat hartuko, nahiz eta gainerako guztian lege honetan xedatutako izapideak bete, berezitasun bakartzat gaiaren arabera nahitaezko den txostenen bat eskatzea duten prozedurak.
  
5. Prozeduraren berezitasunak erregelamenduz ezarri ahal izango dira; hain zuzen, edukiari, eskakizun formalei edo bildu behar diren txostenak egiteko moduari buruzkoak. Halaber, erregelamendu bidez ezarri ahal izango da beste izapide osagarri batzuk edota nahitaezkoak ez diren izapideak egiteko aukera.

## **2. artikula. Aplikazio-eremua eta gaiaren araberako prozedura bereziak**

1. Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak egiten dituzten xedapen orokorrein ezarriko zaie lege hau. Lege-mailako arauetan bestelako prozedura espezifiko bat ezarria duten beste xedapenak prozedura horren arabera egingo dira; hala ere, lege honetan ezarritakoa modu osagarrian aplikatuko da.
  
2. Jarraian zehaztutako gaiak arautuko dituzten xedapen orokorrak egiteko prozedurak haien araudi espezifikoak ezarritakoari jarraituko dio, eta, modu osagarrian, lege honek ezarritakoari:
  - a) Tributu- eta aduana-gaietakoak, baita tributuak aplikatzeko prozedurei buruzkoak edo haien administrazio-bidean berrikusteari buruzkoak ere.
  - b) Gizarte Segurantzaren arloan Estatuaren oinarritzko legeria garatzekoak eta oinarriak betearaztekoak edo Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoa kudeatzekoak.

de los fines propios del procedimiento, y de manera motivada, podrán incluirse trámites preceptivos adicionales o distintos a los contemplados en esta ley.

3. Las leyes de carácter sectorial o que no tengan como objeto expreso la modificación del procedimiento de elaboración deberán proceder a la modificación expresa y directa de esta ley cuando pretendan introducir cualquier trámite que preceptivamente deba ser considerado con carácter general en todos los procedimientos de elaboración de disposiciones, o para advertir la existencia de un procedimiento especial por razón de la materia, cuando pretendan introducir algún nuevo trámite que solo deba ser exigible en dichos procedimientos.
  
4. No tendrán la consideración de procedimientos especiales aquellos que, siguiendo en todo lo demás los trámites dispuestos en esta ley, únicamente incluyan como peculiaridad la exigencia de algún informe preceptivo por razón de la materia.
  
5. Reglamentariamente podrán establecerse especialidades del procedimiento referidas al contenido, los requisitos formales o el modo de elaboración de los informes a recabar. También podrá introducirse reglamentariamente la posibilidad de llevar a cabo trámites complementarios o de carácter no preceptivo.

## **Artículo 2. Ámbito de aplicación y procedimientos especiales por razón de la materia**

1. Esta ley se aplicará a las disposiciones de carácter general que elaboren el Gobierno Vasco y la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Aquellas otras disposiciones que tengan establecido en normas con rango de ley un procedimiento de elaboración específico se elaborarán conforme a este, sin perjuicio de la aplicación supletoria de lo establecido en esta ley.
  
2. El procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general que tengan por objeto regular las siguientes materias se regirá por su normativa específica y, supletoriamente, por lo dispuesto en esta ley:
  - a) Las de materia tributaria y aduanera, así como las relativas a los procedimientos de aplicación de los tributos o su revisión en vía administrativa.
  - b) Las de desarrollo legislativo o ejecución de la legislación básica del Estado en materia de Seguridad Social o de gestión del régimen económico de la Seguridad Social.



- c) Tributu- eta aduana-arloko, gizarte- arloko, trafikoaren eta bide- segurtasunaren arloko eta atzerritartasun-arloko jarduketa eta zehapen-procedurak arautzekoak.
- d) Ingurumen-arlokoak.
- e) Aurrekontu-arlokoak.

### 3. artikulua. Arau-xedapen orokorraren kontzeptua

1. Lege honen ondorioetarako, arau-xedapen orokorrak dira, edozein gairen gainekoak izanik ere, legearen, legegintzako dekretuaren, dekretuaren edo aginduaren forma hartzen dutenak, eta antolamendu juridikoa berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak dauzkatuen eta zehaztutako edo zehaztu gabeko epe baterako mota askotako egintzen oinarri diren xedapenak.
2. Ez dira halakotzat joko, nahiz eta batzuk eta besteak organo berek emanak izan eta arau-xedapen orokorren forma berbera hartu, hartziale-multzo zehatzei edo zehaztu daitezkeenei eragiten dieten administrazio-ebazpen edo xedapen partikularrak eta xedapen orokorrak, betiere batzuk eta besteak administrazio-egintzatzat baino hartzen ez badira, iraunkortasun-asmorik ez izanik, behin bakarrik aplikatuta agortzen direlako, nahiz eta kasu askotan aplikatuak izateko asmoa izan edota edukia administrazio-egintza orokor horietan zeharo zehaztuta dakarten beste beteorazpen-egintza batzuk eragin.
3. Halaber, ez dira joko lege hau aplikagarri duten arau-xedapen orokortzat, nahiz eta organo berek emanak izan eta arau-xedapen orokorren forma berbera hartu, aginduzko edukia ez dutenak edota nahitaezko mandatuak ezartzen ez dituztenak, hau da, programazioari buruzko adierazpenak egitera mugatzen direnak, edota lotesleak ez diren edo Administrazioak, dagokion diskrezzionalitatearen barruan, balioesteko eta hantzako baino ez diren irizpide edo jarduketa-printzipioak ezartzera mugatzen direnak.
4. Lege honetan ezarritako proceduratik kanpo gelditzen dira xedapen orokoren interpretazioa argitzeko edo aplikazioa errazteko ematen diren zerbitzu- eta jarraibide-aginduak. Nolanahi ere, xedapenak proposatu edo bere gain hartzen dituen saileko aholkularitzak horiei buruzko txosten juridikoa egingo du.

### Artículo 3. Concepto de disposición normativa de carácter general

1. A los efectos de esta ley, se entienden por disposiciones normativas de carácter general las que, cualquiera que sea la materia sobre la que versen, adoptan la forma de ley, decreto legislativo, decreto u orden, y contienen normas jurídicas que innovan el ordenamiento jurídico, sirviendo de fundamento para una pluralidad de actos durante un lapso de tiempo determinado o indeterminado.
2. No tienen tal consideración, aunque emanen de los mismos órganos y revistan la misma forma que las disposiciones normativas de carácter general, ni las resoluciones administrativas o disposiciones de carácter particular ni aquellas disposiciones de carácter genérico que afecten a una pluralidad de destinatarios determinados o determinables, siempre y cuando unas u otras merezcan tan solo la consideración de acto administrativo, por cuanto no teniendo vocación de permanencia se agoten con una sola aplicación, incluso en el supuesto de que pretendan su aplicación a una pluralidad de casos o aunque den lugar a otros actos de ejecución cuyo contenido esté completamente predeterminado por aquellos actos administrativos.
3. Tampoco tienen consideración de disposiciones normativas de carácter general a las que debe aplicarse esta ley, aunque emanen de los mismos órganos y revistan la misma forma que las disposiciones normativas de carácter general, aquellas que no contienen normas prescriptivas o que no imponen mandatos obligatorios, limitándose a hacer declaraciones programáticas o a establecer criterios o principios de actuación no vinculantes o destinados a ser mero objeto de valoración y ponderación por la Administración dentro de la discrecionalidad que le es propia.
4. Quedan excluidas del procedimiento dispuesto en esta ley las instrucciones u órdenes de servicio que se dicten a fin de aclarar la interpretación o facilitar la aplicación de disposiciones de carácter general, si bien serán objeto del informe jurídico emitido por la asesoría del departamento correspondiente que las proponga o adopte.



5. Kide anitzeko organoek beren barne-jardunbidea arautzeko onartutako erregelamenduen gainean ere, txosten juridikoa egingo du organoa atxikia duen sailak.
6. Xedapen orokorrek arau osagarriak behar badituzte edo garatzeko beste xedapen batzuetara jotzen badute, azken horiek izaera arauemailea izango dute, batez ere lehenengoek egindakoak zurian dauden igorpenak badira edo arau-trinkotasun gutxiokoak badira.
7. Tresna teknikoak onartzeko baino ez diren xedapen orokorrek arau-izaera izaten jarraituko dute, baldin eta tresna tekniko horiek arau horretan edo beste xedapen orokor batean jasotako kontzeptu juridiko zehaztugabeak ordezkatzenko badira edo edukia ematen badiote, xedapen haien garapenerako arau-osagarri beharrezkoak izanik.
5. Los reglamentos que aprueben los órganos colegiados para regular su funcionamiento interno serán objeto, asimismo, del informe jurídico del departamento de adscripción.
6. Las disposiciones de carácter general que requieran de complementos normativos o se remitan a otras disposiciones para su desarrollo supondrán el carácter normativo de estas últimas, especialmente en la medida en que se trate de remisiones en blanco o con escasa densidad normativa.
7. Las disposiciones de carácter general que se limiten a aprobar instrumentos técnicos no dejarán de tener carácter de norma en la medida en que dichos instrumentos técnicos vengan a suplir o a dar contenido a conceptos jurídicos indeterminados que puedan estar contenidos en la misma o en otra disposición de carácter general, constituyendo un desarrollo o complemento normativo necesario de aquellas.

### **3 bis artikulua (berria) (4.a izango da). Araugintza-kalitatearen printzipioak**

Legegintza-ekimena eta erregelamendu-ahala baliatzean, administrazio publikoek arauen kalitatearen eta erregulazio onaren printzipio hauei jarraikiz jokatuko dute:

- a) Behar- eta eraginkortasun-printzipoak: arau-ekimena interes orokorreko arrazoi batek justifikatu behar du, lortu nahi diren helburuak garbi identifikatzen duen oinarria izan behar du, eta helburu horiek lortzeko egokiena den tresna izan behar du.
- b) Proporcionaltasun-printzipoa: ekimenak arauaren bidez ase nahi den beharrari erantzuteko ezinbestekoa den erregulazioa bilduko du, egiatzatu ondoren ez dagoela eskubideak gutxiago murrizten dituen beste neurrik edo betebehar gutxiago dakartzanik.
- c) Segurtasun juridikoaren printzipoa: arau-ekimena ordenamendu juridikoaren gainerako alderdiekin koherentea den moduan gauzatuko da, arau-esparru egonkor, ezagun, integratu, argi eta seguru bat sortzeko, zeinak haren jakintza eta ulemena erraztuko baitu, eta, horren ondorioz, baita pertsonen eta empresen jarduketa eta haien erabakiak hartzeko bidea ere.
- d) Gardentasun-printzipoa: indarreko araudirako eta haren prestatze-prozesuaren berezko dokumentuetarako sarbide erraza, unibertsala eta eguneratua ahalbidetuko da, eta zioen azalpenean argi eta garbi zehaztuko dira arau-ekimenen helburuak eta horien justifikazioa. Horrez gain, ahalbidetuko da balizko

### **Artículo 3 bis (nuevo) (pasa a ser 4). Principios de calidad normativa**

En el ejercicio de la iniciativa legislativa y la potestad reglamentaria, las administraciones públicas actuarán de acuerdo con los siguientes principios de calidad normativa o de buena regulación:

- a) Principios de necesidad y eficacia: la iniciativa normativa debe estar justificada por una razón de interés general, basarse en una identificación clara de los fines perseguidos y ser el instrumento más adecuado para garantizar su consecución.
- b) Principio de proporcionalidad: la iniciativa deberá contener la regulación imprescindible para atender la necesidad a cubrir con la norma, tras constatar que no existen otras medidas menos restrictivas de derechos o que impongan menos obligaciones.
- c) Principio de seguridad jurídica: la iniciativa normativa se ejercerá de manera coherente con el resto del ordenamiento jurídico, para generar un marco normativo estable, predecible, integrado, claro y de certidumbre, que facilite su conocimiento y comprensión y, en consecuencia, la actuación y toma de decisiones por parte de las personas y empresas.
- d) Principio de transparencia: se posibilitará el acceso sencillo, universal y actualizado a la normativa en vigor y los documentos propios de su proceso de elaboración, y se definirán claramente en la exposición de motivos los objetivos de las iniciativas normativas y su justificación. Además, se posibilitará que los



- hartzaileek aktiboki parte hartza arauak prestatzeko prozesuan.
- e) Simpletasun eta ulergarritasunaren printzipioa: arau-ekimenetan jasotako edukia era argi eta egituratu batez argitaratuko da, erraz ulertzeko moduan, eta hizkera argiz adierazita.
- f) Informazioaren kalitatearen printzipioa: araugintza-prozeduretan zehar egiten diren jendaurreko izapideetan argitaratutako informazioak egiazkoa izan behar du, zehatza, eta benetaktasun eta fidagarritasun egiazatuko dokumentuetatik iritsia izango da. Era berean, baliagarria izango da, hau da, informazio horrekin lortu nahi diren helburuak betetzeko egokia.
- g) Irisgarritasunaren printzipioa: arau-ekimenak barnean hartuko ditu zenbait neurri, beharrezko direnak pertsona guztiak administrazio publikoaren aurrean beren eskubideak gauzatzeko aukera izan dezaten eta zerbitzuak benetan eta eraginkortasunez eskuratu ditzaten, pertsona horien gaitasun teknikoak, kognitiboak edo fisikoak edozein direla ere.
- h) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa: xedapen orokorrak egiteko prozeduran, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, euskal botere publikoek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legean adierazitako printzipio orokorrein lotuta jardun beharko dute; bestea, tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko, emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitu eta desagerrazteko, edo ikuspegi interseksionalez lan egingo dela bermatzeko neurriak zehaztuz. Ezinbestean, genero-inpaktuaren txosten bat eraman beharko du berekin.
- i) Parte-hartzearen printzipioa: herriarrei aktiboki entzuteko eta haiiek elkarlanearan aritzeko neurriak ezarriko dira, araua onartzeko prozeduran parte-hartza bermatzearen, gobernantza kolaboratiboan oinarritutik. Bestea, entzunaldiaren eta jendaurrean jartzearen bidez eta kontsultak egitearen bidez bermatuko da, baina baita parte-hartza eta deliberazioa posible egiten duten gaineko tresnen bidez ere (inkestak, foroak, galdeketa publikoak...).
- j) Hizkuntza-berdintasunaren printzipioa: euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak izanik, araugintza-prozeduran haien arteko berdintasuna bermatuko da, bereziki herriarekiko eta haien elkarte-ehunarekiko harremanetan euskararen erabilera sustatuz. Euskararen erabilera sustatzeari begira, araua euskarakalitatez lantzeko neurriak hartuko dituzte erakunde publikoek, eta, gaztelaniazko potenciales destinatarios tengan una participación activa en la elaboración de las normas.
- e) Principio de simplicidad y comprensibilidad: el contenido de las iniciativas normativas se publicará de forma clara, estructurada y fácilmente comprensible, en un lenguaje claro.
- f) Principio de calidad de la información: la información publicada durante los trámites de información pública que se lleven a cabo en el curso de los procedimientos normativos deberá ser veraz, exacta, y habrá de proceder de documentos de acreditada autenticidad y fiabilidad. Asimismo, será útil, es decir, adecuada al cumplimiento de los objetivos que se persiguen con dicha información.
- g) Principio de accesibilidad: la iniciativa normativa incluirá las medidas necesarias para que todas las personas, independientemente de cuáles sean sus capacidades técnicas, cognitivas o físicas, puedan ejercer sus derechos ante la Administración pública y acceder de forma real y efectiva a sus servicios.
- h) Principio de igualdad de mujeres y hombres: en el procedimiento de elaboración de disposiciones generales, los poderes públicos vascos deberán actuar con sujeción a los principios generales señalados en materia de igualdad de mujeres y hombres en la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres, para garantizar la igualdad de trato y de oportunidades, para prevenir y erradicar la violencia machista contra las mujeres, o para establecer medidas para garantizar que se trabaja desde perspectivas interseccionales. Deberá ir necesariamente acompañado de un informe de impacto de género.
- i) Principio de participación: se establecerán medidas de escucha activa y colaboración ciudadana para garantizar su participación en el procedimiento de aprobación de normas, basadas en la gobernanza colaborativa. Se garantizará, entre otros medios, a través de audiencias, informaciones públicas y consultas, pero también mediante el resto de los instrumentos que posibilitan la participación y la deliberación (encuestas, foros, consultas públicas...).
- j) Principio de igualdad lingüística: dado que el euskera y el castellano son lenguas oficiales, se garantizará la igualdad entre ellas en el procedimiento de elaboración normativa, promoviendo especialmente el uso del euskera en las relaciones con la ciudadanía y su tejido asociativo. Con el fin de fomentar el uso del euskera, por parte de las instituciones públicas se adoptarán medidas para elaborar con

eta euskarazko bertsioen arteko baliokidetza ziurtatzeko, bi testuen arteko elkarritzeta iraunkorra egituratuko da, horri begira dagozkion neurriak hartuta.

- k) Jasangarritasun-printzipioa: etorkizuneko belaunaldiek beren beharrak asetzeko izango duten gaitasuna arriskuan jarri gabe, egungo gizartea bere beharrak asetzeko duen eskubidea, garapen ekonomikoaren, ingurumenaren zaintzaren eta gizarte-ongizatearen arteko oreka bermatuz.

### **3 ter artikula (berria) (5.a izango da). Hizkuntza-berdintasuna eta idazketa elebiduna**

1. Lege honek arautzen duen arau-xedapen orok bi hizkuntza ofizialean, euskaraz eta gaztelaniaz, idatzita egon beharko du, zabalkunde ofiziala egiteko.
2. Hizkuntzen berdintasuna Araugintza-prozesuaren kalitatea bermatzeko printzipioa izango da. Hizkuntzen berdintasunaren bidez, testuaren lanketan bi bertsioen arteko elkarritzeta egituratua bermatuko da, bi bertsioen arteko kontrastea eta haien baliokidetza ziurtatuz.
3. Araugintza-procedura elebiduna izango da xedapen orokorra egiteko procedura osoan zehar, eta Araugintzan parte hartzen dutenen eta arau-hartzaleen hizkuntza-eskubideak bermatuko dira.
4. Erregelamendu bidez ezarriko da zein izango den idazketa elebidunaren procedura eta antolaketa Araugintza-prozeduran.

### **4. artikula (6.a izango da). Presa**

1. Izaera orokorreko xedapenak egiteko prozeduran presa-deklarazioa ematen bada:
  - a) Lege honetan txostenak edo alegazioak egiteko aurreikusitako epeak murriztu ahal izango dira, beharrezkoa bada, baina, betiere, aurreikusitako epeen erdia baino txikiagoak ez badira.
  - b) Arauetan aurreikusitako prozedurazapideren bat alde batera utzi ahal izango da, salbu eta lege-mailako arauak edo lege-indarra dutenek ez badituzte izapide horiek nahitaez eskatzen.
2. Presaren arrazoiak ematen badira, egitateak eta zuzenbideko oinarriak labur adieraziz, justifikatu

calidad la norma en euskera, y se articulará un diálogo permanente entre ambos textos para asegurar la equivalencia entre las versiones en castellano y en euskera, adoptando las medidas oportunas al respecto.

- k) Principio de sostenibilidad: el derecho de la sociedad actual a satisfacer sus necesidades sin comprometer la capacidad de las generaciones futuras para satisfacer las suyas, garantizando un equilibrio entre el desarrollo económico, el cuidado del medioambiente y el bienestar social.

### **Artículo 3 ter (nuevo) (pasa a ser 5). Igualdad lingüística y redacción bilingüe**

1. Toda disposición normativa regulada por esta ley deberá estar redactada en las dos lenguas oficiales, euskera y castellano, a efectos de su publicidad oficial.
2. La igualdad lingüística será un principio de garantía de calidad del proceso de elaboración normativa. A través de la igualdad lingüística, se garantizará un diálogo estructurado entre ambas versiones en la elaboración del texto, asegurando el contraste entre ambas versiones y su equivalencia.
3. El procedimiento normativo será bilingüe a lo largo de todo el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general, garantizándose los derechos lingüísticos de quienes participan en la elaboración de la norma y sus destinatarios.
4. Reglamentariamente se establecerán el procedimiento y la organización de la redacción bilingüe en el procedimiento normativo.

### **Artículo 4 (pasa a ser 6). Urgencia**

1. La declaración de urgencia en el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general habilitará para:
  - a) Reducir los plazos de emisión de informes o alegaciones previstos en esta ley en la medida en que resulte necesario, siempre que ello no implique un término inferior a la mitad de los plazos previstos.
  - b) La posibilidad de prescindir de alguno de los trámites procedimentales previstos en las normas, salvo que vengan exigidos como preceptivos por normas con rango o fuerza de ley.
2. La motivación de dicha urgencia, con sucinta referencia de hechos y fundamentos de



egin beharko da eskubide subjektiboa edo interes legítimoak mugatzeko aukera, lehenagoko jarduketetan erabilitako edo organo aholku-emaileek emandako irizpenetatik behin-behinean aldentzea, indarra galdu ez duten aurretik egindako izapideak ez errepikatzea edota ofizioz hasita dauden izapideetan atzera egitea.

3. Xedapen orokorrak egiteko prozedura presaz izapidetzeo arrazoia daudela erabaki ahal izango da baldin eta interes publikoko arrazoi larriak edo ezohiko zirkunstantziak badaude eta, aldez aurretik aurreikusi ezin izan direlako, presaz onartzea exijitzen badute.

Era berean, presaz izapidetzea erabakiko da baldin eta beharrezkoa bada araua indarrean jartzea epe jakin batean, hain zuen zuzentarauen transposiziorako eskatutako epean, edo Estatuko oinarrizko legidira egokitzeo edo arau jakin bat Konstituzioaren kontrako deklaratzen duten edo baliogabetzen duten epaileen erabakietara egokitzeo epean.

Nolanahi ere, zirkunstantzia horiek berariaz justifikatu eta adierazi beharko dira prozeduran zehar, prozedura hasteko, memoria egiteko edo prozedura sustatzeko dagokion aginduaren bidez.

4. Lege honetan aurreikusitako prozedura hasteko agindua emateko eskuduntha duen organo berari dagokio, kasuan kasu, presa-deklarazioa egitea.

##### **5. artikula (7.a izango da). Deuseztasuna erregeleamenduak egiteko prozedurak**

1. Legea baino beheragoko xedapenak erabat deusezak izango dira, legezko prozedura erabat bantzertuta eman direlako, xedapen horiek egiteko prozeduran lege honetan ezinbestekotzat jo diren eta berariaz eskatzen diren izapideak ez badira egin, eta, zehazki:

- a) presako prozedurari jarraitu bazaio aurreikusitako izapideetako edozein alde batera utzita, arrazoirik ez dagoenean presako prozedurarako;
- b) onartzeko unean ezinbestekotzat jotzen den nahitaezko txostenik ez badago;
- c) kontsultei dagokienez, lege honetan aurreikusitakoa betetzen ez bada, baldin eta xedapenak eragina badu, berariaz eta zuzenean, beste administrazio publiko baten eskumenetan;

derecho, justificará en todo caso la posible limitación de derechos subjetivos o intereses legítimos, la eventual separación del criterio seguido en actuaciones precedentes o del dictamen de órganos consultivos, la no repetición de trámites ya efectuados y que no hayan perdido vigencia o el desistimiento en relación con trámites ya iniciados de oficio.

3. Se podrá acordar la tramitación urgente del procedimiento de elaboración cuando concurran razones graves de interés público o circunstancias extraordinarias que, no habiendo podido preverse con anterioridad, exijan la aprobación urgente.

Asimismo, se acordará la tramitación urgente si fuere necesario para que la norma entre en vigor en el plazo exigido para la trasposición de directivas o para la adaptación a la legislación básica estatal o a decisiones judiciales que anulen o declaren inconstitucional una determinada norma.

En todo caso, estas circunstancias serán expresamente justificadas y exteriorizadas por medio de la orden de inicio, memoria o impulso correspondiente en el curso del procedimiento.

4. Correspondrá realizar, en su caso, la declaración de urgencia al órgano competente para adoptar la orden de inicio prevista en esta ley.

##### **Artículo 5 (pasa a ser 7). Nulidad en el procedimiento de elaboración de reglamentos**

1. Serán nulas de pleno derecho por prescindir total y absolutamente del procedimiento legalmente establecido aquellas disposiciones de rango inferior a la ley en cuyo procedimiento de elaboración concorra la ausencia completa de los trámites que vengan expresamente exigidos y definidos con el carácter de esenciales en la presente ley, y, en particular, cuando:

- a) se haya seguido el procedimiento de urgencia prescindiendo de cualquiera de los trámites previstos, sin que exista motivación alguna de la urgencia;
- b) se carezca de los informes preceptivos de carácter esencial en el momento de su aprobación;
- c) no se cumplan las previsiones de esta ley en cuanto a las consultas, cuando la disposición afecte expresa y directamente a competencias de otra administración pública;



- d) lege honek entzunaldiari, jendaurrean erakusteari eta negoziazio kolektiboari buruz aurreikusitakoak betetzen ez badira;
- e) gaiaren ondoriozko prozedura bereziei aplikagarriak zaizkien lege-aurreikuspenak betetzen ez badira, deuseztasun-mota hori legez berariaz aurreikusten denean;
- f) dagokion agindu edo xedapen orokorra baino goragoko lerruneko xedapen administratiboek ezarritako izapideren bat ez bada betetzen.
2. Legea baino beheragoko erregelamendu-xedapenak ez dira deusezak izango legez ezarritako prozedura erabat bazterzeagatik, haien egiteko prozeduran lege honetan aurreikusitako bestea edozein modutara hautsi bada ere, arau-hauste horiek behar bezala zuzendu ez badira ere edota haien eragina baliozkotu ez bada ere xedapena argitaratu baino lehen.
3. Bereziki, xedapen baten baliozkotasuna eta efikazia eragindakotzat jotzen bada izapidez elebidunari buruz lege honetan aurreikusitako urratu delako, izapidez hori egin ez den hizkuntzan idatzitako testuaren zatiari mugatuko zaio eragina, eta Administrazioa behartuta egongo da baliogabetutako zatiaren ordezko testua presaz eta modu egokian izapidezera. Nolanahi ere, ordezko testuak erabat errespetatu beharko du bi testu ofizialen arteko baliokidetasun linguistikoaren printzipioa indarrean jarraitzen duen bertsio linguistikoarekiko.
4. Legeak, berariaz eta zehazki, halakotzat jotzen baditu bakarrik izango dira lotesleak txostenak eta irizpenak. Halakoetan, txostenean edo irizpenean zehaztutako irizpidea urratzeak legeak berariaz aurreikusitako ondorioak ekarriko ditu.
- II. KAPITULUA  
PROZEDURA**
- Lehenengo atala  
Prestaketa**
- 6. artikula (8.a izango da). Arau-plangintza**
1. Gobernuak urtero onartuko du araugintza-plan bat, eta bertan bilduko dira urte horretan Gobernu Kontseilura, hark onar ditzan, igorriko diren legegintza- edo erregelamendu-ekimenak.
  2. Eusko Jaurlaritzaren urteko araugintza-plana urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan argitaratuko d) se incumplan las previsiones de esta ley relativas a la exigencia de audiencia, exposición pública y negociación colectiva;
- d) Arauak ukituko dituen administracio publikoen aurrekontuetan izango duen eraginari buruzko hurbilketa, dena delako gai horretan nahiz, kasuan kasu, dagokion jarduera-sektorean izango duena, baita proposamenak herritarrentzat izan ditzakeen onurei eta zama administratiboei buruzkoa ere, eta, bereziki, enpresa txiki eta ertainetan izan dezakeen eraginari buruzkoa.
- e) Gaia eta proposatuko den arauketaren edukia direla-eta bidezko iritzitako izapide eta txostenen zerrenda, adierazita zergatik den eraginkorra, egokia eta beharrezkoa gaiaren berezitasunagatik edo lortu nahi diren xedeengatik nahitaezkoa ez den izapide bakoitza sartzea. Horrez gain, zehaztu egingo da, hala badagokio, xedapenak Europar Batasunaren izapideren bat igaro behar duen edo ez.
- f) Xedapenak uki ditzakeen subjektuen eta ordezkaritza-maila handiena duten erakundeen identifikazioa, edota, hala badagokio, herritarren parte-hartzeari dagozkion izapideak ez egitearen justifikazioa, edo legegintza-ekimenak presaz izapideztea eta entzunaldiaren eta jendaurreko erakustaldiaren izapideak egiteko epea murritzea justifikatzen duten arrazoiena.
- g) Testu artikulatuaren itzulpenerako edo idatzeta elebidunerako teknika.
- h) Instrukzioa egingo duen administrazio-organoa.
- i) Urteko araugintza-planean sartuta ez dagoen arau-proposamena bada, justifikatu egin beharko da zergatik den beharrezkoa hura izapideztea.
2. Procedura hasteko agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko da.
- c) Un dossier adjunto que contenga las evaluaciones de impacto, de resultado o de otro tipo de las que hayan sido objeto la norma proyectada o las disposiciones afectadas por ella conforme al punto anterior. Considerando los análisis preliminares de impacto en función del género, se incluirá una primera estimación motivada sobre la relevancia desde el punto de vista del género de la norma proyectada, para lo cual se contará con el asesoramiento de las unidades administrativas para la igualdad.
- d) Una aproximación sobre la posible incidencia en los presupuestos de las administraciones públicas afectadas, en la materia concernida y, en su caso, en el sector de actividad de que se trate, así como sobre los beneficios y las cargas administrativas que pueda conllevar la propuesta para la ciudadanía, con especial referencia al impacto sobre las pequeñas y medianas empresas.
- e) Una relación de los trámites e informes que se estiman procedentes en razón de la materia y el contenido de la regulación propuesta, indicando los motivos por los que cada trámite no preceptivo resulta eficaz, proporcionado y necesario atendiendo a la singularidad de la materia o a los fines perseguidos; también se especificará, en su caso, si la disposición ha de ser objeto de algún trámite ante la Unión Europea.
- f) La identificación preliminar de los sujetos y las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la disposición o, en su caso, la justificación de la omisión de los trámites relativos a la participación ciudadana o de las razones que justifiquen la tramitación urgente de iniciativas legislativas y la reducción del plazo de los trámites de audiencia y exposición pública.
- g) La determinación de la técnica que se seguirá para la traducción o redacción bilingüe del texto articulado.
- h) La designación del órgano administrativo al que se encomienda la instrucción.
- i) Cuando se trate de una propuesta normativa que no figure en el plan anual normativo será necesario justificar la oportunidad de su tramitación.
2. La orden de inicio será objeto de publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad



Behin agindua argitaratuta, sail bakoitzak automatikoki izango du horren berri, ekimenaren egokitasunari buruzko oharrak egin ahal ditzan, hala nahi izanez gero.

3. Eusko Jaurlaritzak, beharrezko diren betekizun eta izapideak hobeto betetzearen, xedapen orokorrak egiteko prozeduraren galdetegiak edo inprimakiak onartu ahal izango ditu.

#### **Hirugarren atala Instrukzioa**

#### **14. artikula. Xedapen orokorrak idazteko arauak eta irizpideak**

1. Xedapen orokorrak idaztean, prozedura hasteko aginduaren edukiari begiratuko zaio, aintzat hartuta zer arauketa-aukera egokituko zaizkien ondoen lortu nahi diren xedeei –betiere, premiaren, efikaziaren, proporcionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioekin bat etorrita– eta egin nahi den arauketaren zuzentasuna eta legezkotasuna bermatzearen herritarren konsultaz gain komenigarri iritzitako aurretiko kontsultek izandako emaitzei.
2. Testu jurídico arauemailetan, lege- edo erregelamendu-proiektua justifikatzen duten zioak eta oinarriak behar bezala azalduko dira.
3. Xedapen orokorra idazteko prozesuan, beharrezko diren azterlan eta txostenak egingo dira, eta, bereziki, arauen gauzagarritasunarekin eta aurrekontuegonkortasunaren eta finantzajasangarritasunaren printzipioak betetzearekin lotutako kostuaren gaineakoak. Hizkuntza ofizialen berdintasuna bermatzeko, neurriak hartu eta prozedurak abiatuko dira.
4. Genero-ikuspegitik arauak izan dezakeen eragina ezagutzeo eta hartan generoperspektiba barneratzeko aurretiaz egin beharreko lanen kalterik gabe, proiektuaren testua idatzi ondoren generoaren araberako eraginari buruzko txosten bat idatziko da, bertan adierazita araudi-proposamenak emakumeek eta gizonek kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina eta ikuspegi interseksionala emakumeen taldeetan duen eragina –aztertz arauan proiektutako jarduerak emakumeen eta gizonen desberdintasunak kentzeko eta haien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean ondorio onuragarriak edo kaltegarriak izan ditzakeen– eta, hala badagokio, egoki izan daitezkeen neurri zuzentzaileak, testua idaztean kontuan

Autónoma de Euskadi. Dicha publicación supondrá la comunicación automática al conjunto de departamentos, a fin de que, en su caso, puedan formular observaciones respecto al acierto y oportunidad de la iniciativa.

3. A fin de facilitar un mejor cumplimiento de los requisitos y trámites precisos, el Gobierno Vasco podrá aprobar cuestionarios o formularios de elaboración de las disposiciones de carácter general.

#### **Sección tercera Instrucción**

#### **Artículo 14. Reglas y criterios de elaboración de la redacción**

1. La redacción de las disposiciones de carácter general se realizará atendiendo al contenido de la orden de inicio, teniendo en cuenta las opciones de regulación que mejor se acomoden a los objetivos perseguidos, de acuerdo con los principios de necesidad, eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia y eficiencia, y al resultado de las consultas, además de la ciudadana, que se estimen convenientes para garantizar el acierto y legalidad de la regulación prevista.
2. Los textos jurídicos normativos deberán insertar una exposición adecuada de los motivos y fundamentos que justifican la determinación del correspondiente proyecto de ley o de reglamento.
3. En el proceso de elaboración de la redacción, se efectuarán los estudios e informes que sean precisos y, en particular, los relativos a la factibilidad de las normas y a su coste en relación con el cumplimiento de los principios de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera. Se adoptarán medidas y se iniciarán procedimientos para garantizar la igualdad de las lenguas oficiales.
4. Sin perjuicio de las actuaciones que con antelación se deban realizar para conocer el impacto de la norma desde el punto de vista del género y para la integración de la perspectiva de género en ella, una vez redactado el texto del proyecto, se procederá a redactar un informe de impacto en función del género, donde se hará constar el impacto potencial de la propuesta en la situación de las mujeres y en los hombres como colectivo, así como el impacto desde la perspectiva interseccional en los diferentes colectivos de mujeres, analizando para ello si la actividad proyectada en la norma puede tener repercusiones positivas o adversas en el objetivo global de eliminar las desigualdades entre mujeres y hombres y promover su igualdad, y, en su caso, las oportunas medidas



izandakoak. Horren ondorioz sortutako dokumentua arloko organo eskudunari, Emakunderi, emango zaio, legedian jasotakoa perfektzionatzeko behar den dokumentazioarekin batera.

5. Testua bi hizkuntza ofizialetan idatzi beharko da, bertsio linguistikoen lanketan bi hizkuntzen artean berdintasuna bermatuz araua idazteko prozesu osoan zehar. Testuak bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du, aldez aurretik onartzeko izapidea egin eta ondorengo instrukcio-fasean izapidetu baino lehen. Era berean, testua hizkuntzaren erabilera ez sexista eta inklusiboa eginez idatzi beharko da.
6. Ahalik eta hedapen eta jarraipen handiena izan dezaten, lege honen eranskin gisa argitaratuko dira 1993ko martxoaren 23ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bidez onetsitako xedapen orokorrak egiteko araugintzateknikaren jarraibideak (apirilaren 6ko Agindua, apirilaren 19ko EHAA, 71. zenbakia), betiere kontuan hartuta Eusko Jaurlaritzak, egoki iritziz gero, jarraibide horiek eguneratu ahal izango dituela galde tegien edo inprimakien bitartez.

#### **15. artikula. Aldez aurreko onarpena eta izapidez-espedientea**

1. Xedapen orokoren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta konsulta-izapideak egin aurretik.
2. Aldez aurreko onarpen-aginduari onartutako testu elebiduna eta artikulu honetan adierazitako gainerako dokumentuak erantsiko zaizkio. Horrela, osatuta geratuko da ondoren bete beharreko izapideen xede izango den expedientea, eta izapideak bideratzeko agindua emango da.
3. Espedientearen instrukzioa egiteko eskumena duen zuzendaritz-zentroak arau-eraginaren azterketari buruzko memoria egingo du, nahitaez. Memoria horretan bildu edo berretsiko da hasiera emateko aginduaren inguruan proposamena egin duen organoaren iritziz azpimarragarria izan litekeen edozein alderdi, eta, nolanhahi ere, honako hauek:
  - a) Proposamenaren egokitasuna eta arautzeako aztertu diren bestelako irtenbideak. Justifikatuko da zergatik den hobe arau berri bat egitea ezer ez arautzea baino.

correctoras que se hayan tenido en cuenta en la redacción del texto. El documento resultante se pondrá a disposición del órgano competente en la materia, Emakunde, acompañado de la documentación necesaria para poder perfeccionar lo recogido en la legislación.

5. El texto elaborado debe ser redactado de forma bilingüe, garantizando la igualdad entre las dos lenguas en la elaboración de las versiones lingüísticas a lo largo de todo el proceso de redacción de la norma. El texto deberá estar redactado de forma bilingüe, antes de someterse a su aprobación previa y posterior tramitación en la fase de instrucción. Asimismo, el texto debe ser redactado haciendo un uso no sexista e inclusivo del lenguaje.
6. Al objeto de promover su mayor divulgación y seguimiento, en anexo a la presente ley se publicarán las directrices de técnica normativa para la elaboración de disposiciones de carácter general aprobadas por Acuerdo de Consejo de Gobierno de 23 de marzo de 1993 (Orden de 6 de abril, BOPV n.º 71, de 19 de abril), sin perjuicio de su actualización, a través de los cuestionarios o formularios, que apruebe cuando lo considere oportuno el Gobierno Vasco.

#### **Artículo 15. Aprobación previa y expediente de tramitación**

1. Una vez redactados los proyectos de disposición de carácter general, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, el texto articulado correspondiente deberá contar con la aprobación previa acordada por el órgano que haya dictado la orden de inicio.
2. La orden de aprobación previa adjuntará el texto bilingüe así aprobado y el resto de los documentos referidos en este artículo, que conformarán el expediente con el que se seguirán los trámites subsiguientes, ordenando su evacuación inmediata.
3. El centro directivo competente para la instrucción del expediente elaborará con carácter preceptivo una memoria del análisis de impacto normativo, que deberá contener o reiterar respecto a la orden de inicio cualquier extremo que pudiera ser relevante a criterio del órgano proponente y, en todo caso, los siguientes apartados:
  - a) Oportunidad de la propuesta y alternativas de regulación estudiadas, lo que deberá incluir una justificación de la necesidad de la nueva norma frente a la alternativa de no aprobar ninguna regulación.



- b) Edukia eta azterketa juridikoa, aipatuta zuzenbide erkatua eta Europar Batasuneko zuzenbidea, barnean dela araua indarrean jartzen denean indargabetuko diren arauen zerrenda zehatzta.
- c) Proposatutako araua eskumenak banatzeko ordenara egokitzeari buruzko azterketa.
- d) Ekonomian eta aurrekontuan duen eragina. Araua aplikatzeak ukitutako sektore, eragile eta taldeetan izango dituen ondorioak ebaluatuko ditu, baita lehian eta lehiakortasunean duen eragina ere. Gai horiei buruz unean-unean indarrean dauden legeekin bat datorren ere ebaluatuko da.
- e) Proposamenak izan ditzakeen karga administratiboak, eta hora betetzeak Administrazioari eta kargei aurre egin behar dietenei ekarriko dien kostua, bereziki aipatuta empresa txiki eta ertainen gaineko eragina.
- f) Generoaren araberako eraginari buruzko txostenetan, non agerian utzi beharko den 4/2005 Legea betetzeko jarraitu zaien izapide guztien, lortutako emaitzen eta berdintasuna bultzatzeko barneratutako neurrien azalpen zehatz bat.
- g) Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabilera normalizazioaren ikuspegia aztertzen duen txostenetan, zeinaren bitartez hizkuntza-gaietan indarrean dagoen araudiarekiko egokitasuna baloratuko baita, bestelako organo txostengileei dagozkien zereginei kalterik egin gabe, eta izapidetzen ari den xedapenaren eremu objektiboan euskararen erabilera normalizaziora zuzendutako neurriak proposatuko baitira.
- h) Haur eta nerabeen gaineko eraginari buruzko azterketa, zeinean azalpen zehatz bat emango den egindako izapideei buruz eta, aurreikuspenen arabera, haur eta nerabeen gainean izango duten eraginari buruz. Horrek haurren interes gorenaren printzipioa bete den neurtzeko eta kontrastatzeko balioko du.
- i) Izapidearen deskribapena, erreferentzia eginez bideratutako nahitaezko edo
- b) Contenido y análisis jurídico, con referencia al derecho comparado y al de la Unión Europea, que incluirá el listado pormenorizado de las normas que quedarán derogadas como consecuencia de la entrada en vigor de la norma.
- c) Análisis sobre la adecuación de la norma propuesta al orden de distribución de competencias.
- d) Impacto económico y presupuestario, que evaluará las consecuencias de su aplicación sobre los sectores, colectivos o agentes afectados por la norma, incluido el efecto sobre la competencia y la competitividad y su encaje con la legislación vigente en cada momento sobre estas materias.
- e) Las cargas administrativas que conlleva la propuesta y el coste de su cumplimiento para la Administración y para los obligados a soportarlas, con especial referencia al impacto sobre las pequeñas y medianas empresas.
- f) Informe sobre el impacto en función del género, en el que se ha de hacer constar una explicación detallada de los trámites llevados a cabo, de sus resultados con relación al cumplimiento de los preceptos de la Ley 4/2005 y de las medidas incorporadas para promover la igualdad.
- g) Informe que analice la perspectiva de normalización del uso del euskera en el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general, en el que se emitirá un pronunciamiento respecto a la adecuación a la normativa vigente en materia lingüística, sin perjuicio de las funciones que puedan corresponder a otros órganos informantes, y se propondrán medidas dirigidas a la normalización del uso del euskera en el ámbito objetivo de la disposición que se tramite.
- h) Evaluación de impacto sobre la infancia y la adolescencia, en la que se haga constar una explicación detallada de los trámites llevados a cabo y su impacto previsto sobre la infancia y la adolescencia, que permita medir y contrastar el cumplimiento del principio del interés superior de la infancia.
- i) Una descripción de la tramitación, con referencia a los informes o dictámenes



aukerako txosten edo irizpenei eta testua egin aurretik herritarrei egindako aurretiazko kontsultaren izapidean jasotako ekarpen nagusien eta entzunaldiaren eta informazio publikoaren eta negoziazio kolektiboaren izapideetan jasotakoen laburpenei. Nolanahi ere, deskribapen horretan jasoko dira haien emaitza eta proiektuaren testuan izan duten isla, baita, kasua denean, haien alboratzeko arrazoiak edo aurreikusitako gutxieneko epeen murrizketaren justifikazioa ere.

- i) Gazteen gainekeo eraginari buruzko azterketa, egindako izapideei eta gazteengan izango duten eraginari buruzko azalpen zehatza jasoko duena. Azterketa horrek aukera emango du gazteria-politika integralaren bultzada eta zeharkakotzea neurtu eta egiaztatzeko, honako hauei dagokienez: pertsona gazteei, edozein izaera edo mailatakoei, beren eskubideak erabiltzeko babes eta erraztasunak ematea; gizartearen garapen politiko, sozial, ekonomiko, jasangarri eta kulturalean aktiboki parte hartzen bultzatzea; eta, haurtzaroan hasitako prozesu etengabe baten bukaera gisa, haien autonomia eta emantziapazioa ahalbidetzeko baldintzak sorraztea.
- j) Irisgarritasunari buruzko azterketa bat, arauak kontenplaten dituen baliabide teknikoei zein araua bera herritarren irisgarritasun unibertsalerako eskubidean eragin berezia duten alderdietan implemantatzeari dagokienez, kontuan hartuz, bereziki, Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak proposatzen dituen elementuak, baita horretatik datozen gainerako arau guztiak ere.
- k) Garrantzitsuak izan daitezkeen beste eragin batzuen ebaluazioa, arreta berezia eskainiz ingurumen-arloko eraginari eta klima-aldaaketa murrizteko ondorioei eta eragin sozialari, baita proiektua onartzea justifikatzen duten alderdi zuen eta zeharkako guztiak jasoko dituen kostu-onurei buruzko analisia ere.
- l) Horren *ex post* ebaluazioaren aurreikuspena, adieraziz zer sistematika erabiliko den arauaren aplikazioaren emaitzak ebaluatzen, eta zein den hori egiteko egokitzat jotzen den entitate edo organoa.
- i) Evaluación de impacto sobre la juventud, en la que se haga constar una explicación detallada de los trámites llevados a cabo y su impacto previsto sobre la juventud, que permita medir y contrastar el cumplimiento del impulso y la transversalización de la política integral de juventud, en relación con proteger y facilitar el ejercicio por parte de las personas jóvenes de sus derechos, cualquiera que sea su naturaleza o condición; fomentar su participación activa en el desarrollo político, social, económico, sostenible y cultural de la sociedad; y generar las condiciones que posibiliten su autonomía y emancipación, como culminación de un proceso continuo iniciado en la infancia.
- k) Un análisis de la accesibilidad tanto de los instrumentos técnicos que contempla la normativa como de la implementación de la propia norma en aquellos aspectos que tengan una especial incidencia sobre el derecho a la accesibilidad universal de la ciudadanía, tomando en especial consideración los elementos que plantea la Ley 20/1997, de 4 de diciembre, para la Promoción de la Accesibilidad, así como el resto de la normativa que emana de aquella.
- l) Evaluación de otros impactos que pudieran ser relevantes, prestando especial atención al impacto de carácter ambiental y sus efectos para la mitigación del cambio climático y al impacto social, así como un análisis sobre el coste-beneficio, que recoja todos aquellos aspectos directos e indirectos que justifican la aprobación del proyecto.
- m) Previsión de su evaluación *ex post*, indicando la sistemática que se va a utilizar en la evaluación de los resultados de la aplicación de la norma y la entidad u órgano que se considera idóneo para llevarla a cabo.



4. Dagokion sailak egoki iritziz gero, expedientearen edukia eta analisi juridikoa txosten juridiko espezifiko batean jasoko dira. Txosten hori prozedura bideratu duen saileko zerbitzu juridikoak egingo du, memorian aipatuko da, eta haren betebeharra izango da geroko izapidez-prozesuari begira proiektuaren oinarriren defentsa juridikoari eustea, eta oinarritzea edukia legearekin eta zuzenbidearekin bat datorrela eta betetzen direla kasuan kasu ezartzen diren araugintzateknikaren gaineko jarraibideak.
5. Sailak hala iritziz gero, eragin ekonomikoaren arabera, memoria ekonomiko espezifikoa egin ahal izango da. Hura ere memorian aipatuko da, eta, aurretik onarpena jaso duen testuan izandako aldaketak kontuan hartuta, hasierako aginduan aurreikusitako kostuen balioespenaren balizko zehaztapenak edo desbideratzeak egiaztatuko edo adieraziko ditu, bai eta, orobat, gastuak eta diru-sarrerak zenbatuta, Administrazio Publikoaren aurrekontuetan izango duen eragina, finantzaketa rako iturri eta moduak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-kontrolaren gaineko arauak zehaztutako beste alderdi guztiak ere.
4. En los casos en que el departamento correspondiente lo estime conveniente, el contenido y análisis jurídico del expediente podrá sustanciarse mediante un informe jurídico específico, que será aludido en la memoria y emitido por el servicio jurídico del departamento que haya instruido el procedimiento y que tendrá como cometido el sostener, de cara a su posterior tramitación, la defensa jurídica de las bases del proyecto, la adecuación de su contenido a la ley y al derecho y la observancia de las directrices de técnica normativa que, en su caso, se establezcan.
5. Cuando el departamento así lo considere, en función de la intensidad del impacto económico, se podrá elaborar también una memoria económica específica, que será igualmente aludida en la memoria y que confirmará o expresará, a la vista de los cambios producidos en el texto objeto de aprobación previa, las posibles concreciones o desviaciones de la estimación de costes prevista en la orden de inicio, con la cuantificación de los gastos e ingresos y su repercusión en los presupuestos de la Administración Pública, las fuentes y modos de financiación y cuantos otros aspectos se determinen en la normativa que regule el ejercicio del control económico-normativo en la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

## **16. artikula. Izapideak kontzentratzea eta haien izapidez telematikoa bultzatzea**

1. Administrazioa simplifikatzeko printzipioarekin bat etorrita, egintza bakar batean erabakiko dira izaera dela-eta batera bultzatzekeen eta bata bestearen ondoren bete beharrekoak ez diren izapide guztiak.
2. Zehazki, batera eskatutzat joko dira, epe berean eta bitarteko telematikoz, honako hauek: erregelamendu bidez sartu diren edota funtsezkoak ez diren txostenak, organo espezializatuei edota Administrazio Orokorreko sailei egindako konsultak eta gaiaren arabera prozedura bereziengatik eskatutako txostenak edo konsultak, baldin eta prozedura-arau espezifiko horren arabera ez badira berariaz jarraian edo beste une batean betetzeakoak.
3. Izapideak egiteko eginkizuna dutenek egin beharko dituzte izapideak, aurrerik eskabidea egin gabe eta soilik espeditentea –bere txosten, azterlan eta memoria eta guzti– aintzat hartuta. Izapide guztiak aldi berean egingo dira, eta hilabeteko epe amankomun berean, aurretiaz onartutako xedapenaren testua Euskal

## **Artículo 16. Concentración de trámites e impulso de su realización telemática**

1. De acuerdo con el principio de simplificación administrativa, se producirá la evacuación conjunta y en un solo acto de todos los trámites que, por su naturaleza, admitan un impulso simultáneo y cuyo cumplimiento sucesivo no sea obligado.
2. En particular, se entenderán solicitados simultáneamente, en el mismo plazo y a través de medios telemáticos todos los informes introducidos por vía reglamentaria o que no tengan un carácter esencial, las consultas a órganos especializados o a los propios departamentos de la Administración General y los informes y consultas exigidos en los procedimientos especiales por razón de la materia y cuya norma procedural específica no requiera expresamente su cumplimiento sucesivo o en un momento diferente.
3. Los trámites se cumplimentarán de oficio por quienes los tengan atribuidos, sin necesidad de su solicitud previa, y a la vista únicamente del expediente con sus informes, estudios y memoria. Se realizarán todos de un modo simultáneo y durante el mismo plazo común de un mes, contado a partir de la publicación en



Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik hasita. Epe amankomuna hilabete bikoa izango da tramitazioa sustatzen duen sailaren iritziz nolabaiteko konplexutasuna duten lege-aurreproiektuen tramitazioan, eta hori berariaz adierazi behar da prozedura hasteko aginduan.

4. Aipatutako epe amankomuna igarota, funtsezkoak ez diren izapideak ez betetzeak ez du prozedura geldiaraziko, eta ondoko tramiteak aurrera eramango dira horiek gabe, aurreikusitako moduan. Epetik kanpo emandako txostenak ezin izango dira kontuan hartu dagokion ebazapena onartzeko orduan. Nolanahi ere, salbuespenez eta, betiere, organo informatzaileak epe amankomunaren barruan berariaz eta modu argudiatuan eskatu badu, instrukzioaren ardura duen organoak luzapen bat eman ahal izango dio organo horri bere txostenetan emateko, hasieran emandako epe amankomunaren erdia bestekoa. Luzapen horrek ez du prozedura geldiaraziko.
  
5. Txostengileak aldez aurretik egindako txostenean adierazi badu arauaren eraginaren memorian zerrenda zehatzean dauden arauetako bat ustez baliogabetuta geratuko dela, aurreko txosten hori eskuratzeko modua identifikatu eta adieraziko da txosten berrian, egiaztapena egin ahal izateko.

## 17. artikulua. Entzunaldia eta informazio publikoa eta negoziazio kolektiboa

1. Lege honetan aurreikusitako konsultaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak beti egin behar dira herritarren eskubide edo interes legitimoei zuzenean ukitzentzako bazaie, eta, betiere, artikulu honetan aurreikusitako salbuespen-arrazoien bat ematen ez bada. Edozein kasutan, artikulu honetan araututako parte-hartze publikoa egin beharko da beharrezko neurriak hartuta, ziurtatzeko, batetik, gizon eta emakumeen ordezkaritza oreaktua, eta, bestetik, arautzkoak den sektorean edo alorrean berdintasuna bultzatzen duten elkartearen parte-hartzea.
  
2. Interesunei zuzenean entzunez egingo da entzunaldia, edo, interesdun horiek biltzen edo ordezkatzen dituzten erakunde eta elkarteei entzunez; erakunde eta elkartea horiek legeak onartutakoak izan behar dute, eta haien helburuek lotura zuzena izan behar dute xedapenaren gaiarekin. Dena den, arrazoitu egin beharko da izapide hori betetzeko aukeretan bata edo bestea hartu izana. Aipatutako erakunde edo elkartea horiek organoaren bidez edo txosten edo berariazko

la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma del texto de la disposición que cuente con aprobación previa. El plazo común será de dos meses para la tramitación de aquellos anteproyectos de ley que a juicio del departamento promotor revistan cierta complejidad, lo que habrá de indicarse así expresamente en la orden de inicio.

4. Una vez transcurrido el plazo común citado, la falta de cumplimentación de trámites que no sean esenciales no supondrá la paralización del procedimiento, que se seguirá en su ausencia y por su orden, con la evacuación de los trámites subsiguientes. Los informes emitidos fuera de plazo podrán no ser tenidos en cuenta al adoptar la correspondiente resolución. No obstante, excepcionalmente, cuando el órgano informante lo hubiera solicitado expresamente y de forma motivada dentro del plazo común, el órgano encargado de la instrucción podrá conceder a dicho órgano una prórroga de hasta la mitad de la duración del plazo común inicialmente conferido para la emisión de dicho concreto informe. La prórroga conferida no supondrá la paralización del procedimiento.
  
5. Cuando quien emita el correspondiente informe hubiera previamente informado que alguna de las normas relacionadas en la memoria de impacto normativo en el listado pormenorizado previsiblemente quedará derogada, el nuevo informe identificará e indicará la forma de acceso a dicho informe previo, a fin de posibilitar el contraste correspondiente.

## Artículo 17. Audiencia e información pública y negociación colectiva

1. Los trámites de consulta previa, audiencia e información pública que contempla esta ley se deben realizar siempre que se afecte de manera directa a los derechos e intereses legítimos de los ciudadanos y ciudadanas, y no concorra alguna de las causas de excepción previstas en este artículo. En todo caso, la participación pública regulada en este artículo deberá realizarse adoptando las medidas necesarias para garantizar una representación equilibrada de mujeres y hombres y la participación de las asociaciones que promueven la igualdad en el sector o ámbito de regulación.
  
2. La audiencia se realizará directamente o a través de las organizaciones y asociaciones reconocidas por la ley que agrupen o representen a los ciudadanos y ciudadanas afectados y cuyos fines guarden relación directa con el objeto de la disposición. La opción por una u otra modalidad de cumplimiento del trámite será motivada. No será precisa la audiencia a las personas interesadas cuando las organizaciones y asociaciones mencionadas participen orgánicamente o por medio de



kontsulten bidez parte hartzen badute araua egiteko prozesuan, ez da beharrezkoa izango interesdunei zuzenean entzunaldia ematea.

3. Entzunaldia, eta, hala badagokio, informazio publikoa, aurreko artikulan aurreikusitako gainerako izapideekin batera egingo da, epe amankomun berean, aurretiaz onartutako xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitz elektronikoan argitaratu ondoren.
4. Lege honen arabera, kasu batzuetan baino ezingo dira alde batera utzi izapide horiek; hauetan, hain zuzen: aurrekontuei eta antolaketari buruzko arauen kasuan, edo hori justifikatzen duten eta behar adina arrazoitu beharko diren interes publikoko pisuzko arrazoiak badaude.
5. Ez dute izapide hori igaro beharko Jaurlaritzaren organoak, karguak eta agintariak arautzen dituzten xedapenek, ez eta Autonomia Erkidegoko Administrazioaren edo haren mendeko edo hari atxikitako erakundeen xedapen organikoek ere, non eta ez duten arautzen herritarrek Administrazioaren eginkizunetan edukiko duten parte-hartzea.
6. Artikulu honetan araututako parte-hartze publikoa gauzatzeko, arauaren hartziale izan daitezkeen guztiak aukera izango dute beren iritzi oinarritua emateko, eta, horretarako, errespetatu egin beharko dira legerian aurreikusita dauden gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernamendu onaren bermeak.
7. Entzunaldi publikoarekin batera, langileen ordezkariekin negoziatu beharko dira –edo kontsulta egin beharko zaie–, dagokion legeriak ezarritako gai-eremuen arabera, lan-baldintzen gaineko eta funtziopublikoaren legeriak zehaztutako gai jakin batzuen gaineko arau-egitasmoak, betiere ez badituze oinarritzat aurreko negoziazio batean lortutako akordioak. Espedienteari erantsiko zaizkio betekizun hori betetzeko egin diren bilkuren aktak.

#### **18. artikula. Beste administrazio batzuek parte hartza edo haiei kontsulta egitea**

1. Xedapenaren testua aurretik onartzeko hilabeteko epe amankomun beraren barruan, xedapen orokorrak egiteko prozeduran parte hartzeko aukera emango zaie egitekoan den arauketak zuzen-zuzenki eragiten dien Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioei.

informes o consultas específicas en el proceso de elaboración.

3. La audiencia, y, en su caso, la información pública, se efectuará simultáneamente con los demás trámites previstos en el artículo anterior, durante el mismo plazo común, contado a partir de la publicación en la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma del texto de la disposición que cuente con aprobación previa.
4. De acuerdo con la ley, únicamente se puede prescindir de este tipo de trámites en el caso de normas presupuestarias u organizativas, o cuando concurran razones graves de interés público que lo justifiquen y que deberán ser suficientemente motivadas.
5. En particular, quedan exceptuadas de este trámite las disposiciones que regulan los órganos, cargos y autoridades del Gobierno, así como las disposiciones orgánicas de la Administración de la Comunidad Autónoma o de las organizaciones dependientes o adscritas a ella, salvo que se refieran precisamente a la participación de la ciudadanía en las funciones de la Administración.
6. La participación pública regulada en este artículo deberá realizarse de forma tal que los potenciales destinatarios de la norma y quienes realicen aportaciones sobre ella tengan la posibilidad de emitir su opinión formada, para lo cual deberán respetarse las garantías previstas en la legislación de transparencia, participación ciudadana y buen gobierno.
7. Paralelamente a la audiencia pública, se negociarán o consultarán con las representantes y los representantes de personal, según los ámbitos materiales que establece la legislación correspondiente, los proyectos normativos sobre condiciones de trabajo y los que determine la legislación de función pública, que no tuvieran origen en los acuerdos alcanzados en una negociación previa. Se incorporarán al expediente las actas de las sesiones en que se haya dado cumplimiento a esta exigencia.

#### **Artículo 18. Participación y consulta a otras administraciones**

1. Dentro del mismo plazo común de un mes a contar desde la publicación de la aprobación previa del texto de la disposición, se dará participación en el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general a las administraciones de la Comunidad Autónoma que puedan resultar afectadas directamente por la regulación prevista.



2. Parte-hartza mailakatu egingo da, eta egiteko den xedapenak gainerako administrazioen eskumen eta jarduketan duen eraginaren arabera gauzatuko da. Betera, egitasmoen testua helarazi beharko zaie, eta parte-hartza alegazioak aurkezko epe bat irekita ere gauzatu ahal izango da, edo txostenak emanez.
3. Konsulta-organoetan parte hartze hutsak edo gai jakin batean aholku teknikoa emateak ezin du konsultaren izapidea ordezkatu, non eta horrelako parte-hartzearen funtsa ez den, hain zuzen ere, bakoitzaren eskumen eta interesak babestea, edo non eta organo horiek esku hartuta ez den parte-hartze hori zinez gauzatzen.

**19. artikulua. Nahitaezko eta funtsezkoak diren txosten eta irizpenak**

1. Aurreko artikuluetan aurreikusitako izapideen arabera espedientea osatu ondoren, bitarteko elektronikoak erabilita eskatu eta beteko dira 20, 21, 22, 23 eta 25. artikuluetan jasotako nahitaezko eta funtsezko txosten eta irizpenak, lege honek eta haien arautzen dituzten xedapenek zehaztutako kasuetan, moduan eta epean.
2. Horretarako, xedapenaren testu artikulatu berri bat idatzi ahal izango da, zeinak une horretara arte egindako instrukzioen arabera egoki iritzitako aldaketak bilduko baititu eta aldez aurreko onarpenean agindua osatu zuen testutik bereizi beharko baita. Nolanahi ere, aurretik emandako testu juridiko artikulatu guztiak ezingo dira expedientetik ezabatu, gainerako dokumentazioarekin batera jasota geratu beharko baitira expedienteean.
3. Errekerimendua egiten denetik, funtsezkoak diren nahitaezko txostenak eta irizpenak egiteko gehieneko epe bat egongo da, luzaezina. Dena den, eman ahal izango dira epez kanpo, eta expedienteari erantsi, baldin eta eskuragarri badaude espedientea onartu behar duen organo eskudunari onartzeko aurkeztu aurretik. Horrelakorik gertatuz gero, baina, justifikatuta legoke nahitaezko txosten eta irizpen horiek kontuan ez hartza procedura bultzatzeko ebazpena edo xedapen-proiektuaren azken onespennari buruzko ebazpena ematerakoan.

**20. artikulua. Lan Harremanen Kontseiluaren eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen nahitaezko txostenak**

Lan Harremanen Kontseiluaren eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen

2. La participación se graduará y se realizará en función de la incidencia en las competencias o en la actuación de las demás administraciones. Conllevará, en todo caso, la remisión del texto del proyecto, y podrá consistir en la apertura de un plazo para la formulación de alegaciones o en la emisión de informes.
3. La simple participación en órganos consultivos o de asesoramiento técnico en una determinada materia no sustituye al trámite de consulta, salvo que tal participación tenga como fundamento precisamente la salvaguarda de las competencias e intereses respectivos o se verifique materialmente con ocasión de la intervención de dichos órganos.

**Artículo 19. Informes y dictámenes preceptivos de carácter esencial**

1. Una vez completado el expediente de acuerdo con los trámites previstos en los artículos anteriores, deberán requerirse y cumplimentarse a través de medios electrónicos los trámites específicos de informes y dictámenes preceptivos de carácter esencial, recogidos en los artículos 20, 21, 22, 23 y 25, en los supuestos y en la forma y plazo que determinan la presente ley y las disposiciones que los regulan.
2. Para su consecución, podrá redactarse un nuevo texto articulado de la disposición, que incorpore los cambios que se estimen pertinentes a la luz de los trámites de la instrucción ya cumplimentados y que deberá distinguirse del texto que integró la orden de aprobación previa, sin que puedan suprimirse del expediente todos los textos jurídicos articulados que se hayan emitido, debiendo constar en él junto con el resto de la documentación.
3. Los informes y dictámenes preceptivos de carácter esencial tendrán un plazo máximo e improrrogable para su emisión desde la fecha de requerimiento, pudiendo ser emitidos e incorporados al expediente fuera de plazo siempre que estén disponibles antes de la elevación del expediente al órgano competente para su aprobación, si bien esta circunstancia podrá justificar que dichos informes y dictámenes puedan no ser tenidos en cuenta al adoptar la correspondiente resolución de impulso del procedimiento o de aprobación final del proyecto de disposición.

**Artículo 20. Informes preceptivos del Consejo de Relaciones Laborales y del Consejo Económico y Social Vasco**

Los informes preceptivos del Consejo de Relaciones Laborales y del Consejo Económico y



nahitaezko txostenak funtsezkoak dira haien arautzen dituzten xedapen espezifikoan arabera jarduten badute. Instrukzioaren expedientea amaitu eta hurrengo hilabetearen barruan emango dira, funtsezkoak ez diren izapideak betetzeko hilabeteko aldibereko epea bete ondoren.

## **21. artikula. Tokiko Gobernuen Batzordearen nahitaezko txostena**

1. Tokiko Gobernuen Batzordearen nahitaezko txostena funtsezkoa da udalerrien berezko eskumenak ukitzen dituzten xedapen orokorrak egiteko prozeduretan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 90 eta 91. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.
2. Txosten hori ez da entzunaldi-izapidea edo beste administrazio batzuei kontsulta egiteko izapidea; aitzitik, xedapen orokorren sustatzaileak eskatuko du expedientea amaitu ondoren. Txosten-eskabideari expedientea eta izapidea egin ahal izateko beharrezko den alderdi ekonomikoei eta eskumenei buruzko dokumentazioa erantsiko zaizkio. Txosten hori instrukzio-expedientea amaitu ondorengo hilabetearen barruan emango da, funtsezkoak ez diren izapideak betetzeko aldibereko hilabeteko epea bete denean.
3. Tokiko Gobernuen Batzordearen txostenak udalerrien finantza-nahikotasuna ziurtatzeko behar den baliabide-hornidurari buruzko eranskin bat izango du, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 18. artikulan aurreikusitakoaren arabera.
4. Eusko Jaurlaritzan edo dagokion foru-aldundian ogasun-arloko eskumena duen sailaren txostena ere aurkeztu beharko da, hala balegokio, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 112. artikulan adierazten denarekin bat etorri.

Txosten hori egiteko epeak eta hura egiteko modu zehatza lege horretan aurreikusitakora egokituko dira.

## **22. artikula. Legezkotasunari buruzko txostena**

Euskadiko Aholku Batzordeak ez badu irizpena eman behar, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Jurídico Nagusiari egitea dagokion legezkotasunari buruzko nahitaezko txostena esku eta gauzatuko da, bitarteko elektronikoak erabilita, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Jurídiko Antolatzeari buruzko ekainaren 2ko 7/2016 Legeak aurreikusitakoarekin bat etorrira eta aurreko izapideak egin ondoren.

Social Vasco tienen carácter esencial cuando procedan conforme a las disposiciones específicas que los regulan, y se emitirán dentro del mes siguiente a la conclusión del expediente de instrucción, una vez cumplido el plazo simultáneo de un mes para el cumplimiento de los trámites no esenciales.

## **Artículo 21. Informe preceptivo de la Comisión de Gobiernos Locales**

1. El informe preceptivo de la Comisión de Gobiernos Locales tiene carácter esencial cuando procede en procedimientos de elaboración de disposiciones normativas de carácter general que afecten a las competencias propias de los municipios, de acuerdo con lo previsto en los artículos 90 y 91 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.
2. Dicho informe no constituye un trámite de audiencia o de consulta a otras administraciones, sino que se solicitará por el órgano promotor de la disposición de carácter general en el momento posterior a la conclusión del expediente, acompañado de este y de la documentación sobre aspectos económicos y competenciales necesaria para poder perfeccionar el trámite, y se emitirá dentro del mes siguiente a la conclusión del expediente de instrucción, una vez cumplido el plazo simultáneo de un mes para el cumplimiento de los trámites no esenciales.
3. El informe de la Comisión de Gobiernos Locales recogerá el anexo específico con la dotación de recursos necesarios para asegurar la suficiencia financiera de los municipios, de acuerdo con lo previsto en el artículo 18 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.
4. Se deberá incluir un informe del departamento competente en materia de hacienda del Gobierno Vasco o de la diputación foral correspondiente, si procediera, conforme a lo señalado en el artículo 112 de la Ley de Instituciones Locales de Euskadi.

Los plazos relativos a la emisión de este informe y su operativa específica se ajustarán a lo previsto en la citada ley.

## **Artículo 22. Informe preceptivo de legalidad**

Cuando no proceda la emisión de dictamen por la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, el informe preceptivo de legalidad que corresponde emitir al Servicio Jurídico Central del Gobierno Vasco se requerirá y materializará a través de medios electrónicos, de conformidad con lo previsto en la Ley 7/2016, de 2 de junio, de Ordenación del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco, y una vez finalizados los trámites anteriores.



## 23. artikula. Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren nahitaezko txostena

Economia- eta arau-kontrola bitarteko elektronikoak erabilita eskatu eta gauzatuko da, dagokion nahitaezko kontrol-txostena emanda, eta, hain justu, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretu bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginean aurreikusitako unean eta moduan.

### Laugarren atala Amaitu eta onartzea

## 24. artikula. Espedientea eta memoria

1. Amaierako expedientea dokumentu hauek osatuko dute: hasteko agindua; proiekta aldez aurretik onartzeko agindua, testua eta guzti; arauaren eraginari buruzko memoria; egindako azterlanak eta konsultak; eta nahitaezko txostenak eta irizpenak. Azken horiei atxikiko zaizkie, argi identifikatuta, izapideetean zehar idatzi diren xedapenaren testu artikulatu guztiak, bakoitzaz zein unetan idatzitakoa den zehaztuta.
2. Orobak, procedura osoaren memoria labur bat erantsiko zaio expedienteari, eta, hor, hauek guztiak zehaztuko dira: aurrekariak, egindako izapideak, izapideen emaitzak eta egindako txostenen ohar eta iradokizunei egokitzearen –batez ere nahitaezko txostenetan egindakoei– proiektuaren testuan sartutako aldaketak. Behar besteko zehaztasunez arrazoituko da zergatik ez diren onartu txosten horietan egindako oharrak, eta zehatz-mehatz arrazoituko da, orobak, azkenean erabakitako testua bat datorrela antolamendu juridikoarekin.
3. Memoria labur horrek aztertuko du, halaber, ekimena kongruentea den ala ez Euskal Autonomia Erkidegoko nahiz Europar Batasuneko gainerako ordenamendu juridikoarekin, Eusko Jaurlaritzako sailetan egiten ari diren beste batzuekin edo, urteko araugintza-planaren arabera, etorkizunean egingo direnekin, bai eta Eusko Legebiltzarrean izapideetzen ari direnekin ere. Aztertuko du, halaber, arau berrian beste arau batzuen indargabetze espresua sartu behar den, bai eta arlo berean dagoeneko badauden beste arau batzuk bateratu behar diren ere.
4. Expedientean bildutako izapideak eta kanpoko parte-hartzea egon ahal izango dira dokumentatuta formulatu diren hizkuntza ofizialean bakarrik. Hortaz, barne-izapide guztiak ez dute zertan hizkuntza bietan egon, ez Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen edo beste era batera bi hizkuntza ofizialak

## Artículo 23. Informe preceptivo de la Oficina de Control Económico

El control económico-normativo se requerirá y materializará a través de medios electrónicos, mediante la emisión del correspondiente informe de control preceptivo, que se ejercerá en el momento y en el modo previsto en el texto refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre.

### Sección cuarta Finalización y aprobación

## Artículo 24. Expediente y memoria

1. El expediente final se conformará con la orden de inicio, la orden de aprobación previa con el primer texto integrado del proyecto, la memoria de impacto normativo, los estudios y consultas evacuados y los informes y dictámenes preceptivos, a los que se acompañarán, identificados con claridad, cuantos textos articulados de la disposición se hayan redactado durante la tramitación, especificando el momento al que responde cada uno de ellos.
2. Se unirá, asimismo, una memoria sucinta de todo el procedimiento, en la que se reseñarán los antecedentes, los trámites practicados y su resultado y las modificaciones realizadas en el texto del proyecto para adecuarlo a las observaciones y sugerencias de los diferentes informes evacuados, y de manera especial a las contenidas en los de carácter preceptivo. Se justificarán con suficiente detalle las razones que motiven la no aceptación de las observaciones contenidas en tales informes, así como el ajuste al ordenamiento jurídico del texto que finalmente se adopte.
3. Dicha memoria sucinta analizará igualmente la congruencia de la iniciativa con el resto del ordenamiento jurídico, del vigente en Euskadi y de la Unión Europea, y con otras que se estén elaborando en los distintos departamentos del Gobierno Vasco o que vayan a elaborarse de acuerdo con el plan anual normativo, así como con las que se estén tramitando en el Parlamento Vasco, y la necesidad de incluir la derogación expresa de otras normas, así como de refundir en la nueva otras existentes en el mismo ámbito.
4. Los diversos trámites y la participación externa que recoja el expediente podrán estar documentados únicamente en la lengua oficial en que se hayan emitido. En tal sentido, no será precisa la reproducción bilingüe de toda la tramitación interna, ni para su elevación o remisión a cualquier órgano o institución



edozeinetan idatzitako dokumentuak itzuli gabe onartzera behartuta dagoen edozein organo edo erakunde publikori aurkezteko edo bidaltzeko, ez eta gardentasunaren ondorioetarako jatorrizko dokumentuak aktiboki argitaratzeko ere, betiere informazio publikoa eskuratzearkin lotutako legediarekin bat etorrita, ordezkari publikoek eta herritarrek gai horretan dituzten eskubideak bazter utzi gabe.

## **25. artikula. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eta Eusko Legebiltzarrera bidali beharreko dokumentazioa**

1. Espedientea puntu honetara arte izapidetu denean eskatuko da soilik Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, batzorde horren legeak araututakoarekin bat etorrita. Behin irizpena eskatuta, Batzordeak hautematen badu akatsen bat dagoela izapideetan edo nahitaezko txostenen bat falta dela, batzorde hori arautzeko legean eta hora garatzeko arauetan aurreikusitakoarekin bat etorrita, Batzordeak irizpena eman ahal izango du, edo expedientea itzuli, behar bezala izapidetua izan dadin irizpena eman aurretik.
2. Aholku Batzorde Juridikora bidaltzen den dokumentazio bera helaraziko zaio Eusko Legebiltzarrari, hala baitago xedatuta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean.

## **26. artikula. Procedura artxibatzea**

Izapidearen edozein fasetan eta egindako izapideetako edozeinen ondorioz komenigarritzat jotzen bada aukera ez-erregulatzailea, gaiaren arabera eskumena duen saileko titularrak edo, kasuan kasu, arauak eragiten dien sailetako titularrek batera emandako agindu bidez, artxibatu egingo da expedientea, horretarako arrazoik emanez.

## **27. artikula. Amaierako onarpena**

1. Ezarritako prozedura amaitutakoan, xedapen orokorra organo eskudunari aurkeztuko zaio onar dezan, eta harekin batera behin betiko zioen adierazpenean, edota hitzaurrea, kasuan kasu, xedapen hori egiteko zioak eta haren helburua labur-labur adieraziz, araua egiteko expedientea oinarri hartuta.
- v. Indarrean dauden tresnak (finantza-arlokoak, antolakuntza-arlokoak, plangintzakoak, zonakatzekoak eta araugintzakoak) garatu edo eraldatzea, eta estrategia berri horretarako tresna berriak sortzea, besteak beste, lege hau, helburu estrategikoak, orokorrak eta sektorialak birdefinitzea.

Estrategia horrek xede du euskal landa-ingurunea herrialdearen ekonomia-, gizarte- eta lurralte-arloko garapen eta kohesiorako funtsezko eragile bihurtzea; hala, landa-ingurunea lurraldearen gainerakoan berdintasunetxertatuko da bizi-kalitateari, berrikuntzari, modernotasunari eta ekintzailetzari dagokienez, eta horrekin batera, herrialdearen ikuspuntu integratuartagoa lortzen lagunduko da. Horretan guztian, baina, oso kontuan hartu behar da nekazaritza-jarduerak rol estrategikoa duela Euskadiko lurralte- zein ingurumen-kudeaketan, baita ekonomia-arloan eta elikagaien eta oinarrizko produktuen hornitzale eta landa-garapenaren oinarri gisa ere.

Landa-garapeneko estrategia berri hori ezartzeko, beraz, landa-garapenaren lege berri bat behar da, estrategia horrek aldarrikatzen duen guztia arlo juridikoan txertatu ahal izateko.

Horren haritik, hemen aurkezten den landa-garapenaren lege berriak, lurralte-kohesioaren ikuspegi horretatik, helburu estrategikoak eta sektorialak birdefinitzen ditu, landa-ingurunearen gobernantza-eredua berregituratzen du eta plangintzako, kudeaketako eta finantzaketa tresna berriak barnean hartzen ditu; horietako batzuk EBk sustatzen dituen tresnak dira.

Lurralte-kohesioaren ikuspegi horrek, gainera, lurralte batzuetan eta besteetan landaguneak dauzkan egoera differenteak kontuan hartzen ditu, egoera horiek guztiak ez direlako berdinak, eta landagunearen garapena ezin delako modu uniformean planteatu. Hala ere, legearen bidez landaremu zabalen eta elkarren artean konektatuen

- i. Un enfoque que integre el concepto de ruralidad y avance hacia una concepción de desarrollo territorial en línea con la Política de Cohesión Territorial que impulsa la UE.
- ii. Una mayor coordinación, integración e interacción del conjunto de políticas públicas que actúan en el territorio.
- iii. Un impulso mantenido y específico a las actividades económicas de los sectores agrícola, ganadero y forestal, como actividades inherentes e intrínsecas a las zonas rurales.
- iv. La implantación de una nueva gobernanza avanzada que actúe transversalmente en el medio rural y se adapte a estos nuevos paradigmas.
- v. El desarrollo o modificación de instrumentos vigentes (financieros, organizativos, de planificación y zonificación y normativos), y la creación de nuevos instrumentos para esta nueva estrategia, entre ellos la presente ley, la redefinición de objetivos estratégicos, objetivos generales y sectoriales.

Esta estrategia se orienta a posicionar al medio rural vasco como un factor fundamental en el desarrollo y la cohesión económica, social y territorial del país, de manera que el medio rural se incorpore en pie de igualdad al resto del territorio en términos de calidad de vida, innovación, modernidad, emprendimiento y con ello coadyuve a lograr una nueva visión más integrada de país. Todo ello sin obviar el papel estratégico que la actividad agraria juega en la gestión territorial y medioambiental de Euskadi, además de su papel económico y proveedor de alimentos y productos básicos y como base del desarrollo rural.

La implantación de esta nueva estrategia de desarrollo rural, por tanto, precisa de una nueva ley de desarrollo rural que posibilite el encaje jurídico de los postulados que plantea.

En este sentido, la nueva ley de desarrollo rural que aquí se presenta, desde ese enfoque de cohesión territorial, redefine los objetivos estratégicos y sectoriales, reestructura el modelo de gobernanza del medio rural e incorpora nuevos instrumentos de planificación, gestión y financiación, algunos de ellos impulsados por la UE.

Un enfoque de cohesión territorial que, además, tiene en cuenta las distintas realidades territoriales del espacio rural, ya que no todas son iguales ni su desarrollo puede plantearse de manera uniforme. No obstante, la ley trata de promover el desarrollo de zonas rurales amplias e interconectadas, aplicando políticas coordinadas y guiadas por una



garapena sustatu nahi da; horretarako, politika koordinatuak aplikatuko dira, sektoriala ez baizik eta integrala den logika batek gidatuak, eta administrazio publikoetako sail batzuen eta besteen arteko lankidetza bultzatuko da.

Lege berri honen bidez, laburbilduta, NPEren "bigarren zutabearekin" eta Leader ekimenarekin bat datozen lehengo landa-garapeneko politiken horizontea zabaldu nahi da, uste baita landa-lurraldeen kohesioaren helburuaren baitan kontuan hartu behar direla nekazaritza- eta baso-jarduera jasangarriak landa-ingurunean eta lurraldean dauzkan eraginak eta, hori ez ezik, landa-ingurunearren eta hiri-ingurunearren arteko trukeak sustatu ahal izateko elementu guziak ere. Horretarako, azpiegituraren eta ekipamenduetan aproposak diren baldintzak sortu behar dira, politiken eta planen ikuspegi integratzailea sendotu behar da, eta aipatu diren koordinaziorako, plangintzarako eta finantzaketarako tresna berriak sustatu behar dira, etorkizunean herrialde kohesionatua izatea lortu ahal izateko.

Halaber, legeak EAEko landa-eremuetan politika sektorialak aplikatzean kontuan hartu beharreko gobernantza ezartzen du, eta erakundeen arteko lankidetzarako mekanismoak ere ezartzen ditu, ekintza publikoa koordinatua, koherentea eta efikaza izan dadin lortzeko.

Lege berria 4 kapitulutan antolatzen da:

I. kapituluak legearen xedapen orokorrak garatzen ditu, bereziki xedea, printzipioak eta lortu nahi diren helburuak.

1. artikuluak lege honen xedea jasotzen du: euskal landa-ingurunearren garapen jasangarrirako jarduketek gidatuko dituen arau-esparrua antolatu eta ezartzea, eta hori guztia landa-ingurunea lurraldeko gainerakoarekiko berdintasunean egon dadin, ingurune hori funtsezko eragilea baita herrialde osoaren garapen eta kohesiorko, ekonomiari, gizarteari eta lurraldeari dagokienez.

2. artikulan legea aplikatzeko definizioak ezartzen dira; hala, baterako terminologia bat erabiliz, legea modu argiago eta seguruago batean aplikatuko da.

3. artikulan landa-garapeneko politikek eta jarduketek bete beharko dituzten printzipioak ezartzen dira. Printzipio horiek esparru honetan politikak eta jarduketak gidatu behar dituzten balioak dira, eta horien artean nabarmentzekoak dira landa-ingurunearren eta hiri-ingurunearren arteko aukera-berdintasuna, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna, landa-eremuko emakumeen ahalduntzearen sustapena, euskal landa-ingurunearren paisaiaren eta biodibertsitatearen zainketa, baita kultura-identitatearen ere, eta landa-eremu guztietai euskararen erabilera eman beharreko bultzada.

lógica no sectorial, sino integral, e impulsando la cooperación entre los diversos departamentos de las administraciones públicas.

Con esta nueva ley, en definitiva, se pretende ampliar el horizonte de las anteriores políticas de desarrollo rural identificadas con el "segundo pilar" de la PAC y con la iniciativa Leader, al entender que el objetivo de la cohesión de los territorios rurales debe contemplar no sólo las implicaciones de la actividad agraria y forestal sostenible sobre el entorno natural y el territorio, sino también todos aquellos elementos que permitan impulsar los intercambios económicos y sociales entre el medio rural y el medio urbano: creando las condiciones en infraestructuras y equipamientos favorables para ello, reforzando el enfoque integrador de políticas y planes, y adaptando e impulsando los nuevos instrumentos de coordinación, planificación y financiación mencionados, que permitan llegar a esa visión de futuro como país cohesionado.

Asimismo, la ley establece la gobernanza y los mecanismos de colaboración interinstitucional en la aplicación de las políticas sectoriales en las zonas rurales de la CAPV, con el fin de alcanzar una acción pública coordinada, coherente y eficaz.

La nueva ley se estructura en torno a 4 capítulos.

El capítulo I desarrolla las disposiciones generales de la ley, en particular las referidas al objeto, los principios y los objetivos que se pretenden conseguir.

El artículo 1 recoge el objeto de esta ley, que consiste en regular y establecer el marco normativo que guíe las actuaciones para el desarrollo sostenible del medio rural vasco, todo ello con la finalidad de que el medio rural se posicione en pie de igualdad respecto al resto del territorio como un factor fundamental en el desarrollo y la cohesión económica, social y territorial de todo el país.

El artículo 2 establece las definiciones para la aplicación de la ley, de forma que la utilización de una terminología común redunde en una mayor claridad y seguridad en su aplicación.

El artículo 3 establece los principios a los que habrán de acomodarse las políticas y actuaciones del desarrollo rural, entendidos estos como el conjunto de valores que han de guiar las políticas y actuaciones en este ámbito, entre los que destacan la igualdad de oportunidades entre el ámbito rural y el urbano y de mujeres y hombres, el fomento del empoderamiento de las mujeres rurales, la preservación del paisaje y de la biodiversidad, así como de la identidad cultural del medio rural vasco, y el impulso del uso del euskera en todas sus zonas rurales.



4., 5. eta 6. artikuluetan landa-garapeneko politikek lortu behar dituzten helburuak ezartzen dira. Legeak helburu estrategiko orokorrak eta sektorialak bereizten ditu, eta helburu horien hierarkizazio eta egituraketa egokia ezartzen du. Helburu horiek lagungarriak izan beharko dute landa-ingurunaren ikuspuntu orohartzaile baten fokua jartzeko eta, bide horretatik, politika sektorialak modu malgu batean aplikatu ahal izateko ekonomia-arloan, populazio-arloan edo erabiltzaileen arloan eskuatutako parametroei dagokienez. Kontuan hartu behar da helburu horiek guztiak lurraldeko, eskualdeko eta tokiko planak prestatzeko gida eta parametro bihurtuko direla, plan horiek baitira lege honen bidez ezartzen den landa-garapeneko estrategia berriaren nukleoa.

II. kapituluan euskal landagunearen zonakatze berriaren oinarria proposatzen da, baita tokiko proiektu eta ekimenak bultzatu beharreko politika instituzionalekin lerrokatzeko aurreikusitako plangintza-tresna nagusiak ere.

Orokorean, gure landagunea modu estuan bilbatuta dago hiri-gunearekin, baina bata eta bestea argi eta garbi desberdinak dira. Hala ere, EAEko landagunea zonakatzea erabat garrantzitsua da landa-eremuen ezaugariak eta beharrizanak identifikatzeko, geroago definituko diren garapen-eremuei dagokienez, eta modu horretan landa-garapeneko berazako politikak nahiz politiken barruan esparru horietako bakoitzari eman beharreko laguntzen programak diseinatu eta aplikatzeko. Legeak landa-eremuen karakterizazioa gerorako uzten du, geroko erregelamendu-garapen baterako.

Euskal landa-inguruneko plangintza-tresnak lege honetan landa-garapeneko politikako elementu gako bihurtzen dira, landa-eremuak garatzeko egin beharreko jarduketak tresna horien inguruan egituratuko baitira.

Lurralte-garapenerako planak zehazten diren garapen-eremu bakoitzerako landa-eremuen diagnostikoa ezartzeko beharrari erantzuten diote, eremu horiei lotuta legean ezarritako helburu orokorrean dagokienez, eta helburu sektorialak, jarduketa-aratzak eta aratz horien garapenean parte hartzen duten eragile instituzionalak argi eta garbi adierazteko beharrari. Lurralte-garapeneko planek lurralte-antolamenduko tresnei men egin beharko diente, zeinek bere jarduketako gune geografikoari dagozkion tresnei.

Lurralte-garapeneko programak landa-ingurunaren lurralte-garapeneko ekintza politiko-instituzional eta sektore anitzekoaren ibilbide-orri gisa erabiliko dira; eta landa-garapeneko eskualdeko programak nahiz, hala badagokio, toki-garapeneko estrategiak prestatzeko eta bateratzeko gidak izango dira.

Los artículos 4, 5 y 6 establecen los objetivos que han de perseguir las políticas de desarrollo rural. La ley distingue entre objetivos estratégicos generales y sectoriales, y establece su adecuada jerarquización y articulación. Estos objetivos deberán contribuir a focalizar una visión omnicomprensiva del medio rural, que propicie una aplicación flexible de las políticas sectoriales en cuanto a los parámetros exigibles, económicos, poblacionales o relativos a las personas usuarias. Hay que tener en cuenta que todos estos objetivos se convertirán en la guía y parámetros para la elaboración de los distintos planes territoriales, comarciales y locales, que son el núcleo de la nueva estrategia de desarrollo rural que implanta esta ley.

El capítulo II plantea las bases para una nueva zonificación del espacio rural vasco, y los principales instrumentos de planificación previstos para la alineación de los proyectos e iniciativas locales a las políticas institucionales que hay que impulsar.

De manera general, nuestro espacio rural está fuertemente imbricado con el espacio urbano, aunque claramente diferenciable de este. No obstante, la zonificación del espacio rural de la CAPV resulta de vital importancia para identificar las características y las necesidades de las zonas rurales con relación a ámbitos de desarrollo que se definirán posteriormente y poder así diseñar y aplicar políticas específicas de desarrollo rural y sus programas de ayudas a cada uno de esos ámbitos. La ley pospone la caracterización de las zonas rurales a un posterior desarrollo reglamentario.

Los instrumentos de planificación en el medio rural vasco se convierten en esta ley en los elementos clave de la política de desarrollo rural, en la medida en que las diversas actuaciones que hay que realizar para el desarrollo de las zonas rurales se estructurarán en torno a dichos instrumentos.

Los programas de desarrollo territorial responden a la necesidad de establecer, para cada uno de los ámbitos de desarrollo que se definen, el diagnóstico de las zonas rurales respecto a los objetivos generales marcados en la ley vinculados a dichos ámbitos, y señalar claramente los objetivos sectoriales, los ejes de actuación y los agentes institucionales implicados en su desarrollo. Los planes de desarrollo territorial deberán respetar los instrumentos de ordenación del territorio que afecten al espacio geográfico de actuación de cada uno.

Los programas de desarrollo territorial actuarán como la hoja de ruta de la acción política institucional y multisectorial para el desarrollo territorial del medio rural, y constituirán la guía para la elaboración y alineamiento de los programas comarcales de desarrollo rural y, en su caso, de las estrategias de desarrollo local.



Landa-garapeneko eskualdeko programetan, eskualde-eremu bakoitzean ezarri behar diren jarduera-lerro eta proiektu nagusien zehaztasun- eta lehentasun-maila azpimarratzen da, behetik goranzko ikuspegiari ("bottom-up") eutsiz, hala horien prestaketen nola garapenean, eta, betiere, kasu bakoitzean eragina duten lurralte-garapeneko programen gidalerroak betez.

Halaber, borondatez ezartzen dira EAEn landa-eremuak dituzten udalerri eta kontzejuetarako tokiko garapen-planak (TGP), beharrizanei eta bultzatu beharreko proiektuei buruzko gogoeta eta plangintzarako tresna bat eskura eduki dezaten. Tresna horren bidez, egin beharreko jarduketen programazio xehatua errazago egingo dute, eta kasuan kasuko udalerrira egokitua, betiere, eragiten dieten landa-garapeneko eskualdeko programei jarraikiz.

III. kapituluan garatzen da euskal landa-eremuetan sustatu beharreko jarduketen gobernanza, eta alde horretatik bi kategoria diferente ezartzen dira: ikuspegi instituzionala daukan gobernanza eta ikuspegi publiko-pribatua daukana.

Gobernanza instituzionala Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek eta toki-erakundeek, zeinek beren eskumenen barruan, egiten dituzten jarduketa estrategikoei buruzkoa da. Gobernanza instituzionalaren maila horretan, legearen asmoa da politika instituzional eta sektorialak zaintzeari lotzen zaion ikuspegiaren (landa-lentean) eragina izatea, ikuspegi hori landa-garapeneko politiketan aurreikusitako helburu eta jarduketen arabera egokitzeari dagokionez. Ikuspegi hori EBko herrialde batzuetan ezarrita dago jada.

Horregatik, legeak xedatzen duenez, EAeko Administrazio orokorrak zein foru administrazioek sustatutako plan, programa eta ekimen instituzionalak onartu aurretik, instituzio sustatzaleari dagokion landa-garapeneko sailak txostena egin beharko du, baldin eta plan, programa eta ekimen horiek lege honetan aurreikusitako landa-eremuei eragiten dieten helburu orokor edo sektorialekin zerikusia badute.

Landa-garapeneko politika eta jarduketen kontrola, jarraipena eta ebaluazioa egiteko, gaur egun dauden tresnak baino arinagoak eta simpleagoak diren kontrol- eta jarraipen-mekanismoen alde egiten da; horretarako, jarduketa eta eginkizun berriak egin behar dituzte landa-garapeneko zuzendaritzaz eskudunek, alegia, Euskadiko Administrazio orokorreko eta foru administrazioko orokorreko, foru administrazioko eta toki-erakundeen Administrazio instituzioetako bakoitzean, instituzio bakoitzaren eskumen-esparruak zainduta.

Maila horretan gobernantzaren koherenzia, efikazia eta koordinazioa bermatzeko, legean berebiziko zeregina ematen zaio Nekazaritza,

Por su parte los programas comarcales de desarrollo rural inciden en la determinación y priorización de las principales líneas de actuación y proyectos a implementar en cada ámbito comarcal, preservando el enfoque ascendente ("bottom-up"), tanto en su elaboración como en su despliegue, y atendiendo a las directrices de los programas de desarrollo territorial que incidan en cada una.

Asimismo, se establecen con carácter voluntario los planes de desarrollo local (PDL) para los municipios y concejos con zonas rurales de la CAPV, con la finalidad de que dispongan de una herramienta de reflexión y planificación sobre aquellas necesidades y proyectos a impulsar, que les facilite una programación más pormenorizada de las actuaciones a ejecutar, referida al ámbito del municipio de que se trate, siempre en consonancia y coherencia con los programas comarcales de desarrollo rural que les afecten.

El capítulo III desarrolla la gobernanza de las distintas actuaciones a impulsar en las zonas rurales vascas, contemplando dos categorías diferenciadas: la gobernanza de enfoque institucional y la de enfoque público-privado.

La gobernanza institucional es aquella referida a las actuaciones estratégicas emanadas desde el Gobierno Vasco y las diputaciones forales y las instituciones locales en el ámbito de sus competencias respectivas. En este nivel de gobernanza institucional, la ley pretende incidir en el enfoque de vigilancia o lente rural ligado a la vigilancia de las políticas institucionales y sectoriales en cuanto a su adaptación a los objetivos y actuaciones previstas en las políticas de desarrollo rural, que ya está instaurado en algunos países de la UE.

Por ello, la ley dispone que todos aquellos planes, programas e iniciativas institucionales, bien promovidos por la Administración general de la CAPV, bien por las administraciones forales, que afecten a los objetivos generales o sectoriales que incidan en las zonas rurales previstas en esta ley, con carácter previo a su aprobación, deberán ser sometidos a informe por el departamento competente en materia de desarrollo rural perteneciente a la institución promotora.

Para el control y seguimiento y evaluación de las políticas y actuaciones de desarrollo rural, se apuesta por mecanismos más ágiles y sencillos de control y seguimiento que los instrumentos actuales, a través de nuevas actuaciones y funciones a realizar por las direcciones competentes en materia de desarrollo rural en cada una de las instituciones de la Administración general y foral y de la Administración de las instituciones locales de Euskadi, preservando los ámbitos competenciales de cada institución.

Para asegurar la coherencia, eficacia y coordinación de la gobernanza a este nivel, la ley otorga un papel crucial a la Comisión de Política



Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordeari, abenduaren 23ko 17/2008 Legearen, Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaintza Politikakoaren bidez sortu zen horri; hain zuzen ere, lege honen bidez batzorde hori aldatu egiten da, landa-garapenaren arloan legeak ematen dizkion eginkizun berriak barnean har ditzan. Hala, batzorde horrek funtsezko zeregina izango du lehenago aipatu diren plangintza-tresnen aldeko txostenen prestaketen eta gainbegiratzetxostenen onarpenean.

Toki-ikuspegiko gobernantzari dagokionez, arau berriak egungo eredua hobetzea proposatzen du, lankidetza publiko-pribatuaren formula berri baten bidez, bereziki landa-garapeneko erakundeen, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien arteko harremanetan. Formula berri horrek ahalbidetuko du lehenengoek eraginkortasun handiagoz jardutea lege honetako helburuak betetzeko.

Alde horretatik, gobernantzako egitura homogeneoa lortu nahi da, egitura eficientea, pisu eta eduki handiagokoa, eskualdeetan nahiz eskualdeetatik harago agertuko dena, eta bidea emango duena proiektuen sorkunta-lanean izaera hurbilari eusteko eta, aldi berean, lurraldean jarduten duten gainerako egitura eta erakundeekin sinergia sendoak ezartzeko.

Horregatik, bat etorriz landa-garapeneko elkarteeek administrazio publikoaren agente laguntzaile gisa duten funtsezko zeregin garrantzitsuarekin, legearen helburuak lortze aldera, bereziki, landa-garapeneko eskualdeko programak kudeatzeko, nabarmen indartu dira aurreko legean aurreikusitako lankidetza-hitzarmenak.

Horrekin batera, kudeaketa-zerbitzu berri bat sortzen da Hazi Fundazioaren barruan: Lurralde. Hitzarmenak sinatzen dituzten landa-garapeneko elkarteekin koordinatuko da zerbitzua, 14.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta landa-garapeneko jarduketen koherenzia bermatu eta indartuko du.

Tokiko gobernantza publiko-pribatuaren barruan, Landa Garapenaren Euskal Sarea sortzen da. EAEn Administracio orokorrean landa-garapenaren arloko eskumena duen sailari atxikita dago, eta helburu hauek izango ditu: landa-garapenean parte hartzen duten entitate eta eragileen arteko lotura, koordinazioa eta lankidetza sustatzea.

Azkenik, IV. kapituluak landa-garapeneko jarduketak finantzatzeko arau eta printzipio jakin batzuk ezartzen ditu. Arau horiek lurralteko kohesioko ikuspegi batetik abiatzen dira; xede horrekin, EAEn operatiboak diren programatik Europako Egitura eta Inbertsio Funtsei lotuta dauden horien baterako partaidetza ezartzen da finaniza-esparru horretan. Halaber, landa-eremu edo -gune jakin batuetan funts anitzeko ikuspegia aplikatzeko aukera sustatzen du, eta zabalik uzten, hori komenigarria eta posiblea denean.

Agraria, Alimentaria y de Desarrollo Rural, que fue creada por la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria del País Vasco y que mediante esta ley se modifica para que acoja las nuevas funciones referidas al desarrollo rural que le otorga. Así, esta comisión tendrá un rol fundamental en la elaboración de informes favorables de los instrumentos de planificación antes mencionados y en la aprobación de los informes de supervisión.

En cuanto a la gobernanza de enfoque local, la nueva norma propone la mejora del modelo actual, a través de una fórmula de colaboración público-privada, especialmente en las relaciones entre las asociaciones de desarrollo rural, el Gobierno Vasco, y las diputaciones forales, que posibilite que las primeras contribuyan de forma más eficaz al cumplimiento de los objetivos de la presente ley.

Así se pretende lograr una estructura de gobernanza más homogénea, eficiente, con mayor peso y contenido, con presencia territorial tanto a nivel comarcal como supracomarcal, que permita a la vez que preservar su carácter de cercanía a la generación de proyectos, posibilitar el establecimiento de sinergias sólidas con el resto de estructuras y organizaciones que actúan en el territorio.

Por ello, en consonancia con el importante papel fundamental de las asociaciones de desarrollo rural como agentes colaboradores de la Administración pública en orden a la consecución de los objetivos de la ley, en especial, la gestión de los planes comarcales de desarrollo rural, se refuerza sustancialmente los convenios de colaboración previstos en la anterior ley.

Asimismo, se crea un nuevo servicio de gestión dentro de la Fundación Hazi, Lurralde, que se coordinará con las asociaciones de desarrollo rural conveniadas conforme a lo dispuesto en el artículo 14.5, asegurando y reforzando la coherencia de las actuaciones en materia de desarrollo rural.

Dentro de la gobernanza público-privada a nivel local, se crea la Red Vasca de Desarrollo Rural, adscrita al Departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia de desarrollo rural, con la finalidad de impulsar la conexión, coordinación y colaboración de las entidades y agentes implicados en el desarrollo rural.

Finalmente, el capítulo IV, establece determinadas reglas y principios para la financiación de las actuaciones de desarrollo rural. Estas reglas parten de un enfoque de cohesión territorial, estableciendo la coparticipación de los distintos programas operativos de la CAPV ligados a Fondos Estructurales y de Inversión Europeos (EIE) en dicho marco financiero. Asimismo, fomenta y deja abierta la posibilidad de la aplicación del enfoque multifondo en determinadas zonas o espacios rurales cuando ello sea conveniente y posible.



## LEHENENGO KAPITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikula. Legearen xedea

1. Lege honen xedea da euskal landa-ingurunearen garapen jasangarrirako jarduketak orientatuko dituen arau-esparrua antolatu eta ezartzea, eta hori guztia landa-ingurunea lurraldoko gainerakoarekiko berdintasunean egon dadin, ingurune hori funtsezko eragilea baita herrialdearen garapen eta kohesiorako, ekonomiari, gizarteari eta lurraldeari dagokienez. Horretarako, ezinbestekoak izango da nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-jarduerak kontuan hartzea. Jarduera horiek sustatzea, landa-eremu mukoa biztanleria eta lurralddea mantentzeko eta garatzeko oinarritzko tresna izango da.
2. Halaber, lege honen xedea da EAEko landa-eremuetan politika sektorialek aplikatzean kontuan hartu beharreko gobernantza ezartzea, eta erakundeen arteko lankidetzarako mekanismoak ere bai, lurralte-garapenaren arloan ekintza publikoa koordinatua eta osagarria izan dadin legeak ezarritako helburuak lortzeko.

#### 2. artikula. Definizioak

Lege honen xederako, honela ulertzen dira honako hauek:

- b) (a izango da) Landa-garapena: landa-eremuetan aplikatutako lurralte-garapeneko prozesua, honako xede hau duena: euskal landa-ingurunearen jasangarritasuna eta funtzio-anitzasuna zaintza, biztanleen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea eta EAERen ekonomia-, gizarte- eta lurralte-kohesioa bideratzea.
- c) (b izango da) Lurralte-garapena: lurralte bat alderdi sozioekonomikoan eraikitzeko prozesu jasangarria, ikuspegi integral batean oinarritzen dena. Prozesu horretan elkarrenganean aritzen dira inguruneko elementu fisikoak, prozesu ekonomikoak eta herriaren gainerako ekimen individual zein kolektiboak, eta ekintza politikoak bultzatzen dituen politika sektorial instituzionalak ere bai. Prozesu horrek gizartearren kohesio handiagoa lortzea du xede, eta horretarako, landa-eremuaren eta hiri-eremuaren arteko oreka zuzena ziurtatzen du eta hazkunde ekonomiko handiagoa eta hobea sortzen du.
- e) (c izango da) Partaidetzazko toki-garapenaren estrategia (PTGE): eragiketen multzo koherentea, toki-ekintzako talde batek diseinatu eta praktikan jarritakoa. Eragiketa horiek xede dute tokiko eremuaren helburu eta beharrizanak

## CAPÍTULO PRIMERO

### DISPOSICIONES GENERALES

#### Artículo 1. Objeto de la ley

1. Es objeto de esta ley regular y establecer el marco normativo que oriente las actuaciones para el desarrollo sostenible del medio rural vasco, de forma que este se posicione en un plano de igualdad respecto al resto del territorio como un factor fundamental en el desarrollo y la cohesión económica, social y territorial del país. Con este fin, será imprescindible tener en cuenta las actividades agraria, ganadera y forestal. El fomento de estas actividades será una herramienta básica para el mantenimiento y el desarrollo de la población y del territorio en el espacio rural.
2. Asimismo, es objeto de esta ley establecer la gobernanza y los mecanismos de colaboración interinstitucional en la aplicación de las políticas sectoriales en las zonas rurales de la CAPV, con el fin de alcanzar una acción pública coordinada y complementaria en el ámbito del desarrollo territorial para conseguir los objetivos fijados por la ley.

#### Artículo 2. Definiciones

A los efectos de esta ley se entiende por:

- b) (pasa a ser a) Desarrollo rural: proceso de desarrollo territorial aplicado a las zonas rurales, dirigido a preservar la sostenibilidad y multifuncionalidad del medio rural vasco, a mejorar el bienestar y la calidad de vida de sus habitantes, y a propiciar la cohesión económica, social y territorial de la CAPV.
- c) (pasa a ser b) Desarrollo territorial: proceso de construcción socioeconómica de un territorio, de carácter sostenible, sustentado en un enfoque integral en el que interactúan los elementos físicos del entorno, los procesos económicos y el resto de las iniciativas individuales y colectivas de sus ciudadanos y ciudadanas, y las políticas sectoriales institucionales impulsadas desde la acción política, orientado a lograr una mayor cohesión social, asegurando un correcto equilibrio rural urbano y generando un mayor y mejor crecimiento económico.
- e) (pasa a ser c) Estrategia de desarrollo local participativo (EDLP): conjunto coherente de operaciones cuyo fin es satisfacer objetivos y necesidades locales, y que contribuyen a la realización de la estrategia de la Unión



betetzea, eta lagunza ematen dute hazkunde adimentsu, jasangarri eta integratzaileko Europar Batasunaren estrategia burutzen.

e bis) (berria) Landa-garapeneko elkartea (LGE): zuzenbide pribatuko erakunde da, elkartearen legeriaren babesean eratua. Eskualde bateko landa-garapenean eragina duten tokierakundeeak eta jarduketa-eremu geografikoan ordezkaritza handiena duten eragile sozioekonomiko eta sektorialek parte hartzen dute. Lankidetza publiko-pribatuko tresnak dira. Lurraldearen garapen jasangarrian laguntzen duten tokiko, eskualdeko eta eskualdez gaindiko ekimenak bultzatzeko eta babesteko paper gakoa izango dute. Gobernantzaren eskualdeko ikuspegia betetzeari lotuta daudenez, legean aurreikusita dagoen bezala, eragile laguntzaile gisa onartuko ditu Administrazio publikoak.

f) (e izango da) Toki Ekintzako Taldea (TET): toki ekintzako taldeak irabazteko asmorik gabeko elkartea dira, lurralde-izaera nabarmenekoak, tokiko interes sozioekonomiko publiko eta pribatuen ordezkariek osatuak (elkartea, enpresak, tokiko administrazio publikoak eta gizarte zibileko beste talde batzuk). Talde horien helburua da partaidetzako toki-garaparenen estrategiak ezartzear, zeinek bere lurraldean, behetik goranzko ikuspegi batetik (Leader ikuspegi parte-hartzalea).

g) (f izango da) Landa-ingurunea: EAEko landaremuak nahiz eremu horietako biztanleria barnean hartzentzen dituen esparru sozioekonomikoa.

h) (g izango da) Nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-sektorearen funtziointerdependencia: nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-sektoreak gizarteari egindako ekarpenen multzoa. Merkatuetara bideratutako elikagai eta lehengaietako gain beste ondasun eta zerbitzu publiko edo kanpo-efektu batzuk dira, merkatuek ordaintzen ez dituztenak. Nekazaritza- eta basogintza-sektoreak sortutako ondasun publiko edo kanpo-efektu positiboen artean honako hauek nabarmendu ahal dira:

- i. Landagunea (EAEren % 85) kudeatzea.
- ii. Paisaia babestea, kudeatzea eta antolatzea.
- iii. Ingurumen-funtzioa eta natura-ingurunea kontserbatzekoa: lagunza ematea ura finkatzen, lurzoruaren higadura saihesten, CO<sub>2</sub> finkatzen, biodibertsitatea mantentzen, ekosistemak babesten eta abar.

Europea para un crecimiento inteligente, sostenible e integrador, diseñado y puesto en práctica por un grupo de acción local.

e bis) (nuevo) Asociación de desarrollo rural: entidad de derecho privado, constituida al amparo de la legislación sobre asociaciones, que integra a entidades locales y a los agentes socioeconómicos y sectoriales más representativos de su ámbito geográfico de actuación. Herramienta de colaboración público-privada, tendrá un papel clave en el impulso y el apoyo a iniciativas locales, comarcas y supracomarcas que contribuyan al desarrollo sostenible de su territorio. Su vinculación al cumplimiento del enfoque comarcal de gobernanza previsto en la ley, le permitirá ser reconocida como agente colaborador de la Administración pública.

f) (pasa a ser e) Grupo de acción local (GAL): los grupos de acción local son asociaciones sin ánimo de lucro, de marcado carácter territorial, compuestos por representantes de los intereses socioeconómicos locales públicos y privados (asociaciones, empresas, administraciones públicas locales y otros grupos de la sociedad civil), cuyo objetivo es implantar estrategias de desarrollo local participativo en sus respectivos territorios desde un enfoque ascendente (enfoque participativo Leader).

g) (pasa a ser f) Medio rural: ámbito socioeconómico que abarca las zonas rurales de la CAPV y la población que las habita.

h) (pasa a ser g) Multifuncionalidad de los sectores agrario, ganadero y forestal: conjunto de contribuciones del sector agrario, ganadero y forestal a la sociedad. Incluye, además de alimentos y materias primas destinadas a los mercados, otros bienes y servicios públicos, o externalidades, no remunerados por estos. Entre los bienes públicos, o externalidades positivas, generados por el sector agroforestal cabe señalar:

- i. La gestión del espacio rural (85 % CAPV).
- ii. La protección, gestión y ordenación del paisaje.
- iii. La función medioambiental y de conservación del medio natural: contribución a la fijación de agua, a evitar la erosión del suelo, a la fijación de CO<sub>2</sub>, al mantenimiento de la biodiversidad, a la protección de ecosistemas, etcétera.



- iv. Lurraldearen eta bere landa-eremuaren arteko identifikazio soziala: gastronomía, tradiciones, paisaje, cultura y sostenimiento cultural (la conservación del euskera entre otros).
- v. Klima-aldaketari egokitzeko eta bere eraginak leuntzeko lagunza ematea.
- vi. Biztanleria landa-eremuan finkatzea.

ii) (h izango da) Landa-eremu: legearen aplikazio-eremu geográfico, zeinaren parametrizazioa 7. artikuluan aurrekitako erregelamendu-garapenean arautuko den.

### **3. artikula. Landa-garapenaren printzipio gidariak**

Landa-garapenak helburu izan beharko du landa-ingurunearen jasangarritasuna eta funtzionanitzasuna lortzea, lurralte-ikuspegi justu, orekatu eta jasangarri batetik; horretarako, landa-garapenaren ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-arloetako dimentsioetan hainbat printzipo txertatuko ditu, besteak beste, landa-eremuaren eta hiri-eremuaren arteko eta emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna, landa-eremuko emakumeen ahalduntzea, biodibertsitatea mantentzea, paisaiaren eta euskal landa-ingurunearen kultura-identitatearen zainketa, eta landa-eremu guztietaen euskararen erabilera eman beharreko bultzada.

### **4. artikula. Landa-garapeneko politiken helburu estrategikoak**

Landa-garapeneko politikak bitarteko izango dira honako helburu estrategiko hauek lortzeko:

- a) EAEko landa-espazioa sustatzea eta babestea, bereziki nekazaritza-jarduerak okupatutako eta mendi-eremuak, EAEko lurraldea egituratzen duen eta lurraldearen paisaia bereizgarriena osatzen duen funtsezko elementu gisa.
- b) EAEko landa-eremuen jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko, erakundeen arteko beharrezko koordinazioa bermatzea, herrialdearen ekonomia jasangarria gara dadin lagunza emateko eta landa-eremu horietan biztanleria eta zerbitzuak ezarri daitezen, betiere landa-ingurunean funtsezkoa den lehen sektoreko jarduera errespetatuz.
- c) EAEko landa-bitzanleen ongizate-maila hiribitzanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despoblazeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktoreak baitira gure gizartearen eta lurraldearen justizia eta kohesiorako.

- iv. La identificación social del territorio con su agro: gastronomía, tradiciones, paisaje, sostenimiento cultural (la conservación del euskera entre otros).
- v. La contribución a la mitigación y la adaptación del cambio climático.
- vi. La fijación de la población en el espacio rural.

ii) (pasa a ser h) Zona rural: ámbito geográfico de aplicación de la ley, cuya parametrización se regulará en el desarrollo reglamentario previsto en el artículo 7.

### **Artículo 3. Principios inspiradores del desarrollo rural**

El desarrollo rural deberá perseguir la sostenibilidad y multifuncionalidad del medio rural, desde un enfoque territorial justo, equilibrado y sostenible incorporando en sus dimensiones ambiental, social y económica, entre otros principios, la igualdad de oportunidades entre el ámbito rural y el ámbito urbano y de mujeres y hombres, el empoderamiento de las mujeres rurales, el mantenimiento de la biodiversidad, la preservación del paisaje y de la identidad cultural del medio rural vasco, y el impulso del uso del euskera en todas sus zonas rurales.

### **Artículo 4. Objetivos estratégicos de las políticas de desarrollo rural**

Las políticas de desarrollo rural impulsarán la consecución de los siguientes objetivos estratégicos:

- a) El fomento y la preservación del espacio rural vasco, en particular el ocupado por la actividad agraria y las zonas de montaña, como elemento fundamental que vertebría el territorio de la CAPV y configura su paisaje más representativo.
- b) Garantizar la coordinación interinstitucional necesaria para el fomento y la diversificación de la actividad económica en las zonas rurales de la CAPV, de forma que se contribuya al desarrollo de la economía sostenible del país y al asentamiento de población y servicios en estas zonas, respetando en todo caso la actividad del sector primario, que es fundamental en el ámbito rural.
- c) Igualar el nivel de bienestar de la población rural vasca con el nivel de bienestar de la población urbana, así como revertir la despoblación y el envejecimiento del medio rural, como factor sustancial para la cohesión social y territorial de Euskadi.



Helburu horiek NBEren Garapen Jasangarriko Helburuekin eta klima-aldeketaren aurka borrokatzeko 2015eko Parisko Hitzarmarekin bat etorri bultzatuko dira.

##### **5. artikulua. Landa-garapeneko politiken helburu orokorrak**

Landa-garapeneko politikek honako helburu orokor hauek izango dituzte:

A) Euskal landagunea zaintzea,

- I. Euskal landagunearen lurraldantolamendua behar bezala egitea, ikuspegi integrala, sistemikoa eta sektore anitzeko edukiko duen lurraldagarapeneko eredu jasangarri oreaktu baten arabera, ingurunea despopulatzea eta uztea saihestuz, indarrean dauden lurraldearen antolamenduko tresnekin bat.
- II. Nekazaritza- eta basogintza-sektorearen jasangarritasuna eta funtzio-anitztasuna, landagunearen kudeatzaile nagusia, aberastasun- eta emplegu-iturria eta euskal gizartearentzako oinarrizko ondasunen hornitzalea delako, lurraldearekiko errespetua duen nekazaritzan oinarritutako ekoizpen ereduen alde eginez.
- III. Natura-ondarea eta paisaia zaintza, ikuspegi integral batetik. Ikuspegi horrek uztarri egingo ditu ingurumen-babesari, -kontserbazioari eta -leheneratzeari buruzko araudien betetzea baliabideen aprobatxamendu jasangarriarekin, garapen sozioekonomikoarekin eta gizarteak naturaguneez gozatzearrekin, horietan bizi direnen bizimodu eta jarduerak errespetatzu.

III bis (berria) Energia sortzeko iturriak descentralizatzea eta landa-ingurunea energiaz hornitzeko instalazio txikiak bultzatzea. Horiek bateragarriak izango dira ingurumena eta lurraldea zaintzearekin eta mantentzearekin.

B) Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuetan jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko,

IV. (V. izango da) Euskal landa-ingurunean ekintzaileta eta barne-ekintzaileta sustatzea; xede horrekin, empresa-dinamismo endogenoa indartzea eta berrikuntzari lotutako ekintzaileta-agertoki berriak aurreikustea, bereziki lurralde adimendunaren ("smart territory")

El impulso de dichos objetivos se llevará a cabo en consonancia con los Objetivos de Desarrollo Sostenible de la ONU y el Acuerdo de París de 2015 para combatir el cambio climático.

##### **Artículo 5. Objetivos generales de las políticas de desarrollo rural**

Las políticas de desarrollo rural tenderán a la consecución de los siguientes objetivos generales:

- A) En el ámbito de la preservación del espacio rural vasco,
  - I. La adecuada ordenación territorial del espacio rural vasco conforme a un método de desarrollo territorial sostenible que contemple un enfoque integral, sistémico y multisectorial, en equilibrio, que evite espacios de despoblación y abandono, en consonancia con los instrumentos de ordenación del territorio vigentes.
  - II. La sostenibilidad y multifuncionalidad del sector agroforestal, como principal gestor del espacio rural vasco, fuente de riqueza y empleo, así como proveedor de bienes básicos a la sociedad vasca, favoreciendo modelos de producción basados en un agricultura respetuosa con el territorio.
  - III. La preservación del patrimonio natural y el paisaje desde una visión integral que compagine el cumplimiento de las normativas de protección, conservación y restauración ambiental con el aprovechamiento sostenible de los recursos, el desarrollo socioeconómico y el disfrute de los espacios naturales por la sociedad, respetando la forma de vida y las actividades de las personas que viven en ellos.
- III bis (nuevo) Descentralización de las fuentes generadoras de energía e impulso de pequeñas instalaciones para abastecer de energía al medio rural, compatibles con la preservación y el mantenimiento del medio ambiente y del territorio.
- B) En el ámbito del fomento y la diversificación de la actividad económica en las zonas rurales del País Vasco,
  - IV. (pasa a ser V) El fomento del emprendimiento y el intraemprendimiento en el medio rural vasco, buscando la potenciación del dinamismo empresarial endógeno y contemplando nuevos escenarios de emprendimiento ligados a la innovación,



testuinguru digaletan, baita landa-eremuko balio-kate berriei lotutakoak ere, balio-kate horiek onura sozial argiak ekarriko baitituzte bioteknologiaren, ekonomia sozialaren eta ekonomia zirkularren arlotik, eta lanpostu egonkorraak eta kalitatezkoak sortuko baitituzte.

V. (VI. izango da) Ekonomia dibertsifikatzea eta empresas sortzea euskal landa-ingurunea, nekazaritza-jardueraz gain, hazkunderako indar handia duten nitxo ekonomikoetan: turismo jasangarria, osasuna eta ongizatea, elikagai-industria, gastronomía eta jatetxe-arloa, abenturako aisialdia, energia berritzagariak, artisautzaren merkataritza eta abar.

V bis (berria) Balio erantsi handiko jarduera ekonomikoak sustatzea, hau da, materia eta energia globalen horridurakateetatik eratorritako inpaktuak erresilienteak direnak, landa-erakundeei aberastasuna sortzen dietenak eta ingurumen- eta klima-helburuak betetzen laguntzen dutenak.

C) EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hobetzeko eta biztanleria horren zahartzeari eta despopulazioari buelta emateko,

VI. (VIII. izango da) Landa-inguruneko biztanleei bizi-kalitate ona bermatzeko beharrezkoak diren azpiegitura, zerbitzu eta ekipamendu publikoak hobetzea, haitarako sarbidea bermatuz, aukera berdintasunean hiri-inguruneko biztanleekin.

VII. (IX. izango da) IKTak erabiltzea, landa-eremuetako biztanleen bizi-kalitatea eta lana hobetzeko nahiz landa-ingurunearen isolamendua arintzeko bidea den aldetik.

VIII. (X. izango da) Landa-ingurunean etxebizitzarako irispidea izatea, eremu bakoitzaren ezaugarri sozioeconómicoak eta paisaia- eta ingurumen-arloko ezaugarriak errespetatzen dituen hirigintza batean oinarrituta.

IX. (XI. izango da) Landa-ingurunearen natura-, kultura- eta identitate-ondare materiala nahiz immateriala babestea. Hain zuzen ere, nahitaezkoa da ondare hori kontserbatzea, indartzea eta balioan jartzea, etorkizuneko belaunaldiei begira.

X. (XII. izango da) Berrikuntza landa-ingurunean txertatzea, eraldaketa sozial

especialmente en contextos digitales de territorio inteligente ("smart territory"), así como a nuevas cadenas de valor rurales que, desde el campo de la biotecnología, la economía social y la economía circular proyecten claros beneficios sociales y generen empleos estables y de calidad.

V. (pasa a ser VI) La diversificación económica y la creación de empresas en los nichos económicos que, además de la actividad agraria, presentan un importante potencial de crecimiento en el medio rural vasco: turismo sostenible, salud y bienestar, industria alimentaria, gastronomía y restauración, ocio de aventura, energías renovables, comercio de artesanía, etcétera.

V bis (nuevo) El fomento de actividades económicas de alto valor añadido, resilientes a los impactos derivados de las cadenas de suministro de materias y energía globales, que generen riqueza a las entidades rurales y favorezca el cumplimiento de los objetivos ambientales y climáticos.

C) En el ámbito de la mejora del nivel de bienestar de la población rural vasca y reversión de su envejecimiento y de la despoblación,

VI. (pasa a ser VIII) La mejora de las infraestructuras, servicios y equipamientos públicos necesarios para asegurar una buena calidad de vida a los y las habitantes del medio rural, garantizando el acceso a estos, en igualdad de condiciones con los habitantes del medio urbano.

VII. (pasa a ser IX) El uso de las TIC como vía para mejorar la calidad de vida y el trabajo de la población que habita las zonas rurales, así como para mitigar el aislamiento del medio rural.

VIII. (pasa a ser X) El acceso a la vivienda en el medio rural desde un urbanismo respetuoso con las características socioeconómicas, paisajísticas y medioambientales de cada zona.

IX. (pasa a ser XI) La preservación del patrimonio natural, cultural e identitario del medio rural, tanto material, como inmaterial, que es preciso conservar, poner en valor y fortalecer, para las futuras generaciones.

X. (pasa a ser XII) La incorporación de la innovación en el medio rural como una



diziplina anitzeko eta sistemikoaren ardatza delakoan.

XI. (berria) Landa-ingurunean despopulazioaren aurka borrokatzea, zerbitzu espezifikoak emanet, bereziki hezkuntzan eta osasunean, seme-alabak dituzten familiak finkatzen eta jaiotz-tasa handitzen laguntzeko.

#### **6. artikulua. Landa-inguruneko politika institucionalen helburu sektorialak**

1. Instituzio eta erakunde eskudunek, euren jardueran landa-eremuei buruz egingo den tipologia-definizioan sartutako lurrarde-eremuetako bat guztiz edo zati batean barnean hartzen duten landa-eremuetan eragina dutenean, artikulu honetan ezarritako helburu sektorialak lortzea izango dute xede.

Instituzio eta erakunde eskudunek, koordinatuta, horien jardueran landa-eremuetan eragina dutenean, artikulu honetan ezarritako helburu sektorialak lortzea izango dute xede, eta kontuan hartuko dute arau honen 7. artikuluaren arabera gerora erregelamendu-garapen bidez ezarriko den landa-eremuen karakterizazioa.

2. Helburu horiek lagungarriak izan beharko dute landa-ingurunea nahiz landa-ingurunearren arazoak eta funtzionaltasuna ikuspegi orohartzaile batetik ikusteko; bide horretatik, diskriminazio positiboa eta haztapen malgua ahalbidetu beharko dituzte politika sektorialak modu malgu batean aplikatzerakoan, populazio-arloan edo erabiltzaileen arloan irizpide ekonomikoak edo gutxieneko atalaseak erabiltzeari dagokionez.

3. Honako hauek dira helburu sektorialak:

A) Lurralte-antolamenduaren arloan:

- I. Bidea ematea Lurralte Antolamenduko Gidalerroak (LAG), lurralte-plan partzialak (LPP), lurralte-plan sektorialak (LPS) eta hiri antolamenduko plan orokorrik (HAPO) onartzeko edo berrikusteko prozesuak landagunea zaintzeko lagungarriak izan daitezen, eta 9. artikuluan aurreikusten diren lurralte-garapeneko programetan (LuGP) jasotako beharrizan eta estrategiak kontuan har daitezen horiek idaztean.
- II. Nekazaritza eta Basoaintzako Lurralte Plan Sektorialean eta Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoaren abenduaren 23ko

herramienta para la transformación social, multidisciplinar y sistémica.

XI. (nuevo) La lucha contra la despoblación en el medio rural, mediante la dotación de servicios específicos, particularmente en educación y sanidad, que favorezcan el asentamiento de familias con hijos e hijas y el incremento de la natalidad.

#### **Artículo 6. Objetivos Sectoriales de las políticas institucionales en el medio rural**

1. Las instituciones y organismos competentes orientarán a la consecución de los objetivos sectoriales establecidos en el presente artículo su actuación con proyección en las zonas rurales que comprendan, en todo o parte, alguno de los ámbitos territoriales incluidos en la posterior definición de tipologías de zonas rurales.

Las instituciones y organismos competentes, de forma coordinada, orientarán su actuación con proyección en las zonas rurales a la consecución de los objetivos sectoriales establecidos en el presente artículo, teniendo en cuenta la caracterización de las zonas rurales que se establecerá en posterior desarrollo reglamentario, según el artículo 7 de la presente norma.

6. Batzordeak Idazkaritza Tekniko bat izango du, artikulu honen 1. apartatuan aipatutako Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako sailetako teknikariek osatua, legeak esleitzen dizkion eginkizunetan laguntzeko".

Hiru. Abenduaren 23ko 17/2008 Legearen, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzkoaren 94. artikulua, honela idatzita gelditzen da:

**"94. artikula. Eginkizunak eta barne-araubidea**

Arauz zehaztuko dira Euskadiko Nekazaritza, Elikagaigintza eta Landa Garapenerako Kontseiluaren eta Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordearen osaera, eginkizunak eta barne-araubidea, bai eta Idazkaritza Teknikoarena ere".

**Azken xedapenetatik bigarrena. Lurzoruarri eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen aldaketa**

Bat. Lurzoruarri eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 221. artikulua aldatzen da, 10. puntu berri bat sortuz, honako testu honekin:

- "10. Dena delako jarduera Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen aplikazio-eremuan badago, kapitulu honetako 219. artikuluan aipatutako lizenziaren xede diren jarduketei dagokienez, xedapen horren 10. artikuluan jarduera-lizenziei buruz agintzen dena bete beharko da".

**Azken xedapenetatik bigarrena bis (berria). Ehizaren 2/2011 Legea, martxoaren 17ko, aldatzea**

Aldatu egiten da Ehizaren martxoaren 17ko 2/2011 Legeko 36 artikuluko 3. apartatua, eta honela idatzita geratuko da:

"Debekatuta dago honako ekintza hauetako edozein egitea hezeguneetan, hezeguneetatik 100 metro baino gutxiagora edo ibai-ibilguetatik 100 metro baino gutxiagora:

- a) Beruna duen munizioa jaurtitzea.
- b) Era horretako edozein munizio garraiatzea tiroan aritu bitartean edo tiroan aritzera joatean, lehen aipatutako eremuetan".

**Azken xedapenetatik hirugarrena (laugarrena izango da). Erregelamendu bidezko garapena**

1. Gobernu Kontseiluak onespena eman beharko die lege hau aplikatu eta garatzeko legean

6. La comisión se dotará de una Secretaría Técnica, formada por personal técnico de los departamentos de Gobierno Vasco y de las diputaciones forales contemplados en el apartado 1 de este artículo, para dar apoyo en las funciones que la ley le asigna".

Tres. El artículo 94 de la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria queda redactado como sigue:

**"Artículo 94. Funciones y régimen interno**

Se determinará reglamentariamente la composición, las funciones y el régimen de funcionamiento interno del Consejo Agrario y Alimentario y de Desarrollo Rural de Euskadi y de la Comisión de Política Agraria, Alimentaria y de Desarrollo Rural, así como de su Secretaría Técnica".

**Disposición final segunda. Modificación de la Ley 2/2006, de 30 de junio, del Suelo y Urbanismo**

Uno. El artículo 221 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, del Suelo y Urbanismo se modifica añadiendo un nuevo apartado 10 con el siguiente texto:

- "10. Cuando la actividad afectada se encuentre en el ámbito de aplicación de la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria, se estará, con respecto a las actuaciones objeto de licencia referidas en el artículo 219 de este capítulo, en concordancia a lo dispuesto en el artículo 10 de la citada disposición para las licencias de actividad".

**Disposición final segunda bis (nueva). Modificación de la Ley 2/2011, de 17 de marzo, de Caza**

Se modifica el apartado tercero del artículo 36 de la Ley 2/2011, de 17 de marzo, de Caza, con la siguiente redacción:

"Se prohíbe realizar cualquiera de los siguientes actos en humedales, a menos de 100 metros de estos, o a una distancia inferior a 100 metros de los cursos fluviales:

- a) Disparar munición que contenga plomo.
- b) Trasportar cualquier munición de este tipo mientras se practica el tiro o dirigiéndose a practicar el mismo, en las zonas anteriormente citadas".

**Disposición final tercera (pasa a ser cuarta). Desarrollo reglamentario**

1. El Consejo de Gobierno aprobará las disposiciones de aplicación y desarrollo



bertan jasotako xedapenei; nolanahi, lurralte historikoek ez dute galduko berei dagozkien erregelamendu-garapeneko eskumenak.

2. Ahalmena ematen zaio landa-garapenean eskumena duen saileko titularrari lege honen eduki teknikoak egokitzeko eta, hala badagokio, Europako araudiaaren zein Estatuko oinarrizko legediaren aldaketetara egokitzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

**Azken xedapenetatik laugarrena (bosgarrena izango da). Indarrean jartzea**

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Eusko Legebiltzarra, 2022ko ekainaren 6a

**Amaia Martínez Grisaleña (Mistoa-Vox), Muriel Larrea Laso (ETP-C), David Soto Rodríguez (EP-IU), Txarli Prieto San Vicente (ES), Itxaso Etxebarria Astondoa (EH Bildu) eta José Antonio Suso Pérez de Arenaza (EA-NV)**

\*\*\*

**Landa-ingurunearen garapenarena** (Batzordearen irizpena)  
(12/09.01.00.00013)

Mahaik, 2022ko ekainaren 27ko bileran, agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila Ekonomiaren Garapen eta Berrikuntza Batzordeak lege-proiektuaz egindako irizpena.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

**IRIZPENA, LANDA-INGURUNEAREN GARAPENAREN LEGE-PROIEKTUAREN GAINean EKONOMIAREN GARAPEN ETA BERRIKUNTZA BATZORDEAK EGINDAKOA**

Ekonomiaren Garapen eta Berrikuntza Batzordeko Mahaik, Legebiltzarraren Erregelamenduko 140. artikuluari jarraikiz, ondoko irizpena aurkezten dio Legebiltzarreko lehendakariari.

**IRIZPENA**

Landa-ingurunearen garapenaren lege-proiektua

**ZIOEN ADIERAZPENA**

Landa-garapenaren xeda honako hau da: landa-ingurunearen garapen jasangarria, adimentsua

contempladas en esta ley, sin perjuicio de las facultades de desarrollo normativo que correspondan, en su caso, a los territorios históricos.

2. Asimismo, se faculta a la persona titular del departamento competente en materia de desarrollo rural para dictar las disposiciones necesarias para la adecuación de los contenidos estrictamente técnicos de la presente ley, y para adaptarse a las modificaciones de la normativa europea y de la legislación básica estatal, en su caso.

**Disposición final cuarta (pasa a ser quinta). Entrada en vigor**

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Parlamento Vasco, 6 de junio de 2022

**Amaia Martínez Grisaleña (Mixto-Vox), Muriel Larrea Laso (VP-C), David Soto Rodríguez (EP-IU), Txarli Prieto San Vicente (SV), Itxaso Etxebarria Astondoa (EH Bildu) y José Antonio Suso Pérez de Arenaza (EA-NV)**

\*\*\*

**De desarrollo rural** (Dictamen de la comisión)  
(12/09.01.00.00013)

La Mesa, en su reunión del día 27 de junio de 2022, ordena la publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco del dictamen formulado por la Comisión de Desarrollo Económico e Innovación en relación con el proyecto de ley.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

**DICTAMEN QUE FORMULA LA COMISIÓN DE DESARROLLO ECONÓMICO E INNOVACIÓN EN RELACIÓN CON EL PROYECTO DE LEY DE DESARROLLO RURAL**

La Mesa de la Comisión de Desarrollo Económico e Innovación, de conformidad con el artículo 140 del Reglamento del Parlamento, tiene el honor de remitir a la presidencia de la Cámara el siguiente

**DICTAMEN**

Proyecto de ley de desarrollo rural

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

El desarrollo rural, en la medida que persigue el desarrollo sostenible, inteligente e integrador del



eta integratzailea lortzea. Ondorioz, landa-garapenak askotariko gaiak biltzen ditu bere baitan, eta inplikatutako lurralde- eta funtzió-eremu guztietai zeharkako neurriak eta politikak ezartzeko beharra dakar.

Landa-garapenari buruzko eskumen-titulu espezifikorik ez dago ez Konstituzioan, ez Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoan (EHAE); ez eta azaroaren 25eko 27/1983 Legean (LHL) ere, Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralte Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzkoan. Nolanahi ere, landa-garapenaren barruan askotariko gaiak sartzen direnez, EHAEko hartzen ditu bere gain landa-garapenaren lurralde- eta funtzió-eremuetako gai gehienak; eta, bereziki, Euskadiko jarduera ekonomikoaren sustapen, garapen ekonomiko eta plangintzaren arloko eskumenak (10. artikuluan jasota daude).

Zehazki, EHAEko 10. artikularen arabera, gure autonomia-erkidegoak eskumen esklusiboa du landa-garapenarekin zerikusia duten gaietan: nekazaritza eta abeltzaintza, ekonomiaren antolamendu orokorrarekin bat; mendiak, baso-ustiapanak eta -zerbitzuak, abelbideak eta larreak; barne-uretako arrantza, itsaskibilketak eta arrain-hazkuntza, ehiza eta ibai eta aintziretako arrantza; gizarte-laguntza; kultura; historia-, arte-, monumentu-, arkeologia- eta zientzia-ondarea; Euskal Herriko ekonomiaren sustapena, garapena eta plangintza, ekonomiaren antolamendu orokorrarekin bat; industria; lurraldearen eta itsasbazterren antolamendua, hirigintza eta etxebizitzak; turismoa eta kirolak, aisia eta olgeta; komunitatearen garapena; emakumeen egoera; haur, gazte eta adinekoen aldeko politika.

Apirilaren 8ko 10/1998 Legeak, Landa Ingurunaren Garapenerakoak, sorburu du 1992-1996 epealdiko Euskal Baserrialdeko Plangintzatik abiatuta 1992an taxututako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko Estrategia. 1992ko estrategia hura, berriz, 1997-2000 Euskal Landa Ingurunea Garatzeko Jarduera Planak indartu eta osatu zuen. Plan horren barruan Euskal Landa Ingurunea Garatzeko Gizarte Ituna prestatu eta sinatu zen, 1998an; 2004an itun hori berritu zen. Bada, itun harekin "eszenaratu" zen landa-ingurunearako inplikazioaren lehen maila, bai eta gizarte osoak euskal landa-ingurunaren iraunazapen eta garapenarekin hartu beharreko erantzunkidetasuna ere, eta hala lortu zen eragile ekonomiko eta sozial publiko nahiz pribatu ugarik bat egitea.

Gainera, legea sortu zen unean, landa-garapena Nekazaritza Politika Erkidean (NPE) txertatzen hasi zen, eta prozesu horren buruan 2000 Agenda (NPEren erreforma, 1999) onartu zen. Une hartan, landa-garapena NPEren bigarren zutabe gisa ezarri zen.

medio rural, abarca una gran variedad de materias y conlleva la necesidad de implementar medidas y políticas transversales en todos los ámbitos territoriales y funcionales implicados.

Si bien no existe un título competencial específico referido al desarrollo rural como tal ni en la Constitución, ni en Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco (EAPV), ni en la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos (LTH), debido a la mencionada variedad de materias que lo integran, el EAPV asume gran parte de las materias que conforman el ámbito territorial y funcional del desarrollo rural, y en particular la relativa a la promoción, desarrollo económico y planificación de la actividad económica del País Vasco, prevista en su artículo 10.

En concreto, según el artículo 10 del EAPV, nuestra Comunidad Autónoma tiene competencia exclusiva en materias que están implicadas en el desarrollo rural, tales como agricultura y ganadería, de acuerdo con la ordenación general de la economía; montes, aprovechamientos y servicios forestales, vías pecuarias y pastos; pesca en aguas interiores, marisqueo y acuicultura, caza y pesca fluvial y lacustre; asistencia social; cultura; patrimonio histórico, artístico, monumental, arqueológico y científico; promoción, desarrollo económico y planificación de la actividad económica del País Vasco de acuerdo con la ordenación general de la economía; industria; ordenación del territorio y del litoral, urbanismo y vivienda; turismo y deporte, ocio y esparcimiento; desarrollo comunitario; condición femenina, política infantil, juvenil y de la tercera edad.

La Ley 10/1998, de 8 de abril, de Desarrollo Rural, emanó de la Estrategia de Desarrollo Rural en la Comunidad Autónoma del País Vasco configurada en 1992 a partir del Plan Estratégico Rural Vasco 1992-1996, reforzada y completada con el Plan de Actuación para el Desarrollo del Medio Rural Vasco 1997-2000, en el que se formuló y posteriormente se suscribió el Pacto Social para el Desarrollo del Espacio Rural Vasco (1998), renovado en 2004, que supuso "la escenificación" de un primer nivel de implicación con el medio rural y de la necesaria corresponsabilización del conjunto de la sociedad con el mantenimiento y desarrollo del medio rural vasco, lográndose la adhesión de un buen número de agentes económicos y sociales, públicos y privados.

Además, la ley surgió en un momento en el que el desarrollo rural se empezó a integrar en la Política Agraria Común (PAC), proceso que culminó con la aprobación de la Agenda 2000 (reforma de la PAC 1999), en el que el desarrollo rural se configuró como segundo pilar de la PAC.



Orduz geroztik, bai estrategia hori, bai bere eragileak eta bere tresna nagusiak ia-ia ez dira batere aldatu funtsean, eta ekintza politikoaren ardura, une oro, Eusko Jaurlaritzan eta foru-aldundietan nekazaritza-arloko eskumenak ondoz ondo izan dituzten sailena izan da.

Orokorrean, estrategia arrakastatsua izan dela esan daiteke, bizi-kalitatea hobetza, indarberritze ekonomikoa, natura- eta kultura-ondarearen babes eta, horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuetan populazioa oro har mantentzea lortzen lagundu baitu. Hala ere, aldi horretan izan dira aldaketa garrantzitsuak eta joera berriak, landa-ingurunean eta hiri-ingurunearako interakzioan eragina dutenak. Horri dagokionez, honako hau nabarmendu daiteke:

Alde batetik, eraldaketa sozioekonomikoak; bestea beste, honako hauek:

- a) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiei (IKT) eta teknologia berriei lotutako globalizazio-prozesua.
- b) Familia-egituraren gertatutako aldaketak.
- c) Nekazaritza-sektoreak landa-ingurunean garrantzia galtzea eta, horrek kontrajarrita, beste sektore ekonomiko batzuk oso erritmo azkarrean haztea, bestea beste, turismoa, ostalaritza-gastronomía, energia, aisia, nekazaritzako elikagaien industria...
- d) Landa-udalerrien hirigintza garatzea eta biztanleria-fluxu berriak.
- e) Lurralde osoan azpiegitura eta ekipamendu asko garatu izana, bereziki, banda zabala hedatzea, horri esker landa-eremuen konektagarritasuna hobetu baita.
- f) Lurzoruaren artifizializazioa eta gunearen erabilera berriak: nekazaritza-azalera erabilgarria txikitzea eta baso-azalera zuhaizduna handitzea; horrek areagotzen du sektorean lanean hasi nahi dutenek lurra eskuratzeko dituzten zailtasunak.
- g) Natura 2000 Sarea ezarri eta natura-ingurunea kontserbatzeko eta kudeatzeko politikak hedatzea.
- h) Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala onestea eta Lurralde Antolamendurako Gidalerroak (LAG) berrazterzeari ekitea, berrazterketa hori indarrean dagoela.
- i) Ekoizpenaren eta kontsumoaren joera berriak: tokiko merkatuen garrantzi handiagoa, ekonomia zirkularra, lankidetza-ekonomia, produktu ekologikoak eta abar.

Desde entonces, esta estrategia, sus agentes y sus principales instrumentos apenas han sufrido modificaciones sustanciales, recayendo en todo momento el peso de la acción política en los sucesivos departamentos del Gobierno Vasco y diputaciones forales con competencias en materia agraria.

Si bien cabe hablar, en términos generales, de una estrategia de éxito que ha contribuido a la mejora de la calidad de vida, la revitalización económica, la conservación del patrimonio natural y cultural, y, por ende, al mantenimiento generalizado de la población en las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV), en todo este tiempo se han conjugado transformaciones importantes y nuevas tendencias que afectan de lleno al medio rural y a su interacción con el medio urbano. Cabe destacar a este respecto,

- Por un lado, transformaciones socioeconómicas:
- a) El proceso de globalización ligado a las tecnologías de información y comunicación (TIC) y a las nuevas tecnologías.
  - b) Los cambios habidos en la estructura familiar.
  - c) La pérdida de peso del sector agrario en el medio rural en contraposición con otros sectores económicos que crecen a un ritmo muy elevado: turismo, hostelería-gastronomía, energía, ocio, industria agroalimentaria...
  - d) El desarrollo urbanístico de los municipios rurales y los nuevos flujos poblacionales.
  - e) El gran desarrollo de infraestructuras y equipamientos en todo el territorio, destacando el despliegue de banda ancha y, por tanto, la mejora de la conectividad de las zonas rurales.
  - f) La artificialización del suelo y los nuevos usos del espacio: disminución de la superficie agraria útil e incremento de la superficie forestal arbolada, aumentando las dificultades de conseguir tierra para quienes quieren comenzar a trabajar en el sector.
  - g) El establecimiento de la Red Natura 2000 y el despliegue de políticas de conservación y gestión del medio natural.
  - h) La aprobación del Plan Territorial Sectorial Agroforestal y la revisión en vigor de las Directrices de Ordenación del Territorio (DOT).
  - i) Las nuevas tendencias de producción y consumo: mayor peso de los mercados locales, economía circular, economía colaborativa, productos ecológicos, etcétera.



- j) Arlo publikoak zein pribatuak babesak ematea, etengabe eta gero eta gehiago, gizartean berrikuntzak eta ekintzailetzak duten zereginari.
- k) COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioak, agerian jarri baitute landaremueta bizi-kalitatea, bai eta gune horiek telelanerako eta urrutiko prestakuntzarako ematen dituzten aukerak ere; aukera horiek, berriz, digitalizazioa bizkortzearen ondorioz etorri dira.
- l) Jaiotza-tasaren jaitsierak, ama izateko eta emantzipatzeko adinaren atzerapenak eta bizitza luzeagoa izateak eragindako erronka demografikoa, biztanleria zahartu egin dutelako. Horri gehitu behar zaio migrazioaren dimentsioak erronka demografikoan duen eragina.
- m) Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren sektore tradicionaletan sartzeko egin beharreko inbertsio handiek asko zaitzen dute aktibo berriak familia-erreleboa ez den beste bide batetik sartzea.
- n) Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak ez dira lanbide-aukera edo enplegu-aukera erakargarri gisa ikusten.
- Eta, beste aldetik, ikuspegi politikoko aldaketak Europar Batasunaren esparruan; besteak beste, honako hauek:
- a) Europar Batasunak (EB) NBeren Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak aintzat hartzea, klima-aldaketarekin lotuta dauden alderdiei garrantzi berezia emanda.
- b) NPEren bigarren zutabea sendotzea eta landagarapeneko programen inguruan egituratzea (2000-2006 eta 2007-2013 epealdietako LGPak eta 2014-2020 epealdikoa).
- c) LEADER ikuspegia ekimen arrakastatsu gisa finkatzea -ikuspegi hori 1991n abiarazi zen, Europar Batasunaren LEADER I ekimenarekin (1991-1994), zeina gaur egunera arte 2014-2020 epealdiko Landa Garapeneko Programaren barruan egon baita-, partaidezazko toki-garapenaren estrategien (PTGE) bitartez egituratuta.
- d) EBn Europa 2020 estrategia ezartzea, honako hauen inguruan egituratuta: hiru paradigma (hazkunde adimentsua, jasangarria eta inklusiboa), hamaiaka helburu tematiko eta estrategia horretatik sortzen diren garapenerako lehentasun berriak.
- e) EBren ingurumen- eta klima-politika berria.
- j) El continuo y creciente apoyo público-privado al papel de la innovación y del emprendimiento en la sociedad.
- k) Los efectos de la pandemia provocada por el COVID-19, que ponen en valor la calidad de vida de las zonas rurales, así como las oportunidades que ofrecen para el teletrabajo y la formación a distancia, consecuencia a su vez de la aceleración de la digitalización.
- l) El reto demográfico provocado por el descenso de la natalidad, el retraso en la edad de la maternidad y de la emancipación, así como la mayor longevidad, que han derivado en un envejecimiento de la población. A esto debe sumarse la incidencia que tiene en el reto demográfico la dimensión migratoria.
- m) Las grandes inversiones necesarias para entrar en los sectores tradicionales de la agricultura en la Comunidad Autónoma Vasca dificultan mucho la entrada de nuevos activos por otra vía que no sea el relevo familiar.
- n) Las actividades agraria y ganadera no se ven como una opción profesional o una opción de empleo atractiva.
- Y, por otro lado, trasformaciones de enfoque político en el ámbito de la Unión Europea, entre otras:
- a) La asunción por parte de la Unión Europea (UE) de los 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible de la ONU, con una especial relevancia para los aspectos ligados al cambio climático.
- b) La consolidación del segundo pilar de la PAC y su articulación en torno a los programas de desarrollo rural (PDR 2000-2006, 2007-2013 y 2014-2020).
- c) La consolidación como iniciativa de éxito del enfoque LEADER, iniciado en 1991 con la iniciativa comunitaria LEADER I (1991-1994) y que permanece hasta hoy englobado en el Programa de Desarrollo Rural 2014-2020, articulado a través de estrategias de desarrollo local participativo (EDLP).
- d) La implantación en la UE de la estrategia Europa 2020, que se estructura en torno a tres paradigmas, (crecimiento inteligente, sostenible e inclusivo), once objetivos temáticos y las nuevas prioridades de desarrollo que se derivan de ella.
- e) La nueva política medioambiental y climática de la UE.



- f) Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea (ETEL) onestea.
- g) Ikuspuntu sinergikoa apurka onartzea Europako lurralte-kohesioari buruz, sektore anitzeko eta funts anitzeko tratamendu bat helburu dela.
- h) Kanpoko testuinguruek, Europakoek nahiz mundu osokoek, gero eta eragin handiagoa izatea; bide horretatik, sareko lanak eta lankidetzak gero eta garrantzi handiagoa dute.
- i) Landa-ingurunearen eta hiri-ingurunearen arteko arrakala gainditza helburu duten ikuspegia agertzea, bereziki, teknologia berriek eta testuinguru "adimendunak" ("smart"), "herri adimendunak" ("smart villages") garatzeak eta, orokorrean, "lurralte adimendun" baterantz aurrera egiteak eskura jartzen dituzten aukeretan oinarritutakoak.

Halaber, legean jasotako planteamenduetako batzuek ez dute funtzionatu aurreikusi bezala; hala geratua da Landaberri, Landaraba, Landagipuzkoa eta Landabizkaia organoek eta Landa Garapeneko Kontseilu Aholku-emaileak izan behar zuten zereginarekin eta, orokorrean, nekazaritza-sektoreaz kanpoko sail eta sare publiko batzuen inplikazioarekin; era berean, landa-garapeneko elkarteen bilakaera heterogeneoa izan da.

Aldaketa eta errealitate horiek guztiak kontuan hartuta, justifikatuta dago Euskal Autonomia Erkidegoan landa-garapeneko estrategia berri bat sustatu beharra. Estrategia berri horren barruan honako alderdi hauek jaso beharko dira, besteak beste:

- i. Landatartasunaren kontzeptua barnean hartuko duen eta EBk bultzatzen duen Lurralte Kohesioko Politikarekin bat datorren lurralte-garapenaren kontzeptu baterantz joko duen ikuspegia.
- ii. Lurraldean indarrean dauden politika publikoen koordinazio, integracio eta elkarrekintza handiagoa.
- iii. Nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-sektoreetako jarduera ekonomikoei bultzada etengabea eta espezifiko ematea, landa-eremuei datxekien berezko jarduerak baitira.
- iv. Gobernantza aurreratu berria ezartzea; gobernantza berri horrek zeharka jardungo du landa-ingurunean, eta paradigma berri horiei egokituko zaie.
- v. Indarrean dauden tresnak (finantza-arlokoak, antolakuntza-arlokoak, plangintzakoak, zonifikazioak eta araugintzakoak) garatu edo eraldatzea, eta estrategia berri horretarako tresna berriak sortzea, besteak beste, lege hau,

- f) La aprobación de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi (LILE).
- g) La progresiva asunción de una visión sinérgica respecto a la cohesión territorial europea orientada hacia un tratamiento multisectorial y multifondo.
- h) La creciente influencia de los contextos externos, tanto europeos como globales, que conlleva una creciente importancia del trabajo en red y de la cooperación.
- i) La aparición de enfoques orientados a la superación de la brecha entre el medio rural y urbano, especialmente aquellos basados en las posibilidades ofrecidas por las nuevas tecnologías y el contexto "inteligente" ("smart"), el desarrollo de "pueblos inteligentes" ("smart villages") y, en general, el avance hacia un "territorio inteligente".

Asimismo, algunos de los planteamientos previstos en la ley no han funcionado como se preveían, caso del papel de Landaberri, Landaraba, Landagipuzkoa y Landabizkaia y del Consejo Consultivo de Desarrollo Rural, y en general, la implicación de departamentos y entramados públicos ajenos al sector agrario; además, la evolución de las asociaciones de desarrollo rural ha sido heterogénea.

Todos estos cambios y realidades justifican la necesidad de impulsar en el País Vasco una nueva estrategia de desarrollo rural que incorpore aspectos como:

- i. Un enfoque que integre el concepto de ruralidad y avance hacia una concepción de desarrollo territorial en línea con la Política de Cohesión Territorial que impulsa la UE.
- ii. Una mayor coordinación, integración e interacción del conjunto de políticas públicas que actúan en el territorio.
- iii. Un impulso mantenido y específico a las actividades económicas de los sectores agrícola, ganadero y forestal, como actividades inherentes e intrínsecas a las zonas rurales.
- iv. La implantación de una nueva gobernanza avanzada que actúe transversalmente en el medio rural y se adapte a estos nuevos paradigmas.
- v. El desarrollo o modificación de instrumentos vigentes (financieros, organizativos, de planificación y zonificación y normativos) y la creación de nuevos instrumentos para esta nueva estrategia, entre ellos la presente ley, la



helburu estrategikoak, orokorrak eta sektorialak birdefinitzea.

Estrategia horrek xede du euskal landa-ingurunea herrialdearen ekonomia-, gizarte- eta lurralte-arloko garapen eta kohesiorako funtsezko eragile bihurtzea; hala, landa-ingurunea lurraldearen gainerakoan berdintasunetxertatuko da bizi-kalitateari, berrikuntzari, modernitasunari eta ekintzailetzari dagokienez, eta horrekin batera, herrialdearen ikuspuntu integratuagoa lortzen lagunduko da. Horretan guztian, baina, oso kontuan hartu behar da nekazaritza-jarduerak rol estrategikoa duela Euskadiko lurralte- zein ingurumen-kudeaketan, baita ekonomia-arloan eta elikagaien eta oinarrizko produktuen hornitzale eta landa-garapenaren oinarri gisa ere.

Landa-garapeneko estrategia berri hori ezartzeko, beraz, landa-garapenaren lege berri bat behar da, estrategia horrek aldarrikatzen duen guztia arlo juridikoan txertatu ahal izateko.

Horren haritik, hemen aurkezten den landa-garapenaren lege berriak, lurralte-kohesioaren ikuspegia horretatik, helburu estrategikoak eta sektorialak birdefinitzen ditu, landa-ingurunearen gobernantza-eredua berregituratzen du eta plangintzako, kudeaketako eta finantzaketa tresna berriak barnean hartzen ditu; horietako batzuk EBk sustatzen dituen tresnak dira.

Lurralte-kohesioaren ikuspegia horrek, gainera, lurralte batzuetan eta besteetan landaguneak dauzkan egoera diferenteak kontuan hartzen ditu, egoera horiek guziak ez direlako berdinak, eta landagunearen garapena ezin delako modu uniformean planteatu. Hala ere, legearen bidez landaremu zabalen eta elkarren artean konektatuen garapena sustatu nahi da; horretarako, politika koordinatuak aplikatuko dira, sektoriala ez baizik eta integrala den logika batek gidatukoak, eta administrazio publikoetako sail batzuen eta besteen arteko lankidetza bultzatuko da.

Lege berri honen bidez, laburbilduta, NPEren "bigarren zutabearekin" eta LEADER ekimenarekin bat datozen lehengo landa-garapeneko politiken horizontea zabaldu nahi da, uste baita landa-lurraldeen kohesioaren helburuaren baitan kontuan hartu behar direla nekazaritza- eta baso-jarduera jasangarriak landa-ingurunean eta lurraldean dauzkan eraginak eta, hori ez ezik, landa-ingurunearen eta hiri-ingurunearen arteko trukeak sustatu ahal izateko elementu guziak ere. Horretarako, azpiegituraren eta ekipamenduetan aproposak diren baldintzak sortu behar dira, politiken eta planen ikuspegia integratzailea sendotu behar da, eta aipatu diren koordinaziorako, plangintzarako eta finantzaketa tresna berriak egokitutako sustatu behar dira, etorkizunean herrialde kohesionatua izatea lortu ahal izateko.

redefinición de objetivos estratégicos, objetivos generales y sectoriales.

Esta estrategia se orienta a posicionar al medio rural vasco como un factor fundamental en el desarrollo y la cohesión económica, social y territorial del país, de manera que el medio rural se incorpore en pie de igualdad al resto del territorio en términos de calidad de vida, innovación, modernidad, emprendimiento y con ello coadyuve a lograr una nueva visión más integrada de país. Todo ello sin obviar el papel estratégico que la actividad agraria juega en la gestión territorial y medioambiental de Euskadi, además de su papel económico y proveedor de alimentos y productos básicos y como base del desarrollo rural.

La implantación de esta nueva estrategia de desarrollo rural, por tanto, precisa de una nueva ley de desarrollo rural que posibilite el encaje jurídico de los postulados que plantea.

En este sentido, la nueva ley de desarrollo rural que aquí se presenta, desde ese enfoque de cohesión territorial, redefine los objetivos estratégicos y sectoriales, reestructura el modelo de gobernanza del medio rural e incorpora nuevos instrumentos de planificación, gestión y financiación, algunos de ellos impulsados por la UE.

Un enfoque de cohesión territorial que, además, tiene en cuenta las distintas realidades territoriales del espacio rural, ya que no todas son iguales, ni su desarrollo puede plantearse de manera uniforme. No obstante, la ley trata de promover el desarrollo de zonas rurales amplias e interconectadas, aplicando políticas coordinadas y guiadas por una lógica no sectorial, sino integral, e impulsando la cooperación entre los diversos departamentos de las administraciones públicas.

Con esta nueva ley, en definitiva, se pretende ampliar el horizonte de las anteriores políticas de desarrollo rural identificadas con el "segundo pilar" de la PAC y con la iniciativa LEADER, al entender que el objetivo de la cohesión de los territorios rurales debe contemplar no sólo las implicaciones de la actividad agraria y forestal sostenible sobre el entorno natural y el territorio, sino también todos aquellos elementos que permitan impulsar los intercambios económicos y sociales entre el medio rural y el medio urbano: creando las condiciones en infraestructuras y equipamientos favorables para ello, reforzando el enfoque integrador de políticas y planes, y adaptando e impulsando los nuevos instrumentos de coordinación, planificación y financiación mencionados, que permitan llegar a esa visión de futuro como país cohesionado.



Halaber, legeak EAEko landa-eremuetan politika sektorialak aplikatzean kontuan hartu beharreko gobernantza ezartzen du, eta erakundeen arteko lankidetzarako mekanismoak ere ezartzen ditu, ekintza publikoa koordinatua, koherentea eta efikaza izan dadin lortzeko.

Lege berria 4 kapitulutan antolatzen da:

I. kapituluak legearen xedapen orokorrak garatzen ditu, bereziki xedea, printzipoak eta lortu nahi diren helburuak.

1. artikuluak lege honen xedea jasotzen du: euskal landa-ingurunearen garapen jasangarrirako jarduketak gidatuko dituen arau-esparrua antolatu eta ezartzea, eta hori guztia landa-ingurunea lurrealdeko gainerakoarekiko berdintasunean egon dadin, ingurune hori funtsezko eragilea baita herrialde osoaren garapen eta kohesiorko, ekonomiari, gizarteari eta lurrealdeari dagokienez.

2. artikuluan legea aplikatzeko definizioak ezartzen dira; hala, baterako terminologia bat erabiliz, legea modu argiago eta seguruago batean aplikatuko da.

3. artikuluan landa-garapeneko politikek eta jarduketek bete beharko dituzten printzipoak ezartzen dira. Printzipio horiek esparru honetan politikak eta jarduketak gidatu behar dituzten balioak dira, eta horien artean nabarmenzekoak dira landa-ingurunearen eta hiri-ingurunearen arteko aukera-berdintasuna, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna, landa-eremuko emakumeen ahalduntzearen sustapena, euskal landa-ingurunearen paisaiaren eta biodibertsitatearen zainketa, baita kultura-identitatearen ere, eta landa-eremu guztietan euskararen erabilierari eman beharreko bultzada.

4., 5. eta 6. artikuluetan landa-garapeneko politikek lortu behar dituzten helburuak ezartzen dira. Legeak helburu estrategiko orokorrak eta sektorialak bereizten ditu, eta helburu horien hierarkizazio eta egituraketa egokia ezartzen du. Helburu horiek lagungarriak izan beharko dute landa-ingurunearen ikuspuntu orohartzaile baten fokua jartzeko eta, bide horretatik, politika sektorialak modu malgu batean aplikatu ahal izateko ekonomia-arloan, populazio-arloan edo erabiltzaileen arloan eskuatu beharreko parametroei dagokienez. Kontuan hartu behar da helburu horiek guziak lurrealdeko, eskualdeko eta tokiko planak prestatzeko gida eta parametro bihurtuko direla, plan horiek baitira lege honen bidez ezartzen den landa-garapeneko estrategia berriaren nukleoa.

II. kapituluan euskal landagunearen zonifikatzeko berriaren oinarria proposatzen da, baita tokiko proiektu eta ekimenak bultzatu beharreko politika institucionalekin lerrokatzea aurreikusitako plangintza-tresna nagusiak ere.

Asimismo, la ley establece la gobernanza y los mecanismos de colaboración interinstitucional en la aplicación de las políticas sectoriales en las zonas rurales de la CAPV, con el fin de alcanzar una acción pública coordinada, coherente y eficaz.

La nueva ley se estructura en torno a 4 capítulos.

El capítulo I desarrolla las disposiciones generales de la ley, en particular las referidas al objeto, los principios y los objetivos que se pretenden conseguir.

El artículo 1 recoge el objeto de esta ley, que consiste en regular y establecer el marco normativo que guíe las actuaciones para el desarrollo sostenible del medio rural vasco, todo ello con la finalidad de que el medio rural se posicione en pie de igualdad respecto al resto del territorio como un factor fundamental en el desarrollo y la cohesión económica, social y territorial de todo el país.

El artículo 2 establece las definiciones para la aplicación de la ley, de forma que la utilización de una terminología común redunde en una mayor claridad y seguridad en su aplicación.

El artículo 3 establece los principios a los que habrán de acomodarse las políticas y actuaciones del desarrollo rural, entendidos estos como el conjunto de valores que han de guiar las políticas y actuaciones en este ámbito, entre los que destacan la igualdad de oportunidades entre el ámbito rural y el urbano y de mujeres y hombres, el fomento del empoderamiento de las mujeres rurales, la preservación del paisaje y de la biodiversidad, así como de la identidad cultural del medio rural vasco, y el impulso del uso del euskera en todas sus zonas rurales.

Los artículos 4, 5 y 6 establecen los objetivos que han de perseguir las políticas de desarrollo rural. La ley distingue entre objetivos estratégicos generales y sectoriales, y establece su adecuada jerarquización y articulación. Estos objetivos deberán contribuir a focalizar una visión omnicomprensiva del medio rural, que propicie una aplicación flexible de las políticas sectoriales en cuanto a los parámetros exigibles, económicos, poblacionales o relativos a las personas usuarias. Hay que tener en cuenta que todos estos objetivos se convertirán en la guía y parámetros para la elaboración de los distintos planes territoriales, comarciales y locales, que son el núcleo de la nueva estrategia de desarrollo rural que implanta esta ley.

El capítulo II plantea las bases para una nueva zonificación del espacio rural vasco, y los principales instrumentos de planificación previstos para la alineación de los proyectos e iniciativas locales a las políticas institucionales que hay que impulsar.



Orokorean, gure landagunea modu estuan bilbatuta dago hiri-gunearekin, baina bata eta bestea argi eta garbi desberdinak dira. Hala ere, EAeko landagunea zonifikatzea erabat garrantzitsua da landa-eremuen ezaugarriak eta beharrizanak identifikatzeko, geroago definituko diren garapen-eremuei dagokienez, eta modu horretan landa-garapeneko berariazko politikak nahiz politiken barruan esparru horietako bakoitzari eman beharreko laguntzen programak diseinatu eta aplikatzeko. Legeak landa-eremuen karakterizazioa gerorako uzten du, geroko erregelamendu-garapen baterako.

Euskal landa-inguruneko plangintza-tresnak lege honetan landa-garapeneko politikako elementu gako bihurtzen dira, landa-eremuak garatzeko egin beharreko jarduketak tresna horien inguruan egituratuko baitira.

Lurralde-garapenerako planak zehazten diren garapen-eremu bakoitzerako landa-eremuen diagnostikoa ezartzeko beharrari erantzuten diote, eremu horiei lotuta legean ezarritako helburu orokorreai dagokienez, eta helburu sektorialak, jarduketa-aratzak eta aratz horien garapenean parte hartzen duten eragile instituzionalak argi eta garbi adierazteko beharrari. Lurralde-garapeneko planek lurralde-antolamenduko tresnei men egin beharko diete, zeinek bere jarduketako gune geografikoari dagozkion tresnei.

Lurralde-garapeneko programak landa-ingurunaren lurralde-garapeneko ekintza politiko-institucional eta sektore anitzekoaren ibilbide-orri gisa erabiliko dira; eta landa-garapeneko eskualdeko programak nahiz, hala badagokio, toki-garapeneko estrategiak prestatzeko eta bateratzeko gidak izango dira.

Landa-garapeneko eskualdeko programetan, eskualde-eremu bakoitzean ezarri behar diren jarduera-lerro eta proiektu nagusien zehaztasun- eta lehentasun-maila azpimarratzen da, behetik goranzko ikuspegiari ("bottom-up") eutsiz, hala horien prestaketan nola garapenean, eta, betiere, kasu bakoitzean eragina duten lurralde-garapeneko programen gidalerroak betez.

Halaber, borondatez ezartzen dira EAEn landa-eremuak dituzten udalerri eta kontzejuetarako tokiko garapen-planak (TGP), beharrizanei eta bultzatu beharreko proiekturei buruzko gogoeta eta plangintzarako tresna bat eskura eduki dezaten. Tresna horren bidez, egin beharreko jarduketen programazio xehatua errazago egingo dute, eta kasuan kasuko udalerrira egokitua, betiere, eragiten dieten landa-garapeneko eskualdeko programei jarraikiz.

III. kapituluan garatzen da euskal landa-eremuetan sustatu beharreko jarduketen gobernanza,

De manera general, nuestro espacio rural está fuertemente imbricado con el espacio urbano, aunque claramente diferenciable de este. No obstante, la zonificación del espacio rural de la CAPV resulta de vital importancia para identificar las características y las necesidades de las zonas rurales con relación a ámbitos de desarrollo que se definirán posteriormente y poder así diseñar y aplicar políticas específicas de desarrollo rural y sus programas de ayudas a cada uno de esos ámbitos. La ley pospone la caracterización de las zonas rurales a un posterior desarrollo reglamentario.

Los instrumentos de planificación en el medio rural vasco se convierten en esta ley en los elementos clave de la política de desarrollo rural, en la medida en que las diversas actuaciones que hay que realizar para el desarrollo de las zonas rurales se estructurarán en torno a dichos instrumentos.

Los programas de desarrollo territorial responden a la necesidad de establecer, para cada uno de los ámbitos de desarrollo que se definan, el diagnóstico de las zonas rurales respecto a los objetivos generales marcados en la ley vinculados a dichos ámbitos, y señalar claramente los objetivos sectoriales, los ejes de actuación y los agentes institucionales implicados en su desarrollo. Los planes de desarrollo territorial deberán respetar los instrumentos de ordenación del territorio que afecten al espacio geográfico de actuación de cada uno.

Los programas de desarrollo territorial actuarán como la hoja de ruta de la acción política institucional y multisectorial para el desarrollo territorial del medio rural, y constituirán la guía para la elaboración y alineamiento de los programas comarcales de desarrollo rural y, en su caso, de las estrategias de desarrollo local.

Por su parte los programas comarcales de desarrollo rural inciden en la determinación y priorización de las principales líneas de actuación y proyectos a implementar en cada ámbito comarcal, preservando el enfoque ascendente ("bottom-up"), tanto en su elaboración como en su despliegue, y atendiendo a las directrices de los programas de desarrollo territorial que incidan en cada una.

Asimismo, se establecen con carácter voluntario los planes de desarrollo local (PDL) para los municipios y concejos con zonas rurales de la CAPV, con la finalidad de que dispongan de una herramienta de reflexión y planificación sobre aquellas necesidades y proyectos a impulsar, que les facilite una programación más pormenorizada de las actuaciones a ejecutar, referida al ámbito del municipio de que se trate, siempre en consonancia y coherencia con los programas comarcales de desarrollo rural que les afecten.

El capítulo III desarrolla la gobernanza de las distintas actuaciones a impulsar en las zonas rurales



eta alde horretatik bi kategoria diferente ezartzen dira: ikuspegia instituzionala daukan gobernantza eta ikuspegia publiko-pribatua daukana.

Gobernantza instituzionala Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta toki-erakundeek, zeinek beren eskumenen barruan, egiten dituzten jarduketa estrategikoei buruzkoa da. Gobernantza instituzionalaren maila horretan, legearen asmoa da politika instituzional eta sektorialak zaintzeari lotzen zaion ikuspegiaren (landa-lentean) eragina izatea, ikuspegi hori landa-garapenerako politiketan aurreikusitako helburu eta jarduketen arabera egokitzeari dagokionez. Ikuspegi hori EBko herrialde batzuetan ezarrita dago jada.

Horregatik, legeak xedatzen duenez, EAEko Administrazio orokorrak zein foru-administrazioek sustatutako plan, programa eta ekimen instituzionalak onartu aurretik, instituzio sustatzaileari dagokion landa-garapenerako sailak txostenia egin beharko du, baldin eta plan, programa eta ekimen horiek lege honetan aurreikusitako landa-eremuei eragiten dieten helburu orokor edo sektorialekin zerikusia badute.

Landa-garapenerako politika eta jarduketen kontrola, jarraipena eta ebaluazioa egiteko, gaur egun dauden tresnak baino arinagoak eta simpleagoak diren kontrol- eta jarraipen-mekanismoen alde egiten da; horretarako, jarduketa eta eginkizun berriak egin behar dituzte landa-garapenerako zuzendaritzaz eskuadunek, alegia, Euskadiko Administrazio orokorreko eta foru-administrazioeko eta toki-erakundeen Administrazioko instituzioetako bakoitzean, instituzio bakoitzaren eskumen-esparruak zainduta.

Maila horretan gobernantzaren koherenzia, efikazia eta koordinazioa bermatzeko, legean berebiziko zereginia ematen zaio Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordeari, abenduaren 23ko 17/2008 Legearen, Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoaren bidez sortu zen horri; hain zuzen ere, lege honen bidez batzorde hori aldatu egiten da, landa-garapenaren arloan legeak ematen dizkion eginkizun berriak barnean har ditzan. Hala, batzorde horrek funtsezko zereginia izango du lehenago aipatu diren plangintza-tresnen aldeko txostenen prestaketen eta gainbegiratze-txostenen onarpenean.

Toki-ikuspegiko gobernantzari dagokionez, arau berriak egungo eredu hobetzea proposatzen du, lankidetza publiko-pribatuaren formula berri baten bidez, bereziki landa-garapenerako erakundeen, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien arteko harremanetan. Formula berri horrek ahalbidetuko du lehenengoek eraginkortasun handiagoz jardutea lege honetako helburuak betetzeko.

Alde horretatik, gobernantzako egitura homogeneoagoa lortu nahi da, egitura efizienteagoa, pisu eta eduki handiagokoa, eskualdeetan nahiz

vascas, contemplando dos categorías diferenciadas: la gobernanza de enfoque institucional y la de enfoque público-privado.

La gobernanza institucional es aquella referida a las actuaciones estratégicas emanadas desde el Gobierno Vasco, las diputaciones forales y las instituciones locales en el ámbito de sus competencias respectivas. En este nivel de gobernanza institucional, la ley pretende incidir en el enfoque de vigilancia o lente rural ligado a la vigilancia de las políticas institucionales y sectoriales en cuanto a su adaptación a los objetivos y actuaciones previstos en las políticas de desarrollo rural, que ya está instaurado en algunos países de la UE.

Por ello, la ley dispone que todos aquellos planes, programas e iniciativas institucionales, bien promovidos por la Administración general de la CAPV, bien por las administraciones forales, que afecten a los objetivos generales o sectoriales que incidan en las zonas rurales previstas en esta ley, con carácter previo a su aprobación, deberán ser sometidos a informe por el departamento competente en materia de desarrollo rural perteneciente a la institución promotora.

Para el control y seguimiento y evaluación de las políticas y actuaciones de desarrollo rural, se apuesta por mecanismos más ágiles y sencillos de control y seguimiento que los instrumentos actuales, a través de nuevas actuaciones y funciones a realizar por las direcciones competentes en materia de desarrollo rural en cada una de las instituciones de la Administración general y foral y de la Administración de las instituciones locales de Euskadi, preservando los ámbitos competenciales de cada institución.

Para asegurar la coherencia, eficacia y coordinación de la gobernanza a este nivel, la ley otorga un papel crucial a la Comisión de Política Agraria, Alimentaria y de Desarrollo Rural, que fue creada por la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria del País Vasco y que mediante esta ley se modifica para que acoja las nuevas funciones referidas al desarrollo rural que le otorga. Así, esta comisión tendrá un rol fundamental en la elaboración de informes favorables de los instrumentos de planificación antes mencionados y en la aprobación de los informes de supervisión.

En cuanto a la gobernanza de enfoque local, la nueva norma propone la mejora del modelo actual, a través de una fórmula de colaboración público-privada, especialmente en las relaciones entre las asociaciones de desarrollo rural, el Gobierno Vasco, y las diputaciones forales, que posibilite que las primeras contribuyan de forma más eficaz al cumplimiento de los objetivos de la presente ley.

Así se pretende lograr una estructura de gobernanza más homogénea, eficiente, con mayor peso y contenido, con presencia territorial tanto a nivel



eskualdeetatik harago agertuko dena, eta bidea emango duena proiektuen sorkunza-lanean izaera hurbilari eusteko eta, aldi berean, lurradean jarduten duten gainerako egitura eta erakundeekin sinergia sendoak ezartzeko.

Horregatik, bat etorriz landa-garapeneko elkarteeek Administrazio publikoaren agente laguntzaile gisa duten funtsezko zereginarekin, legearen helburuak lortze aldera, bereziki, landa-garapeneko eskualdeko programak kudeatzeko, nabarmen indartu dira aurreko legean aurreikusitako lankidetza-hitzarmenak.

Horrekin batera, kudeaketa-zerbitzu berri bat sortzen da Hazi Fundazioaren barruan: Lurralde. Hitzarmenak sinatzen dituzten landa-garapeneko elkarteekin koordinatuko da zerbitzua, 14.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta landa-garapeneko jarduketen koherenzia bermatu eta indartuko du.

Tokiko gobernanza publiko-pribatuaren barruan, Landa Garapenaren Euskal Sarea sortzen da. Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean landa-garapenaren arloko eskumena duen sailari atxikita dago, eta helburu hauetan izango diru: landa-garapenean parte hartzen duten entitate eta eragileen arteko lotura, koordinazioa eta lankidetza sustatzea.

Azkenik, IV. kapituluak landa-garapeneko jarduketak finantzatzeko arau eta printzipio jakin batzuk ezartzen ditu. Arau horiek lurralte-kohesioko ikuspegi batetik abiatzen dira; xede horrekin, EAEn operatiboak diren programatik Europako Egitura eta Inbertsio Funtsei lotuta dauden horien baterako partaidetza ezartzen da finantza-esparru horretan. Halaber, landa-eremu edo -gune jakin batuetan funts anitzeko ikuspegia aplikatzeko aukera sustatzen du, eta zabalik uzten, hori komenigarria eta posiblea denean.

## I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua. Legearen xedea

1. Lege honen xedea da euskal landa-ingurunearen garapen jasangarrirako jarduketak orientatuko dituen arau-esparrua antolatu eta ezartzea, eta hori guztia landa-ingurunea lurradeko gainerakoarekiko berdintasunean egon dadin, ingurune hori funtsezko eragilea baita herrialdearen garapen eta kohesiorako, ekonomiari, gizarteari eta lurraldeari dagokienez. Horretarako, ezinbestekoa izango da nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-jarduerak kontuan hartzea. Jarduera horiek sustatzea, landa-eremuko biztanleria eta lurradea mantentzeko eta garatzeko oinarritzko tresna izango da.
2. Halaber, lege honen xedea da EAeko landa-eremuetan politika sektorialak aplikatzean kontuan hartu beharreko gobernanza ezartzea,

comarcal como supracomarcal, que permita a la vez que preservar su carácter de cercanía a la generación de proyectos, posibilitar el establecimiento de sinergias sólidas con el resto de estructuras y organizaciones que actúan en el territorio.

Por ello, en consonancia con el papel fundamental de las asociaciones de desarrollo rural como agentes colaboradores de la Administración pública en orden a la consecución de los objetivos de la ley, en especial, la gestión de los planes comarcales de desarrollo rural, se refuerza sustancialmente los convenios de colaboración previstos en la anterior ley.

- II. Landa-ingurunean zerbitzuak diseinatzeko eta garatzeko sistema berriak ikertu eta bultzatzea, IKTak nahiz lurraldean banda zabalak daukan hedapena baliatuz, eta ordezko konponbideen bilaketan proaktiboak izanez.
- III. 4.0 nekazaritza eta 4.0 abeltzaintza sustatuko dira, akademiarekin eta tokiko enpresekin elkarlanean. Teknologia digitalak landa-ingurunaren garapenean nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorea sendotzeko eta hobetzeko erabiliko dira, sektorean beharrezko den sarea sortuz eta baliabide digitalak zein horien erabilera rako beharrezko prestakuntza helburu horren eskura jarri.

J) Berrikuntzaren arloan:

- I. Landa-eremuetako eragileen arteko lankidetza bultzatzea, ikerkuntzako eta berrikuntzako ekintzek benetako beharrizanak bete ditzaten.
- II. Gaikuntzarako, prestakuntzarako eta trebetasunen garapenerako tresnak eskura jartza, landa-inguruneko eragileek berrikuntza baliatu ahal izan dezaten eta berrikuntza-prozesuetan gaitasun proaktiboa eduki dezaten. Horrekin batera, prestakuntza hori euskaraz jasotzeko eskubidea bermatuko da.
- III. Ezagutzaren sozializazioa sustatzea, akademiaren, ikerketaren eta aholkularitzaren esparruetatik nekazaritza-elikaduraren sektorera transferitzen dela ziurtatuz, baita esparru akademikoari nekazaritza-sektorearen behar zehatzak helaraztea ere. Horrez gain, ezagutzaren trukea erraztea azken erabiltzaileen eta elikaduraren balio-kateko mailen artean.
- IV. Euskal landa-ingurunean berrikuntza sozialaren eredu jakin bat garatzea; eredu horren oinarriak dira eragile anitzeko ikuspegiak, baterako sorkuntza, herritarren zientzia eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlan-formula berrien aldeko apustua.
- V. Talentua landa-eremuetara erakartzeko bide egokiak prestatzea, ekintzailetza bultzatuz eta enpresa berritzaleei inguru horietan kokatzeko erraztasunak emanez.

II. Investigar e impulsar nuevos sistemas para el diseño y desarrollo de servicios en el medio rural, aprovechando las TIC y el despliegue de banda ancha en el territorio y siendo proactivos en la búsqueda de soluciones alternativas.

III. Se fomentarán la agricultura 4.0 y la ganadería 4.0, en colaboración con la academia y con las empresas locales. Se utilizarán las tecnologías digitales en el desarrollo rural para reforzar y mejorar el sector agrario y ganadero, creando la red necesaria en el sector y poniendo a disposición de este objetivo los recursos digitales y la formación necesaria para su uso.

J) En materia de innovación:

- I. Impulsar la cooperación entre agentes de las zonas rurales para que las acciones de investigación e innovación respondan a sus necesidades reales.
- II. Facilitar instrumentos de capacitación, formación y desarrollo de habilidades que permitan a los agentes del medio rural aprovechar la innovación y tener capacidad proactiva en los procesos de innovación. Asimismo, se garantizará el derecho a recibir dicha formación en euskera.
- III. Fomentar la socialización del conocimiento, asegurando su transferencia desde los ámbitos académicos, de investigación y asesoramiento hacia el sector agroalimentario, así como la comunicación al ámbito académico de las necesidades concretas del sector agrario. Asimismo, facilitar el intercambio de conocimiento entre las personas usuarias finales y los diferentes eslabones de la cadena de valor alimentaria.
- IV. Desarrollar un modelo de innovación social en el medio rural vasco, basado en enfoques multiactor, de cocreación, de ciencia ciudadana y la apuesta por nuevas fórmulas de colaboración público-privada.
- V. Construir canales adecuados para atraer talento hacia las zonas rurales facilitando el emprendimiento y la instalación de empresas innovadoras.



- VI. Gastronomía eta elikaduraren balio-katearen digitalizazio integrala sustatzea, lurralte adimendunaren euskal estrategiarekin bat etorriz.

## II. KAPITULUA ZONAKATZEA ETA PLANGINTZA-TRESNAK

### 7. artikula. Landa-eremuen karakterizazioa

1. Landa-eremuak identifikatuko dira, biztanleriarekin, nekazaritza-jarduerarekin eta biztanleria-dentsitatearekin lotutako parametroetan oinarrituta, besteak beste.
2. Landa-eremuen kategorizazioa egingo da, honako hauen arabera:
  - i. Arau honetan jasotako helburuekin lotutako garapen-eremuak ezartzea.
  - ii. Besteak beste, irizpide eta parametro demografikoak, geográficoak, ekonomikoak eta zerbitzu eta komunikabideetarako irisgarritasunekoak identifikatzea, landa-eremuen karakterizazioa errazteko ezarritako eremu bakoitzerako.
  - iii. Landa-eremuen kalteberatasun-maila desberdinak definitza aipatutako eremu bakoitzerako.
3. Garapen-eremu bakoitzerako landa-eremuen katalogazioa eta parametrizazioa erregelamendu bidez arautuko da geroago, erregelamendu hori lege hau onartu eta urtebete igaro baino lehen onetsiko da.

### 8. artikula. Plangintza-tresnak

Politika institucionales bidez bultzatu eta babestu behar diren jarduketak oinarrizko bi programazio-tresnaren inguruan egituratuko dira. Lurralde-garapeneko programak (LuGP) eta landa-garapeneko eskualdeko programak (LGEP) dira tresna horiek.

### 9. artikula. Lurralde garapeneko programak

1. Landa-eremuen garapen sozioeconómica xede duten politikak, helburu orokorrak, helburu sektorialak eta jarduketa-ardatzak lurralde-garapeneko programen (LuGP) itxurapean agertuko dira.
2. Ezartzen diren garapen-eremu bakoitzerako lurralde-garapenerako programa bat egingo da.

- VI. Promover la digitalización integral de la cadena de valor gastroalimentaria en el marco de una estrategia vasca de territorio inteligente.

## CAPÍTULO II ZONIFICACIÓN E INSTRUMENTOS DE PLANIFICACIÓN

### Artículo 7. Caracterización de las zonas rurales

1. Se llevará a cabo una identificación de las zonas rurales con base en parámetros relacionados, entre otros, con la población, la actividad agraria y la densidad de población.
2. Las zonas rurales se categorizarán teniendo en cuenta:
  - i. El establecimiento de ámbitos de desarrollo relacionados con los objetivos recogidos en la presente norma.
  - ii. La identificación de criterios y parámetros de carácter demográfico, geográfico, económico, de accesibilidad a servicios y vías de comunicación, entre otros, que faciliten la caracterización de las zonas rurales para cada uno de los ámbitos establecidos.
  - iii. La definición de diferentes grados de vulnerabilidad de las zonas rurales para cada uno de los ámbitos mencionados.
3. La catalogación y parametrización de las zonas rurales para cada ámbito de desarrollo se regulará en posterior desarrollo reglamentario que se aprobará antes de un año desde la aprobación de la presente ley.

### Artículo 8. Instrumentos de planificación

Las actuaciones a impulsar y apoyar desde las políticas institucionales se estructurarán en torno a dos instrumentos básicos de programación: los programas de desarrollo territorial (PDT) y los programas comarcales de desarrollo rural (PCDR).

### Artículo 9. Los programas de desarrollo territorial

1. Las políticas, los objetivos generales, los objetivos sectoriales y ejes de actuación, orientados al desarrollo socioeconómico de las zonas rurales, adoptarán la forma de programas de desarrollo territorial (PDT).
2. Se elaborará un programa de desarrollo territorial para cada uno de los ámbitos de desarrollo que se establezcan.



3. Lurralde-garapeneko programetan honako hau jasoko da:

- a) 7.2 artikuluan aipatutako landa-eremu katalogazioa eta dagokien garapeneremurako eta indarrean egongo den denbora-tartea mugatzea. Lurralde-garapeneko programen indarraldiak EBko egiturazko funtsak eraentzen dituzten urte anitzeko finantza esparruen indarraldiekin bat etorriko dira.
- b) Landagunearen egoeraren diagnostikoa, garapen-eremu bakoitzari lotutako helburu orokorreai eta sektorialei dagokienez, lege honen 5. eta 6. artikuluetan xedatuta; helburu horietako bakoitzerako ezarriko dira gehien nabarmenzen diren gabeziak, beharrizanak eta garapen sozioekonomikorako aukerak. Diagnostiko horretan zehaztuko dira garapen-eremu bakoitzari lotutako eragile sektorial nagusiak.
- c) Lortu beharreko helburu sektorial nagusien zehaztapena, 6. artikuluan agertzen direnen barruan, bultzatu beharreko jarduketa-ardatzak, 3.A) puntuau aipatutako katalogazioaren araberako lehentasuna eta zonaikuspegia adierazita, eta lurrarde historiko bakoitzari eragiten dioten berezitasunak, helburuak lortzen parte hartu behar duten eragile instituzional nagusiak azalduta.
- d) Lurralde-garapeneko programaren esparruan bultzatu beharreko jarduketei finantza-laguntza emateko aukeren azterketa, Europako Egitura eta Inbertsio Funtsei edo EBn dauden finantza-tresnei lotutako funts anitzeko ikuspegi batetik jorratuta, 19. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.
- e) Jarraipen-adierazleetan oinarritutako ebaluazio-sistema bat, programaren indarraldia amaitutakoan programa horrek izan duen eragina baloratzeko bidea emango duena. Ebaluazio hori entitate espezializatu independiente batek edo euskal administrazioko entitate espezializatu batek egingo du.
- f) Genero-ikuspegia sartzea, arau honen 3. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera. eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 3ko 1/2022 Legeko 23. artikuluaren arabera.

3. Los programas de desarrollo territorial incluirán:

- a) La catalogación de las zonas rurales mencionada en el artículo 7.2 para el ámbito de desarrollo correspondiente y la delimitación del periodo de tiempo durante el que estará en vigor. Los períodos de vigencia de los programas de desarrollo territorial estarán en consonancia con los de los marcos financieros plurianuales que rigen para los fondos estructurales de la UE.
- b) Un diagnóstico de situación de la zona rural en relación con los objetivos generales y sectoriales vinculados a cada ámbito de desarrollo, estipulados en los artículos 5 y 6 de esta ley, estableciéndose para cada uno de ellos las principales deficiencias, necesidades y oportunidades de desarrollo socioeconómico. En dicho diagnóstico se determinarán los principales agentes sectoriales ligados a cada ámbito de desarrollo.
- c) La determinación de los principales objetivos sectoriales a alcanzar, dentro de los considerados en el artículo 6, los ejes de actuación que hay que impulsar, indicando su priorización y su enfoque zonal con base en la catalogación mencionada en el punto 3.A), y las especificidades que afecten a cada territorio histórico, señalando los principales agentes institucionales implicados en su consecución.
- d) Un análisis de las posibilidades de apoyo financiero a las actuaciones a impulsar en el ámbito del programa de desarrollo territorial bajo un enfoque multifondo ligado a los fondos EIE o a los distintos instrumentos financieros existentes en el ámbito de la UE, conforme a lo dispuesto en el artículo 19.
- e) Un sistema de evaluación, con base en indicadores de seguimiento, que permita valorar el impacto del programa al finalizar su periodo en vigor. Dicha evaluación la efectuará o bien una entidad especializada independiente o bien una entidad especializada de la Administración vasca.
- f) La incorporación del enfoque de género, conforme a lo previsto en el artículo 3 de esta norma, así como en el artículo 23 de la Ley 1/2022, de 3 de marzo, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.



- g) Diruz lagundu daitezkeen lerroak, daudenak edo egon litezkeenak, aplikatzeari eta erabiltzeari dagokionez egin daitezkeen gomendioen zerrenda: xede horrekin azalduko da zein irizpide erabil daitezkeen jarduketa-ardatz bakoitzean bultzatu beharreko proiektuak baloratzeko, lehenesteko eta hautatzeko.
4. Lurralde garapeneko-programen helburu sektorialek eta jarduketa-ardatzek lurralde-antolamenduko tresnetan azaltzen direnekin bat etorri beharko dute, zein bere jarduketako esparru geografikoan indarrean daudenekin, bai eta EBko landa-garapeneko politikaren ildo estrategikoekin ere.
5. Lurralde-garapeneko programak Nekazaritza, Elikagaigintza eta Landa Garapen Politikako Batzordeak proposatuta egingo dira. Programa horiek egiteko prozesuan parte hartu eta lankidetzan aritu beharko dute Eusko Jaurlaritzako kasuan kasuko sailek, hiru foru-aldundiek eta udalerriek, Eudelen bitartez ordezkatuta; eta Hazi Fundazioaren kudeaketa-zerbitzuaren lagunten jasoko dute, alegia, Lurralde zerbitzuarena, eta landa-garapeneko elkarteara.
6. Lurralde-garapeneko programek Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordearen aldeko txostena izan beharko dute, aldez aurretik Euskadiko Nekazaritza, Elikagaigintza eta Landa Garapeneko Kontseiluari eta zuzen afektatutako toki-erakundeei kontsulta eginda, eta Gobernu Kontseiluaren eta eragindako lurraldeetako foru-aldundietako organo eskudunen erabakiz onartu beharko dira; bestalde, euskal administrazioaren bitarteko informatiko ofizialetan argitaratuko dira.
7. Nolanahi ere, lurralde-garapeneko programetan barne hartzen badira erakunde jakinen eskumen esklusibokoak diren arloetako helburu eta jarduketa-ardatzak, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzko 27/1983 Legearen arabera, edo toki-erakundeen eskumenak dituzten gaietan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen arabera, haietatik eratorritako neurri edo jarduketak onartzeko ezinbestekoa izango da administrazio horietako bakoitzak ezarrita dituen proceduretan xedatutakoa betetzea.
8. Lurralde-garapeneko programak erreferentziatzat hartuko dira landa garapeneko eskuadako programak (LGEP), tokiko garapen-planak (TGP) eta, hala badagokio,
- g) Un listado de recomendaciones en cuanto a la aplicación y uso de líneas subvencionables existentes o potenciales, señalando posibles criterios de valoración, priorización y selección de los potenciales proyectos a impulsar en cada eje de actuación.
4. Los objetivos sectoriales y los ejes de actuación de los programas de desarrollo territorial deberán estar alineados con los señalados en los instrumentos de ordenación territorial vigentes en su ámbito geográfico de actuación, así como con las líneas estratégicas de la política de desarrollo rural de la UE.
5. Los programas de desarrollo territorial se elaborarán a propuesta de la Comisión de Política Agraria, Alimentaria y de Desarrollo Rural. Para su realización se contará con la participación y colaboración de los departamentos pertinentes de Gobierno Vasco, las tres diputaciones forales y los municipios, representados a través de Eudel, y el apoyo del servicio de gestión de la Fundación Hazi, Lurralde, y de las asociaciones de desarrollo rural.
6. Los programas de desarrollo territorial deberán contar con informe favorable de la Comisión de Política Agraria, Alimentaria y de Desarrollo Rural, previa consulta al Consejo Agrario, Alimentario y de Desarrollo Rural de Euskadi y a las instituciones locales directamente afectadas, y deberán ser aprobados por Acuerdo del Consejo de Gobierno y por los órganos competentes de las diputaciones forales de los territorios afectados; los programas de desarrollo territorial se publicitarán en los medios informáticos oficiales de la Administración vasca.
7. En todo caso, cuando los programas de desarrollo territorial contemplen objetivos y ejes de actuación en materias sobre las que las diversas instituciones tengan competencias exclusivas, de conformidad con la Ley 27/1983, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, o en materias en las que las instituciones locales tengan competencias, de conformidad con la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, las medidas o actuaciones que se deriven habrán de ser aprobadas conforme a lo que dispongan los procedimientos establecidos en cada una de dichas administraciones.
8. Los programas de desarrollo territorial serán el marco de referencia para la elaboración de los programas comarcales de desarrollo rural (PCDR), los planes de desarrollo local (PDL) y,



partaidetzako toki-garapenaren estrategiak (PTGE) egiteko.

## 10. artikula. Landa-garapeneko eskualdeko programak

1. Lurralte-garapeneko programetan azaltzen diren helburu orokorrak, helburu sektorialak eta lehentasunezko jarduketa-ardatzak landa-garapeneko eskualdeko programen (LGEP) bitartez agerrazti eta betearaziko dira. Programa horiek Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordeak irizpide geografikoaren arabera zehazten dituen eskualdeetan aplikatuko dira, foru-aldundien babesia izanda.
2. Landa-garapeneko eskualdeko programek jasoko dituzte, eskualdeko jarduera-eremu bakoitzerako eta metodologia komun baten pean, eragindako lurralte garapeneko programatik eratorritako helburu sektorial espezifikoak eta ezarri beharreko jarduera-ildoak, lehentasun-maila adierazita. Horrez gain, gobernantzaren eta finantzen aldetik egon daitezkeen ondorioak ere jasoko dituzte; bai eta adierazitako helburu eta jarduketa-ildo bakoitzerako erabili beharreko lagunza-tresnak ere. Halaber, landa-garapeneko eskualdeko programek programa bakoitzaren ebaluaziorako jarraipen- eta eragin-adierazleak izango dituzte, eta genero-ikuspegia sartuko da arau honen 3. artikulan xedatuta dagoenaren arabera eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 3ko 1/2022 Legeko 23. artikuluaren arabera.
3. Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordeak eskatuta egingo dira landa-garapeneko eskualdeko programak, foru-aldundien babesia izanda. Dagozkien landa-garapeneko elkarrekin egingo dituzte, ekainaren 25eko 158/2002 Dekretuak edo haren ordezko arauak ezarritakoaren arabera Hazi Fundazioaren Lurralte kudeaketa-zerbitzuarekiko lankidetzan.
4. Eusko Jaurlaritzan landa-garapenaren arloko eskumena duen saileko titularraren eta eragindako lurralteetako foru-aldundietako organo eskudunen agindu bidez onartuko dira landa-garapeneko eskualdeko programak, aurrez Euskadi Nekazaritza, Elikagaigintza eta Landa Garapeneko Kontseiluari kontulta eginda eta Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordeak aldeko txostena eman ondoren. Onetsi eta gero eragindako toki-erakundeei jakinaraziko zaie, jakinaren gainean egon daitezen.

en su caso, de las estrategias de desarrollo local participativas (EDLP).

## Artículo 10. Los programas comarcales de desarrollo rural

1. La plasmación y ejecución de los objetivos generales, objetivos sectoriales y ejes de actuación prioritarios señalados en los programas de desarrollo territorial se materializará a través de los programas comarcales de desarrollo rural (PCDR). Estos programas serán de aplicación en los ámbitos comarcales que determine, conforme a criterios geográficos, la Comisión de Política Agraria, Alimentaria y de Desarrollo Rural, contando con el apoyo de las diputaciones forales.
2. Los programas comarcales de desarrollo rural recogerán, para cada ámbito comarcal de actuación y bajo una metodología común, los objetivos sectoriales específicos y las líneas de actuación a implementar derivados de los programas de desarrollo territorial afectados, indicando su nivel de prioridad. Asimismo, contemplarán las implicaciones de gobernanza y financieras que conllevan, incluyendo los posibles instrumentos de apoyo a utilizar para cada objetivo y línea de actuación señalada. Los programas comarcales de desarrollo rural contarán con indicadores de seguimiento e impacto para la evaluación de cada programa, y dispondrán del enfoque de género conforme lo previsto en el artículo 3 de esta norma, así como con el artículo 23 de la Ley 1/2022, de 3 de marzo, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
3. Los programas comarcales de desarrollo rural se elaborarán a petición de la Comisión de Política Agraria, Alimentaria y de Desarrollo Rural, contando con el apoyo de las diputaciones forales. Los elaborarán las asociaciones de desarrollo rural correspondientes, conforme a lo establecido por el Decreto 158/2002 de 25 de junio, o norma que lo sustituya, en colaboración con el servicio de gestión de la Fundación Hazi, Lurralte.
4. Los programas comarcales de desarrollo rural se aprobarán mediante orden de la persona titular del departamento del Gobierno Vasco competente en materia de desarrollo rural y por los órganos competentes de las diputaciones forales de los territorios afectados, tras consulta al Consejo Agrario, Alimentario y de Desarrollo Rural de Euskadi, y posterior informe favorable de la Comisión de Política Agraria, Alimentaria y de Desarrollo Rural. Tras su aprobación se comunicarán a las entidades locales implicadas para su conocimiento.



Bestalde, landa-garapeneko eskualdeko programek toki-erakundeen eskumenekoak diren gaiei eragiten badiete, dagokien toki-erakundeek onartu beharko dute landa-garapeneko eskualdeko programak beren erakundean aplikatzea, bai eta haietatik sortzen diren proiektuak edo programak gauzatzea ere.

- Asimismo, cuando los programas comarcales de desarrollo rural afecten a materias sobre las que las instituciones locales tengan competencias, las instituciones locales concernidas deberán aprobar la aplicación de los correspondientes programas comarcales de desarrollo rural en su institución, así como la ejecución de los proyectos o programas que de ellos emanen.
5. Landa-garapeneko eskualdeko programak aplicatzeko denbora-eremua eta lurralte garapeneko programak aplicatzeko berbera izango da; hala ere, aplicatzen hasten direnetik hiru urte igarotakoan, euskal administrazioko entitate independente batek programa bakoitzaren tarteko ebaluazioa egingo du. Ebaluazio horretatik baliteke programetan aldaketak sortzea, baldin eta entitate ebaluatzaleak hala gomendatzen badu, eta Eusko Jaurlaritzan eta hiru foru-aldundietan landa-garapenaren arloko eskumena daukaten sailek egokitzat jotzen badute, Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordeak erabakia hartu ondoren.
  6. Behetik gorako parte-hartzea ahalbidetzeko diseinatutako metodología bat baliatuko da ("bottom-up"), eskualdean ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren arloan ordezkaritza handiena duten eragileek parte har dezaten. Metodología hori Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordeak adostu eta baliozkotuko du, aldez aurretik Euskadiko Nekazaritza, Elikagaigintza eta Landa Garapeneko Kontseiluari konsulta eginda, eta herriarrek parte hartzean euskara erabiltzeko duten eskubidea bermatuko du.
  7. Landa-garapeneko eskualdeko programetan jasotako jarduera-ildoien ondorioz gauzatu beharreko ekintzak eta haien lehentasun-maila urteko kudeaketa-planetan zehaztuko dira.
  8. Arlo horretako eskumena duen instituzioari dagokio landa-garapeneko eskualdeko programak egikaritzea, bat etorriz Lurralte Historiko Legean eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean ezarritakoarekin.

## 11. artikulua. Tokiko garapen planak (TGP)

1. Landa-eremuak dituzten udalek, bai eta landa-kontzejuak ere, borondatzez, berariazko planak prestatu ahalko dituzte. Plan horietan, lege honen 4. artikuluan aurrekitako helburu estrategiko bakoitzerako, udalaren jarduketa-esparruan aztertu beharreko beharrizan eta proiektu nagusien multzo egituratua jasoko da.

5. El ámbito temporal de aplicación de los programas comarcales de desarrollo rural será el mismo que el de los programas de desarrollo territorial, si bien a los tres años de aplicación se efectuará, desde una entidad independiente de la Administración vasca, una evaluación intermedia de cada programa. De esta evaluación se podrán derivar modificaciones en ellos, si así se recomienda por la entidad evaluadora, y se consideran pertinentes desde los departamentos del Gobierno Vasco y las tres diputaciones forales competentes en materia de desarrollo rural, previo acuerdo de la Comisión de Política Agraria, Alimentaria y de Desarrollo Rural.
6. La metodología será diseñada de manera que propicie el enfoque participativo ascendente ("bottom-up"), de cara a implicar a los agentes económicos, sociales y medioambientales más representativos de la comarca. Esta metodología se consensuará y validará en el seno de la Comisión de Política Agraria, Alimentaria y de Desarrollo Rural, previa consulta al Consejo Agrario, Alimentario y de Desarrollo Rural de Euskadi, y garantizará el derecho de utilización del euskera en la participación de los ciudadanos y ciudadanas.
7. Las acciones a ejecutar derivadas de las líneas de actuación contempladas en los programas comarcales de desarrollo rural, así como su nivel de prioridad, se concretarán en planes de gestión anuales.
8. La ejecución de los planes comarcales de desarrollo rural corresponderá a la institución pertinente en el ámbito de sus competencias, conforme a lo dispuesto en la Ley de Territorios Históricos y conforme a lo dispuesto en la Ley de Instituciones Locales de Euskadi.

## Artículo 11. Los planes de desarrollo local (PDL)

1. Los ayuntamientos de los municipios con zonas rurales, así como los concejos rurales, podrán elaborar con carácter voluntario planes específicos que recojan para cada uno de los objetivos estratégicos previstos en el artículo 4 de esta ley, un conjunto estructurado de las principales necesidades y proyectos a abordar en su ámbito de actuación.



2. Plan hori egiteko prozesuan, parte-hartzeko prozesu bat diseinatu eta garatuko da, eskualdean ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren arloan ordezkaritza handiena duten eragileak implikatzeko, besteak beste, landa-garapeneko elkartea.
3. Tokiko-garapen planek (TGP) horien esparru geografikoari eragiten dioten lurrarde-garapeneko programekin eta landa-garapeneko eskualdeko programekin bat etorri beharko dute, plangintza egiteko gutxienez bi urteko epemuga eduki beharko dute, eta dagokien gobernu-organoek onartu beharko dituzte. Horrez gain, Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordeak baliozkotu beharko ditu; batzorde horrek, hain zuzen, planak egiteko metodologia balioetsiko du, Euskadiko Nekazaritza, Elikagaigintza eta Landa Garapeneko Kontseiluari kontsulta egin ondoren.
2. En el proceso de elaboración de este plan se diseñará y desarrollará un proceso participativo, de cara a implicar a los agentes económicos, sociales y medioambientales más representativos de la comarca, entre ellos las asociaciones de desarrollo rural.
3. Los planes de desarrollo local deberán estar alineados con los programas de desarrollo territorial y planes comarcales de desarrollo rural que afecten a su ámbito geográfico, tener un horizonte mínimo de planificación de dos años y ser aprobados por los órganos de gobierno correspondientes. Asimismo, deberán ser validados por la Comisión de Política Agraria, Alimentaria y de Desarrollo Rural, la cual validará la metodología para su elaboración, previa consulta al Consejo Agrario, Alimentario y de Desarrollo Rural de Euskadi.

### III. KAPITULUA GOBERNANTZA

#### 12. artikulua. Landa-eremuetan bultzatu beharreko jarduketen gobernantza

Gobernantza bi jarduketa-ikuspegiren pean egituratuko da, eta ikuspegi horietan hainbat eragilek parte hartuko du; hona hemen ikuspegi horiek:

- a) Ikuspegi institucionala. Horren bidez koordinatuko, sustatuko, gauzatuko eta gainbegiratuko dira Eusko Jaurlaritzatik, foru-aldundietatik eta toki-erakundeetatik beren eskuinen esparruan prestatutako sektoreko jarduketa estrategiko nagusiak, lurrarde-garapeneko programetan ezarritako lehentasunezko jarduketa-ardatzen eta sektoreko helburuen arabera.
- b) Tokiko ikuspegi publiko-pribatua. Horren bidez proposatuko eta bultzatuko dira lurzoruarri buruzko jarduketak eta proiektuak, landa-garapeneko eskualdeko programa bakoitzean ezarritako helburu sektorialei lotuak; halaber, proiektuen hautaketa kudeatuko da, eta proiektuok abian jartzeko finantza-tresnarik efikazena identifikatuko dira.

#### 13. artikulua. Ikuspegi institucionalaren gobernantza

1. Eusko Jaurlaritzan landa-garapenaren arloan eskuema duen sailak koordinatuko du ikuspegi institucionalerako gobernantza, Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordearen bitartez; eta landa-garapenaren arloan eskuema duten Eusko Jaurlaritzako zein foru-aldundietako sailetatik zein dagozkion toki-erakundeetatik bultzatuko da.

### CAPÍTULO III GOBERNANZA

#### Artículo 12. Gobernanza de las actuaciones a impulsar en las zonas rurales

La gobernanza se estructurará bajo dos enfoques de actuación en los que participarán distintos agentes:

- a) Enfoque institucional, por el que se coordinarán, impulsarán, ejecutarán y supervisarán las principales actuaciones estratégicas sectoriales emanadas desde Gobierno Vasco, diputaciones forales e instituciones locales, en el ámbito de sus competencias, con arreglo a los ejes de actuación prioritarios y objetivos sectoriales marcados en los programas de desarrollo territorial.
- b) Enfoque público-privado local, por el que se propondrán e impulsarán actuaciones y proyectos sobre el terreno ligadas a los objetivos sectoriales marcados en cada programa comarcal de desarrollo rural, así como se gestionará la selección de proyectos, y se identificarán las herramientas financieras más eficaces para su puesta en marcha.

#### Artículo 13. Gobernanza del enfoque institucional

1. La gobernanza para el enfoque institucional, se coordinará desde el departamento del Gobierno Vasco competente en materia de desarrollo rural, a través de la Comisión de Política Agraria, Alimentaria y de Desarrollo Rural, y se impulsará desde los departamentos del Gobierno Vasco y diputaciones forales competentes en materia de desarrollo rural y desde las instituciones locales correspondientes.



2. Halaber, gobernantzaren esparru horretatik abiatuta zehaztuko dira lege honen 19.4 artikuluan ezarritako funts anitzeko ikuspegia, bidezkoa denean, aplikatzeari buruz hartu beharreko erabakiak, bai lurralte garapenerako planen programen esparruan edo landa garapenerako eskualdeko programen esparruan erabiltzeko.
3. EAEko Administrazio orokorrak zein foru-administrazioek sustatutako plan, programa eta ekimen instituzionalak onartu aurretik, instituzio sustaztalean landa-garapeneren arloko eskumena duen sailak txosten loteslea egin beharko du, erregelamenduz ezartzen den prozeduraren eta artikulu honetan xedatuta dagoenaren arabera, baldin eta plan, programa eta ekimen horiek lege honetan aurrekitako landa-eremuei eragiten dieten helburu orokor edo sektorialekin zerikusia badute.
4. Artikulu honetan xedatutakoa betetzeko, artikulu honetako lehen apartatuan aipatutako administrazioetako bakoitzean landa-garapeneren arloan eskumena duten zuzendaritzek edo unitateek honako eginkizun eta jarduketa hauek bete beharko dituzte:
- a) Aurreko apartatuan ezarritako nahitaezko txostenak egitea.
  - b) Artikulu honetako 5. zenbakian adierazitako gomendioen eta txosten lutesleen betetze-mailaren jarraipena egitea.
  - c) Lege honetako 19. artikuluan ezarritako finantza-xedapenen betetze-maila gainbegiratzea, EBren egitura-funtsen programa operativo instituzionalekin lotuta.
  - d) Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordeak agintzen dizkion beste eginkizun guztiak.
5. Zuzendaritza edo unitate horiek, hala badagokio, Lurralderen laguntza teknikoa izango dute, alegia, Hazi Fundazioaren kudeaketa-zerbitzuaren laguntza. Erregelamenduz ezarriko dira honako hauek administrazio bakoitzaren barruan: antolaketa, erabakiak hartzeko eta txostenak izapidetzeko prozedurak, txostenekiko desadostasunak gertatuz gero sor daitezkeen kasuistikak, eta apartatu honetan agindutako eginkizunei buruz sor daitezkeen beste gai batzuk.
6. Txostenak gehienez bi hilabeteko epean egingo dira eta, nahitaez, Nekazaritza, Elikadura eta
2. Asimismo, desde este ámbito de gobernanza se determinarán las decisiones sobre la aplicación, en su caso, del enfoque multifondo contemplado en el artículo 19.4 de esta ley, para su empleo en el ámbito de los programas de desarrollo territorial o de los planes comarciales de desarrollo rural.
3. Los planes, programas e iniciativas institucionales, bien promovidos por la Administración general de la CAPV, bien por las administraciones forales, que afecten a los objetivos generales o sectoriales que incidan en las zonas rurales previstas en esta ley, con carácter previo a su aprobación, deberán ser sometidos a informe vinculante por el departamento competente en materia de desarrollo rural perteneciente a la institución promotora, conforme al procedimiento que se establezca reglamentariamente, y lo dispuesto en este artículo.
4. Para el cumplimiento de lo dispuesto en este artículo, las direcciones o unidades competentes en materia de desarrollo rural de cada una de las administraciones contempladas en el apartado primero de este artículo, deberán realizar las funciones y actuaciones siguientes:
- a) La emisión de los informes preceptivos previstos en el apartado anterior.
  - b) El seguimiento del cumplimiento de los informes vinculantes y recomendaciones previstas en el punto 5 de este artículo.
  - c) La supervisión del cumplimiento de las disposiciones financieras previstas en el artículo 19 de esta ley en relación con los programas operativos institucionales de los fondos estructurales de la UE.
  - d) Cuantas otras funciones le encomienda la Comisión de Política Agraria, Alimentaria y de Desarrollo Rural.
5. Esas direcciones o unidades contarán, en su caso, con el apoyo técnico del servicio de gestión de la Fundación Hazi, Lurralde. Se establecerá reglamentariamente dentro de cada administración, su organización, los procedimientos para la toma de decisiones y tramitación de los informes, las casuísticas que puedan surgir en caso de discrepancias con los informes, así como cualquier otra cuestión relativa a las funciones encomendadas en este apartado.
6. Los informes se elaborarán en el plazo máximo de dos meses y se trasladarán para su



Landa Garapen Politikako Batzordeari igorriko zaizkio, onar ditzan.

7. Behin onartuta, txostenak lotesleak izango dira ezartzen diren landa-eremu guztietan. Txosten horietan aztertuko da planak, programak eta ekimen instituzionalak lurrarde-garapeneko programetara egokitzen diren, horien jarduketari dagokion lurrade-esparruan; xede horrekin gainbegiratuko da ea plan, programa eta ekimen instituzional horietan kontuan hartu diren lurrade-garapeneko programa bakoitzerako definitutako landa-eremuaren beharrizan, lehentasun, helburu sektorial eta jarduketa-ardatzak, eta bidezkoa denean aldatu edo berrikusi behar diren edukiak azalduko dira. Geroago, eragindako instituzioari eta sailei igorriko zaizkie txostenak.
8. EAeko landa-eremu batean, dela lurrade-garapeneko programen esparru geografikoan, dela landa-garapeneko eskualdeko programen esparru geografikoan Europako Egitura eta Inbertsio Funtsei edo EBn dauden finantza-tresnei lotutako funts anitzeko ikuspegi bat aplikatzeko erabakia, 19.4 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, Gobernu Kontseiluaren erabakiz hartuko da, Eusko Jaurlaritzan landa-garapenaren arloko eskumena duen saileko sailburuak hala proposatuta, Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordeak erabakia hartz ondoren.

#### **14. artikulua. Tokiko ikuspegi publiko-pribatuaren gobernantza**

1. Tokiko gobernantza publiko-pribatua Hazi Fundazioak koordinatuko du; horretarako, erakunde horretan lurrade-garapena xede izango duen kudeaketa-zerbitzu berria sortuko da, Lurralde izenekoa.
2. Lurraldek beharrezko den egitura teknikoa eta administratiboa izango du 15. artikuluan esleitzen zaizkion funtzioko eraginkortasunez egiteko.
3. Antolaketaren eta kudeaketaren arloan, Lurralde bi lurrade-esparrutan egituratuko da:
  - a) Eskualde-esparrua. Ezartzen diren eskualdeetako eremu geografikoetan.
  - b) Eskualdez gaindiko esparrua.
4. Gobernantzaren eskualdeko ikuspegia landa-garapeneko elkarteeetan (LGE) oinarrituta artikulatuko da; elkarre horiek, borondatez eta Lurralde zerbitzuarekin koordinatuta, Administrazio publikoaren erakunde laguntzaile gisa aitortuko dira.

aprobación, con carácter preceptivo, a la Comisión de Política Agraria, Alimentaria y de Desarrollo Rural.

7. Una vez aprobados, los informes tendrán carácter vinculante en todas las zonas rurales establecidas. En ellos se analizará la adecuación de los planes, programas e iniciativas institucionales a los programas de desarrollo territorial afectados en el ámbito territorial de su actuación, supervisando si han tenido en cuenta las necesidades, prioridades, objetivos sectoriales y ejes de actuación de la zona rural definida para cada programas de desarrollo territorial, señalando, en su caso, los contenidos que deban ser modificados o revisados. Los informes se trasladarán posteriormente a la institución y departamentos afectados.
8. La decisión de aplicar en alguna zona rural de la CAPV, bien en el ámbito geográfico de los planes de desarrollo territorial o bien en el de los programas comarcales de desarrollo rural, un enfoque multifondo ligado a los fondos EIE o a otros posibles instrumentos financieros existentes en el ámbito de la UE, conforme a lo previsto en el artículo 19.4, se adoptará por acuerdo del Consejo de Gobierno a propuesta del consejero o consejera del departamento del Gobierno Vasco competente en materia de desarrollo rural, previo acuerdo de la Comisión de Política Agraria, Alimentaria y de Desarrollo Rural.

#### **Artículo 14. Gobernanza del enfoque público-privado local**

1. La gobernanza público-privada a nivel local se coordinará desde la Fundación Hazi a través de la creación en dicha organización de un servicio de gestión orientado al desarrollo territorial, que se denominará Lurralde.
2. Lurralde se dotará de la estructura técnica y administrativa necesaria para ejercer eficientemente las funciones que se le atribuyen en el artículo 15.
3. En el ámbito organizativo y de gestión, Lurralde se estructurará en torno a dos ámbitos territoriales:
  - a) Ámbito comarcal. En los ámbitos geográficos de las comarcas que se establezcan.
  - b) Ámbito supracomarcal.
4. El enfoque comarcal de gobernanza se articulará con base en las asociaciones de desarrollo rural (ADR) que, a través de su voluntaria vinculación, y su coordinación con Lurralde, sean reconocidas como agentes colaboradores de la Administración pública.



5. Lotura hori gauzatzeko, elkarteeek urte anitzeko lankidetza-hitzarmen bat sinatuko dute Eusko Jaurlaritzan landa-garapenaren arloko eskumena duen sailarekin, bai eta landa-garapenerako elkartearren eremuko lurralte historikoari lotutako foru-aldundiko sail eskudunarekin ere.
6. Lankidetza-hitzarmenaren helburu nagusia tokiko gobernantzaren egungo eredua indartzea izango da; hala, landa-garapeneko elkarteen funtzionamendu integratua eta eraginkorra ahalbidetuko da, gobernanza instituzionalaren ikuspegiarekin bat datorrena.
7. Hitzarmen horrek bertan jasotako funtziak eta jarduketak behar bezala gauzatearekin lotutako antolakuntza-, finantz- eta kudeaketa-alderdiak arautuko ditu. Jarduketa horien artean daude, besteak beste, landa-garapeneko eskualdeko programak egitearekin eta kudeatzearerin zerikusia dutenak, baita urteko kudeaketa-planak egitearekin lotutakoak ere.
8. Bestalde, hitzarmena sinatzeko, landa-garapeneko elkarteeek honako hauek jaso beharko dituzte beren estatutu-xedeetan:
- a) Lege honetan jasotako helburu orokorrak eta sektorialak.
  - b) Dagokion eremu geografikoan ordezkaritza handiena duten eragile sozioeconómico eta sektorialekin integratzea edo lankidetzan aritzea. Honako hauek hartuko dira halakotzat, gutxinez:
    - i. Udalak, kontzejuak, kuadrillak eta bestelako toki-erakundeak.
    - ii. Eskualdean dauden sektore ekonomiko nagusietako eta gizarte-, kultura- eta ingurumen-arloko ordezkarriak
    - iii. Ekintzailetzari, ekonomiaren garapenari edo berrikuntzari laguntzeko entitateak.
    - iv. Elkartegintza-sare publiko-pribatuko entitateak, bereziki nekazaritzako lanbide-erakundeetakoak eta landa-inguruneko emakumeen elkartekoak.
9. Lankidetza-hitzarmena sinatzen duten landa-garapeneko elkarteeek beren estatutuetan jasotako gainerako eginkizunak betetzen jarraitu ahal izango dute, betiere dagokion hitzarmenean adostutakoaren aurkakoak ez badira.
5. Esta vinculación se llevará a efecto, a través de la suscripción de un convenio de colaboración plurianual con el departamento del Gobierno Vasco competente en materia de desarrollo rural, así como con el correspondiente de la diputación foral ligada al territorio histórico del ámbito de las asociaciones de desarrollo rural.
6. El convenio de colaboración tendrá como objetivo principal reforzar el actual modelo de gobernanza local, posibilitando un funcionamiento integrado y eficiente de las asociaciones de desarrollo rural alineado con el enfoque de gobernanza institucional.
7. El citado convenio regulará aquellos aspectos organizativos, financieros y de gestión ligados a la correcta ejecución de las funciones y actuaciones contempladas en él. Entre dichas actuaciones, se recogerán las ligadas a la elaboración y gestión de los programas comarcales de desarrollo rural así como la elaboración de los planes de gestión anuales.
8. Asimismo, la suscripción del convenio precisará que las asociaciones de desarrollo rural incorporen a sus fines estatutarios:
- a) Los objetivos generales y sectoriales contemplados en esta ley.
  - b) La integración o colaboración con los agentes socioeconómicos y sectoriales más representativos de su ámbito geográfico, entendiendo como tales, al menos:
    - i. Ayuntamientos, concejos, cuadrillas, y otro tipo de entidades locales.
    - ii. Representantes de los principales sectores económicos y del ámbito social, cultural y medioambiental, presentes en la comarca.
    - iii. Entidades de apoyo al emprendimiento, desarrollo económico o innovación.
    - iv. Entidades del tejido asociativo público-privado, en particular de organizaciones profesionales agrarias y de las asociaciones de mujeres del medio rural.
9. Las asociaciones de desarrollo rural que suscriban el oportuno convenio de colaboración, podrán seguir realizando aquellas otras funciones previstas en sus estatutos que no contravengan lo acordado en el correspondiente convenio.



10. Erregelamenduz ezarriko dira lankidetza-hitzarmenek jaso beharreko gutxieneko edukiei, iraupenari eta ondorioei buruzko xedapenak garatzeko administrazio-prozedurak, bai eta kudeaketa-planak ez betetzeak edo landa-garapeneko elkarteen hitzarmena bertan behera uzteak ekar ditzakeen ondorioak ere. Nolanahi ere, haiiek egikaritu eta garatzeko urteko zuzkidura ekonomikoak EAEko aurrekontu orokoren legeek xedatutakoaren araberakoak izan beharko dira.
11. Eusko Jaurlaritzarekin eta foru aldundiekin sinatutako lankidetza-hitzarmenetik kanpo geratzen diren arloetan, lurralte historiko bakoitzean eta EAEn sortutako landa-garapeneko elkarteen federazioek landa-garapeneko elkarteen koordinatzeko eginkizuna izango dute, udalerriz edo eskualdez gaindiko interesa duten ideiak, proiektuak eta ekimenak bateratuz. Horretarako, eta beharrezkoak diren proiektuak garatzeko, administrazioekin hitzarmenak egin ahal izango dituzte federazioek.

## 15. artikulua. Lurralderen eginkizunak

1. Eskualdez gaindiko esparruan, Lurralderen eginkizunak honako hauek dira:
  - a) Lurralde-garapeneko programak prestatzen laguntza, programa horien berri izatea eta horien zabalkundea egitea, eta horrez gain programa horiek kontuan hartza landa-garapeneko eskualdeko programak prestatzeko.
  - b) Landa-garapeneko eskualdeko programak egiteko metodologia diseinatzea.
  - c) Lege honen 13.3 artikulan aurreikusitako plan, programa eta ekimen institucionales berri izatea, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan, Estatuan eta EBn proiektu sektorialei finantzaketa-babesa emateko laguntza institucionales lerro nagusien berri ere.
  - d) Lurralde-garapeneko programak eta landa-garapeneko eskualdeko programak sustatzen eta garatzen diharduten eragile sektorial, elkarte, entitate eta antolakundeen koordinatzea eta beraiekin batera sinergia eta proiektuak bilatzea.
  - e) Zeharkako proiektuetan, proiektu pilotuetan, berariazko proiektuetan edo esparru sektorial batean espezializatzeko

10. Se establecerán reglamentariamente los procedimientos administrativos para el desarrollo de las disposiciones relativas a los contenidos mínimos, duración y efectos que deberán contemplar los convenios de colaboración, así como las consecuencias derivadas de los posibles incumplimientos de la ejecución de los planes de gestión o de una posible desvinculación de las asociaciones de desarrollo rural. En todo caso, las dotaciones económicas anuales destinadas a su ejecución y desarrollo deberán acomodarse a lo que establezcan las leyes de presupuestos generales de la CAPV.

11. En los ámbitos que queden fuera del convenio de colaboración firmado con el Gobierno Vasco y con las diputaciones forales, las federaciones de asociaciones de desarrollo rural creadas en cada territorio histórico y en la CAPV tendrán la función de coordinar las asociaciones de desarrollo rural, unificando ideas, proyectos e iniciativas de interés supramunicipal o supracomarcal. Para ello, y para desarrollar los proyectos necesarios, las federaciones podrán firmar convenios con las administraciones.

## Artículo 15. Funciones de Lurralde

1. Son funciones de Lurralde en el ámbito supracomarcal las siguientes:
  - a) La colaboración en la elaboración de los programas de desarrollo territorial, y en su conocimiento y difusión, así como su consideración para la elaboración de los programas comarcales de desarrollo rural.
  - b) El diseño de la metodología para la elaboración de los programas comarcales de desarrollo rural.
  - c) El conocimiento de los planes, programas e iniciativas institucionales previstos en el artículo 13.3 de esta ley y de las principales líneas de ayudas institucionales vascas, estatales y de la UE de apoyo financiero a proyectos sectoriales.
  - d) La coordinación y búsqueda de sinergias y proyectos con los principales agentes seccionales, asociaciones, entidades y organizaciones para el impulso y desarrollo de los programas de desarrollo territorial y los programas comarcales de desarrollo rural.
  - e) La interlocución y participación en proyectos transversales, proyectos piloto, proyectos específicos o de



- proiektuetan, barnekoetan zein Europako eta nazioarteko eremuetako proiektuetan, mintzakide eta partaide izatea.
- f) Lurralde-garapenari lotutako arau-proposamen, joera, foro eta proiektu berritzaileen jarraipena egitea, halakoek European zein nazioartean elkartrukea eta zeharkako elkarlana egiteko bokazioa badaukate.
- g) Lege honen 16. artikuluaren bidez sortutako Landa Garapenaren Euskal Sarearen bileretan parte hartzea, eta Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordearen mintzakide izatea.
- h) Lege honen 13.4 artikuluan urreikusitako jarduketak eta eginkizunak gauzatzeko laguntza teknikoa ematea.
- i) Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordearen Idazkaritza Teknikoari laguntza, azken xedapenetatik lehenengoan ezarritakoaren arabera.
- j) Eratzen diren toki-ekintzako taldeekin lankidetza aritzea.
- k) Adierazle-sistema bat ezartzea, Eusko Jaurlaritzarekin, foru-aldundiekin, Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapenerako Politikako Batzordearekin eta Landa Garapenerako Euskal Sarearekin partekatuta, eta Eustat, UPV/EHU eta eskualdean ekonomiaren, gizartearren eta ingurumenaren arloan ordezkaritza handiena duten eragileak.
- l) Adierazle-sistema horren bidez landa-garapeneko eskualdeko programak (LGEP) eta tokiko garapen-programak (TGP) ebaluatzea.
2. Eskualdeko esparruan, Lurralderen funtzioko honako hauiek dira:
- a) Landa-garapeneko elkartea dinamizatzea eta koordinatzea, lege honen 14.4 artikuluaren arabera.
- b) Landa-garapeneko eskualdeko programak egiteko, dagozion landa-garapeneko elkarrekin lankidetza aritzea, bai eta indarraldia amaitu ondoren horien ebaluazioa egitea ere, eskualdeen eta toki-erakundeen arteko oreka bermatzeko helburuarekin.
- f) El seguimiento de las propuestas normativas, tendencias, foros y proyectos novedosos ligados al desarrollo territorial, con vocación de intercambio y cooperación transversal a nivel europeo e internacional.
- g) La participación en las reuniones de la Red Vasca de Desarrollo Rural, creada en el artículo 16 de esta ley, y la interlocución con la Comisión de Política Agraria, Alimentaria y de Desarrollo Rural.
- h) El apoyo técnico para la realización de las actuaciones y funciones previstas en el artículo 13.4 de esta ley.
- i) El apoyo a la Secretaría Técnica de la Comisión de Política Agraria, Alimentaria y de Desarrollo rural, prevista en la disposición final primera.
- j) La colaboración con los grupos de acción local que se constituyan.
- k) Establecer un sistema de indicadores compartido con el Gobierno Vasco, las diputaciones forales, la Comisión de Política Agraria, Alimentaria y de Desarrollo Rural y la Red Vasca de Desarrollo Rural, y en colaboración con Eustat, la UPV/EHU, y agentes económicos, sociales y medioambientales más representativos de la comarca.
- l) Evaluar mediante este sistema de indicadores los programas comarcales de desarrollo rural (PCDR) y los programas de desarrollo local (PDL).
2. Son funciones de Lurralde en el ámbito comarcal las siguientes:
- a) La dinamización y coordinación de las asociaciones de desarrollo rural conforme al artículo 14.4 de esta ley.
- b) Trabajar en colaboración con las asociaciones de desarrollo rural correspondientes la elaboración de los programas comarcales de desarrollo rural, así como la evaluación al finalizar su vigencia, con el objetivo de garantizar el equilibrio entre las comarcas y las instituciones locales.



- c) Landa-garapeneko eskualdeko programetan aurreikusitako helburu sektorial zehatzak eta jarduketa-ildoak bultzatzea eta zabaltzea, bai eta garatu beharreko proiektuak ere.
